

**LETURIA - REN EGUNKARI EZKUTUA**



LETURIA-REN  
EGUNKARI EZKUTUA



ELIZKUTUNA  
1911



LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR  
DURANGO

J. L. ALVAREZ ENPARANTZA (Txillardegi)

LETURIA-REN  
EGUNKARI EZKUTUA



LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR  
DURANGO

1<sup>o</sup> argitarapen: Bilbao, 1957

2<sup>ren</sup> » Durango, 1977

© JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA

Argitaldaria: Leopoldo Zugaza, editor

Montevideo, 11

Durango

Azala: José Félix Igartua

Irudiak: J. M. ALVAREZ ENPARANTZA

ISBN: 84 - 7406 - 002 - 8

D. L. BI - 777 - 1977

Inprimatzaile: La Editorial Vizcaína, S. A.

Carretera Bilbao - Galdácano, 20

Bolueta - BILBAO

## BIGARREN ARGITARAKETA DELA-TA, HITZAURRE

*LETURIA-ren bigarren argitaraketa hau dela-ta, hitzaurre gisa lerro batzu bederen prestatzea bidezko iruditu zait.*

*Urrundu egin da LETURIA. Arrotz egin da. Joxeba eta Miren ene kaskotik sortu ziren giro hura, politikatik urrun beharra, ez da gaurkoa, ezta gutxiagorik ere.*

*Eta, ni beldur, gaurko irakurle anitz, gazteenak batez ere, orain dela hogeituro urteko giro hura ezagutu ez dutenak, harritu egingo dira nik uste. «Zer ote da hori guztia? Zertara ote datoz barne-garrasi eta metafisika-kezka ero horik?»*

*LETURIA, liburuaren egilea bera bezala, gizon eta emakume guztiok bezala, bere giroko seme da. Eta urte haietan, pasatzen dexente hasia egia aitortzeko, etsistentzialismoaren moda zegoen. Camus, Sartre, Jaspers, Kierkegaard... Izatearen zoritxarra gailen. Eta gure Unamuno iragarle. Moda hasia zen pasatzen, nion. Etsistentzialismoak modan jarri zituen arazoak ez baitira pasa, ez baitira gainditu; gizona gizon deno ez baitira pasako.*

*Eta barne-min hori, «être pour la mort» delakoaren goragalea, sinbolotan eta nobela gisa azaltzea bururatu zitzaidan.*

*Ez niri, ez da egia; ez osoki bederen.*

*1956-ko Apirila zen. Galiziara alferrez sei hilabetez*

egotera nindoan soldauzkara. Eta, joan aurretik, Koldo Mitxelenarekin mintzatu nintzen; eta inork ez zekien neure «segretia» aipatu nion: Galizian pasa behar nuen denbora hura galdu nahi ez, eta zerbait euskaratzeko neure asmoa azaldu nion. Knut Hamsum-en «Pan» nobela zoragarria hautatua nuela, hain zuzen.

—Ez, ez —erantzun zidan brauki Mitxelenak. —Inolaz ere ez! Zeure buruz asmatu behar duzu zuk nobela bat; eta horixe bai izkiriatu. Ez zazu, beraz, Hamsum itzul.

Ez nuen nik erantzun hau espero; eta zalantzan gelditu nintzen egun batzutan. Baina Maiatzean Galizia-ra iritsita, nunbait «ria» zoragarri haietako hosto berriek eta haize-bala hozkirriek pizturik, egitera deliberatu nintzen; eta LETURIA zoritxarrekoaren gorabeherak hasi ziren ningan mamitzen.

Camus-en «La Peste» (= Izurritea) neukan gogoan; eta nik neuk ere, sinbolakuntza osoan, funts handiko liburu bat moldatu nahi nuen. Miren, horretara, gizonaren xedearen irudia zen ene asmoan, bidean aurkiturik eta absolutu bilakatua; «Zerubide», izenak berak salatzzen duenez, Absoluturako bidean Naturaren irudia; Paris, berriz, unibertsalismoarena; eta, azken erremedio gisa, petrikiloarengana jotzeak ba zeukan, ene asmoan behintzat, Naturara bihurtu eta Zientzia soilari buruzko mesfidantza-kutsu nabarmena. LETURIA, azkenekorik, kristaua zen, geroko PERU LEARTZAKO-az bestaldera; eta nahiz oso heterodoxo izan.

Ez dakit oraindik ere ene sinbolakuntza horretaz inor, nik nahi bezenbat bederen, ohartua denik.

Nolanahi ere, LETURIA Ferrol-go lanperna usain eta «ribeiro» zuritan oratua izan da. Ene anaia bizkia ez bada ere, ene gaztaroko adiskide mina eta hurbila da Joxeba; eta ageri dela iruditzen zait. Horren barruan daramazkidan Puente deume, Betanzos, Cedeira, Jubia, La Coruña, Arosa, Grove, La Toja-n sortua da. Oso barruan, bai; askoz ere beranduago Noruega-ko Stavanger-en gertatzean erreparatu nuenez... Castelao ez nuen orduan ezagutzen, zoritxarrez. «Ondiñas veñen e van» airean mamitua, LETURIA-k ba dauka, bere muinean,

beharbada nik uste baino sakonkiago, «saudade» bortitz haren kutsua...

Beste giro bat, zeharo desberdina.

Krutxef-en Txosten famatua 1956-ko Otsailekoa da. Suez eta Budapest (gu guztiok ikaran!) LETURIA bukatzen ari nintzenean gertatu ziren. 1958-Maiatzeko deitik urrun, bakean eta isiltasunean zahartzen zen De Gaulle jenerala Colombier-des-deux-églises-en.

Gurean, berriz, hotzaldi betean, zer? Ilunpe itogarrrian zirrikiturik ez. Noiztenka bakarrik, Abenduaren 3-etan, Larraitz eta Hernio-ko erromerietan, euskal arnasa bila alferrik saiatzen... Beldurrez, konfiantzako lagunen artean, batek edo bestek ausartzia handitan lortua zuen «Euzko Gogoa» bat aztertzen genuen: Zaitegi... Orixé... Adima... Euskaraz ikasi nahi genuen, eta ez genekien nola.

Gugandik hurbilago, Etxaide-k prestatu berria zuen nobela berria irakurri genuen euskaltzaleok (Etxaide-ren «Joanak joan»); eta pozez ikusten genuen politzi-nobelak ere euskaraz egin zitezkeela (Loidi-ren «Hamabost egun Urgainen»). Atzerrian, berriz, ba genekien, euskara zailean, «Bidalien Egiñak» argitara zuela Zaitegik. Urte latzak, urte tristeak, urte luzeak. Zinez! Agirrek ere senditzen zuen gure arteko tristura hura; eta Biltzarre Nagusira deitu zituen denak (mendiz joango?) Parisera. Arantzazun ere, kultur-mailan, alaitasun handitan, galda azpian ba zegoela ageri zen... Eta, apalki, Bastarrrika, Intxausti, Azurmendi, Gandiaga-ren inguruan, JAKIN sortu zen. Hura poza!

Han eta hemen, benetako katakunbatan, multxo txikitan, euskaltzaleok biltzen: Mitxelena edo Berriatua-ren ondoan banaka batzu, Mirande edo Charritton-en ondoan beste batzu; edo-ta Santi Onaindia eta Nemesio Etxaniz, edo Elbira Zipitria eta Xabier Peña... Taldeska batzu, eguntsentiaren zai. Besterik ez. Giro hartako seme duzu LETURIA.

Noski! Gipuzkeraz agertu zen LETURIA. Eta bidezkoago iruditu zaidalako, bere hartan utzi dut: agertu zen bezalaxe dator berriro. Euskara batzeko beharraz

*ongi jabeturik egonda ere, Euskara Batu-rik ez zegoen 1956-an.*

*Politika girotik eta euskalgintzatik urrun sortu zela pentsa dezake norbaitek. Oker legoke. Euskaraz izkiriatzea bera aski zen garai hartan! Tunel betean mamitu eta argitara zen LETURIA. Hauxe da dena. Bere egileak aspaldidanik ezagutzen zituen Martuteneko aideak eta eltxoak; eta berriro ezagutuko zituela ongi zekien...*

*LETURIA, hitz batez, lekuko bat da. Ene lekukoa da, hasteko: hogeitaz gazteago zen idazle harena. Giro hartako lekukoa ere ba da, ene ustez. Eta, sinetsi nahi nuke, euskal literaturaren berrikuntzan urrats txiki bat bederen ematen lagundu zuela.*

*Hurrengoa, gaurko girotik abiatua, egiten lagunduko ahal du irakurlea!*

**TXILLARDEGI**

Donostian, 1977-ko Martxoaren 7-an.

*EUSKALTZALE GUZIAI ERAGIN NAIEAN.*  
*BIOTZEZ,*  
*EGILLEAK*

**SARRERA-ITZ BATZU**

*Eztut gaurdaiño itzaurrerik egin, eta enuen uste gogoz egiten ari naizen egiteko ori gogoz egin zitekeanik.*

*Jose Luis Alvarez Enparantza, euskal-letretan "Txillardegi", ezagutzen dut aspalditxoan. Ona nola ezagutu nuen. Sari-banaketa batean zen, eta saritutako lan batek etzuen oso ongi artzen norbaiten filosofia: Kant'ena ala existentzialistena zen, enaiz oroitzen. Dena dela, an altza zitzaigun Txillardegi. Laburki eta funtsez adierazi zigun etzuela ontzat artzen sarituaren iritzia, baita zergatik etzuen artzen ere.*

*Biziro poztu nintzan. Neroni, egia esan, bat nentorren Txillardegi'rekin, baiña ori zen gutxiena. Utsa aal da, bada, gure artean, iñor mamia aintzakotzat artzen ikustea? Eztut uste geroztik an-emengo aldizkarietan argitara eman dituen artikulu banakak irakurri gabe utzi ditudanik. Itzaldi trebe bat ere entzun diot, Unamuno'z, bear baiño gutxiagok entzuna. Eta beti,*



*gero eta geiago, asieran ezagutu nuen Txillardegia ura berbera arkitu dut.*

*Noizpait, joan den udaberrian edo, bere asmoaren jakille egin ninduen: eleberri bat egitekotan omen zebillen, eta nolapait esateko existenzialista orietakoa. Leen-baiño-leen asi zedilla eskatu nion, eta alik lasterren buka zezala. Eztut orrekin esan nai liburu onen sorreran zer ikusirik izan dudarik. Eman nizkion itzak merkeak dira eta enuen uste, ezta alderatzeko ere, gogoan zeukan liburu ura eskuetan daukazun liburu au izan zitekeanik. Saiatzeak eztio iñori kalterik egiten, eta euskal-idazle berri bati iñori baiño gutxiago. Txillardegia izanik, gaiñerra, banekien zorrotz eta zezatz esanik irakurriko genduela gutxienez. Izen-ondokoak ematen zidan, ordea, gogoanbearra. Beldur nintzan, alegia, idazlan ori ez ote zen, beste asko bezala, modaren losentzak eragiña izango, barrengo eskeak sortarazia izan bearrean.*

*Orrela den ala ez zerorrek ikusiko duzu, irakurle. Neronek argi eta garbi ikusia dut. Esan bearrean arkitzen naiz luzatu gabe, orrexegatik beragatik, itz eskas auek baiño obeak merezi dituela liburu onek sarrerako atean: dena delako leenik, eta mugarri baten antzera lur berrien señalea eta ezaugarria dugulako gero.*

\* \* \*

*Novela onen gaia itz gutxitan konta daiteke. Ezpedi iñor asalda: nik konta ditzakedan gertaerak eztira gain-gaiñeko axala baizik, muin*

gordea estali ez-baiña ukierazten digun itxura sotilla.

Udaldean, liburuko "Udalenean", Leturia k eztu zeregiñik, inguruko pakez asetzea baizik. Ezta kezkarik ere, gaztetasunaren eziñegon larriatsegiña izan ezik.

Bat-batean, pakeak, soseguak aldegin du, eta nolako aldaketa Leturia'ren gogoan eta inguruko zeru-lurretan, maitasuna dela bide! Askok eta askotara azaldu izan dute miragarritzko antzaldatze ori. Esaterako, Poe'ren itzez azal dezakegu:

"Gauza guztiak itxuraldatu ziren. Oi ez bezalako lore distiatsu izar-antzekoak ernatu ziren lorerik ezagutzen etzuten arboletan. Belarraren berdea berdeagotu zen, eta txiribita zuriak banan-banan galdu-ala, amar alako rubi-kolorezko unanu-lore jaiotzen ziren. Bizia piztu zen gure bidexketan... Urre-zillarrezko arraiez josi zen ibaia, eta onen sabeletik jaiki zen, gero eta ozenago, marmar bat, edozer baiño gozoagoa, Eleanora'ren mintzoa izan ezik. Eta aspaldian iguzkiaren etziñaldera geldirik genekusan sugarrezko odei lodi bat gure gaiñean tinkatu zen astiro, gero eta beerago, mendi-tontorrak ukitu arte, eta betiko balitz bezala sorginkerizko kerizpe argitsu betean izkutatu ginduen".

\* \* \*

Egilleak berak esan dit zati au "iñoxo xamarra" dela. Bai ote? Maitasunak —irritsaren azken txingarra aseak oztu eta betetasunak itza-

li arte— dakarzkien neke ta atsegiñak, amets ta etsipenak, maiz agertu izan dira irakurgaie-tan, gizona olakorik egiten asi zen ezkeru. Eta itzez, leen eta gero, zenbat bider? Alaz guztiz, oraindik iñor aspertu ezten ezkeru, esango gen-duke eztela gaia agortu, ezta agortuko ere nos-ki gizona gizon deño. Gezurrik gabe esan da gertaera ori, gizonari gerta dakizkiōkean beste zenbait gertaera nagusiren gisa, beti berria dela, leengoak bezalakoa izan arren eztuela sekula leengoen antzik. Naikoa da esatea Leturia'k sen-titu zuenaren berriaren berriak eztuela berri-tasunik ez jatortasunik galdu Txillardegiren luman.

Ori aski eztela, iñor okiturik baldin badau-ka iñongo erritan giza-maitasuna maizegi aotan erabilliak, eztakioke orrelakorik gerta euskal-dun irakurleari. Zenbait euskal-autorek azaldu dute maitasuna, egia, eta ez guztiek orobat. Ezagunenak besterik ez aipatzeko, or ditugu Detxepare eta Oihenart aseak neska-mutil gaz-tetxoei irakurtzea komeni etzaizkioten amaika gauza esan zituztenak, eta gugandik urbillago Bilintx gosea, bizi zeño ondorerik gabeko amets txuri-gorriak iruten jardun zuena. Egoaldeko maite-aizetxo bat ere etorri zitzaigun bein Pro-venza'tik. Baiña euskal-prosak uzkur egin dio geienetan gai orri. Baldinba, jasoagorik ukitu du; ez, ordea, bear bada, gizonarentzat —baita euskaldunarentzat ere— nagusiagorik, ez bizi-oiñarriei atrikiagorik. Axular batek bazekien ori, eta etzen gelditu iragaitzez bederen adie-razi gabe.

Leturia'ren txoraldi au pintatzean berean ere aberastu gaituela deritzat, beraz, Txillardegik. Baiña etzuen ortan gelditzeko asmorik. Asieran gaude oraindik; eztakigu ezeren berri, Leturia'ren itsumena gurea baldin bada. Neke eta ardailla, erdietsi du gogo zuena. "Uda" dator orain, uda ixilla, zorionari edo zorion-itxurari dagokionez, eta laburra gaiñera. "Udazkenera" eldu gera. Berandu oartu da Leturia, etzitekean leenago oar, sasi-bearra zela, sasi-premia, aldez aurretik guztizkotzat zeukan premia ura, etzela dena gorputzik gabeko ametsa eta irudipen utsa baizik; besterik nai zuela, uste ezpazuen ere, bere biotzak.

Etsibear gogorra gaiñean duelarik, ezin etsi. Eztu oiturak menderatuko, ezta "egunorokotasunean" murgilduko. Eztio maitasunak ernatu zion zorion-naiari ukorik egingo. Kontuak zero garbitu bear ditu bere buruarekin, orretarako etxetik iges egin bear badu ere. Eta bere buruarekin bakarrik asiko du "Neguko" izketaldi larria, il ala bizi, bide-billa, naigabez inguraturik eta illunbetan aztamuka. Bidea topatu du azkenean: beranduegi? Eztu leendik ezagutzen genduen bidea arkitu besterik egin, esango du agian norbaitek. Ez, ezta leengo bidea, oitura illa ezpaita sinismen bizia, ezta belarrik-belar dabillen artaldearen bidea aukerameneren jabe den gizonarena.

Arrazoi pixka bat bazuen egilleak leen zatiaren inioxokeriaz ari zenean. Aurtzaroko ametsetan —troxatan bezala— bildua zebillen Leturia, etzekien bere buruaren berri. Orrelatsu

gu, gaztetango irudiei ederretsirik bageunden. Eztut esango Egunkari onen azken zatia baiño ederragorik eztela ondu euskeraz —belles-lettres direlakoetatik agitz urruti gabilza emen—, ezta ere gai garaiagorik eztela ukitu. Baiña, baldin nere iritzia estalkirik gabe agertu bear badut, eztut uste iñoiz gure izkuntzan entzun denik orrelako itz larririk, orren ziñezko aitorrik, orrenbesteko karraxi sarkorrik. Eztugu sekula egin, itz batean esateko, Leturia'rena bezalako ibillaldirik gogo-bideetan barrena.

Liburu onen iturburuen billa asi ezker, arkituko genduke noski nor aipa. Euskaldun baten izena beiñipein, Unamuno'rena, aise etorriko litzaiguke gogora. Oker andia egingo genieke, ordea, bai Leturia'ri bai egilleari, bide ortatik abiatuko bagiña. Jakiña, egilleak eztu deus sortu ezerezetik, sortzaillea bailitzake orduan, Jainkoaren antzera, ez egillea. Leturia'ren nalgabea ere ezta beste iñork sumatu eztuenetakoa, non ta noiznaiko gizonarena —eta batez ere gaurkoarena— baizik. Ez uste izan, ordea, orrenbestez bere kezkek eztirela besterenen ispillu eta erraiñu besterik. Biotz-biotzean daramazki iltzaturik: nork ukatuko dio, bada, jabetasuna? Ba ote da oiñazea baiño gauza gureagorik?

\* \* \*

Leturia'ren Egunkariak lau aldi ditu, lau tempo, sinfonia batek bezala. Lizardi'ren Urtegiroak bezala, gaiñera, urte-sasoi enizenak da-

*ramazkite asieran. Berez bezala dator orrexegatik, ezer beartu eta biurritu gabe, Urte-giro aiek eta Egunkari au elkarrekin berdintzea naiz formari naiz mamiari dagokionez, elkarrengandik ain guztiz beste direlarik ere.*

*Duela ogeitabost urteko gizaki guztiak etziren Lizardi, baiña gizarteko gallur garai ura bere aldiko semea zen, edozeiñen antzera. Gaurko nornai ere ezta Txillardegi, baiña Txillardegi gaur-gaurkoa dugu, iñor bada. Bestalde, eta ori duzute okerrena berdinketan asteko, Leturia ezta Txillardegi, Txillardegi'ren umea baizik, geienez ere.*

*Enaiz emen asiko egillea eta egillearen seme-alaben arteko ar-emanen korapillo luze-biurria askatzen. Goethe'k, nonbait Ortega'k dienez, arkitu omen zuen, maitemiñak leer-zorian zeukanean, ordezkoa bere buruari eman bear zion tiroa artzeko: Werther gizarajoa. Txillardegik Leturia'ren bizkarrean ezarri du bere ta bere kidoen naigabe-zama astuna. Ez ori bakarrik. Obeto mintzatzeko, Kimikak —eta Literaturak orobat— oi duen eran, ain larri-min utsezkoa egin du, non eziñak berak ezpaitu atzeraziko. Guri, oitura lagun, egunoroko uskerietan murgiltze nagiak, alabearrari amor egiteak ematen digun eraman-ındarraz zearo erantziz du. Leturia ezta, beraz, bere aita, baiña badu aitaren eitea, nolana ere.*

*Lizardi'k, eztugu aaztu bear, neguan asi zuen udazkenean burutuko zuen ibillaldia: ez negu gorrian gaiñera, udaberriaren zantzu garbiak nabarmen zirenean baizik. Bukaera ere*

udazkenaren gainbeera asterakoan ipiñi zuen, gau beltzaren urbillak eguna iñoiz baiño desiragarriago biurtzen duenean. Txillardegi, berriz, udaberririk argienez abiatu da, negu-buruan gelditzeko.

*Ezta zalantzarik Lizardi'gan. Pozik dago bi-ziak eskeintzen dionaz eta fedeak agintzen dionaz. Alferrik billatuko duzute beragan Europa eta mundu guztia dardarazten asia zen lur-ikararen berririk. Dardarak ezkinduen artean ukitu edo, ukitu baginduen ere, begi-belarri erneak eta arima urduria bear ziren zirrara sumatzeko. Bizileku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez ezik, etzen paretetan artesiturik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, iritzi ta sinesteak oiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe beraganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala. Inguruan, Euskal-erria zeukan, euskal-lurraldea zugaitz ugariz jantzia. Etzuen iñongo amets-erritara iges egin bearrik. Aski zuen aurrean zeukana kantatzearekin.*

*Engañatua zebillen. Gaur badakigu astindu gaituzten lur-ikarak sortuak zirela ordurako, eta eztirela berealakoan paketuko. Zorioneko gorrieria ordukoa, alde batetik, ari zor baitiogu igartuko ezten Lizardi'ren poesia, gure ta ondorengoan atseden-toki paketsu izateko sortua. Baiña ez Leturia'k ez Txillardegi'k ez gaurko nornaik eztezake entzungor egin. Bizibearra ta ezinbizia aurrean ditugu, ezin ditzakegu besterik gabe guregana usteak, sinesteak, bizibideak,*

oiturazkoak direlako bakarrik, zeatz eta astiro esamiñatu gabe.

Trankillago bizi gaitzke ugoldeek eta aize-  
erauntsiek ere iñarrosten eztuten etxean, oiña-  
rriak berak koloka dauzkenean baiño. Egia.  
Atsegiñagoa zen Lizardi'ren mundu geldia gaur-  
ko gozogabe au baiño. Egia ori ere. Eztu ordea  
iñork bere mundua, giroa eta sorteguna auke-  
ratzen. Nor geren aldian eta tokian gertatzen  
gera, nola estakigula. Eta gurekin jaiotzen da,  
gure aldiko seme jatorrak bagera, arako antzi-  
ñakoen amor fati ura, gure denbora —gure  
sorterria bezalaxe— beste edozein baiño mai-  
teago biurtzen diguna. Gurea delako nonbait,  
guretarrekin itsatsirik gaudelako.

\* \* \*

Nik eztut Txillardegi bakarrik ikusten. Txil-  
lardegi eta Leturia'ren egunkari ezkutua gizal-  
di berri baten eta gizaldi orren obren aitzindari  
gisa agertzen zaizkit. Eztut uste oker nagoenik  
eta enuke iñolaz ere oker egon nai. Ate-joka  
dagoeneko deus gutxi ezagutzen ditugun ondo-  
rengoak.

Gizaldien arteko borroka etengabea bein ta  
berriro kontatua izan da. Eztute iñoiz zaarra-  
goek oso begi onez ikusten gazteagoen etorrera.  
Gezurra nioke, neronek, baldin banio ezudala  
alako erresumin ixil baiño bizi bat sumatzen.  
Begiak zabal-zabalik izaten dituzte gazteek zaa-  
rragoen alde txarrak —utsak, txorakeriak, itxu-  
rakeria batez ere— ikusteko. Badakite gaiñera



*bere dutela gazteek, zuzen ala oker, azken itza.*

*Gure artean, ordea, gaur eta emen, argi eta garbi ageri da jende berriaren premia. Eztut deus esango nere kidako eta zaarragoen kontra, nere buruaren kontra mintzatzea bailitzake. Aldi txarrean jaio gera gure neurriaren betea agertzeko: mendera ezin genitzakean gertariak erabilli gaituzte maiz aski orbela bezala nora ezkenekiela. Nolanai ere, eta aspaldidanik naiz iritzi ortakoa, Paradisu galduaren miña daukagu ezur-muiñetaraiño sartua eta beldur naiz ez ote geran beti ibilliko gaur-biarretako munduan tanquam aduenae et peregrini, errimiñak uzkurturik dauzkan arrotz eta kanpotarren gisan.*

*Gizaldi berria —Txillardegi eta bere seme Leturia artzen ditut egia orren lekuko— gurea baiño ohea, jatorragoa, iruditzen zait zenbait aldetatik. Itxurak eta izen ederrek gu baiño gutxiago lotsatzen dituzte: izanari lotuagoak ageri dira izenari baiño. Badute egiari —iguzki-argia baiño lilluragarriagoa den egiari— aurrez-aurre begiratzeko ausardia. Naimen-kemena eztute aitua; badakite erabaki gogorrak artzeko jaiোক direla, baiña eztituzte nolana, ero-eroan, artuko, ezpaitituzte gero erdizka eta gogo gaiztoz bete nai. Gure artean dabilzan ideak eta baliok erroetaraiño ikusmiratu nai dituzte. Kritika eta eraberritzea geron kaltean izango badira ere, oriezen bearrean gaude.*

*Ezta leku txarra Egunkari onen izkeraz mintzatzeko. Izkeran nabaritu baita, bestetan baiño leenago, gazteen etorrera, axal-axalean ageri*

delako edo. Izkuntza-gaietan eskarmenturik duenak aurki igerriko dio liburu onen egilleak eztuela gutxi entzun ta irakurri. Zaarrak eta berriak —liburuetan ikusiak, ez iztegiatan—, itz arrotz eta jatorrak, jakintza-izkuntza ta erri-esaerak naastean irauli dizkigu. Eztut esango, ezpailitzake egia nere ustez, Txillardegik bere mintzaera zearo eskuratu duenik liburu ontan: alako gordin-antxa arkitzen zaio, osoro eldu ezten fruituarena. Ezin zitekean bestela izan: eztitu itzak menderatu, itzekin borroka bizian ari da. Ezpaititu itz pollitak apainkiro elkartu nai bellarrien gozorako, itz orien bidez adierazi baiño arimaren zoko illunetan izkutatzen diren joera ta burutapen igeskorak. Ezpaita, batez ere, iñoren oiartzun, ezpaita besteren aoz ari, bere baitaren baitatik baizik.

Baliteke izkera oso garbia ez izatea. Bizia ta adierazkorra baldin bada, zertarako bear du garbia izan? Euskerarekiko kontuak ere garbiro egin bearrean arkitzen gera. Zertarako nai eta bear dugu euskera? Gure mundukoa ezten oroigarri zaar kuttun bat iduki genezakean moduan idukitzeko? Zikintzeko beldurrez iñor ukitzera ausartzen ezten zenbait liburutegitako azal ederreko liburuak bezala gordetzeko?

Maiz entzuten dira gure artean illeta-otsak; badirudi udazkeneko otz-ikara sentitzen dugula gorputzean. Eta alare eztakit. Askotan egiten dut nerekiko ez ote gauden aitzitik udaberri-aurrean. Zaarrak omen gera, beste edozein erri baiño zaarragoak. Egia dirudi, baiña erri baten adiña, gizon batena baiño areago, urtez bakarrik

neur ote daiteke? Ez ote gera euskaldunok —enaiz olako edo alako euskaldunez ari—, urtea joan urtea etorri, betiko aurtzaroan bizi? Gaur azkenik munduari zor diogun itza esateko zorian gaudela deritzat, eta uste ori Egunkari au irakurtzeak biziro sendotu dit. Eztaukagu beste biderik. Aurretango oarkabetasun atsegiña utzi bearke, biziko baldin bagera, arrazoi-adiñeko egiteko latz eta nekagarriei ekiteko.

\* \* \*

Eskerrak eman nai nizkioke, azkenik, Txillardegiri eleberri au euskeraz eman digulako. Ez ote du bada bear zuena, euskaldun bati dago kiona, bakarrik egin. Bai, orrelaxe da noski. Baiña ezta alferrik esana izango, gure arteko gor asko kontura ditezen, eginbearra eztela sarritan nolanai betetzen, heroismu utsa eskatzen digula. Zerbait esateko duena euskeraz mintzatzea, mintzabearra jatorra badu, ezta erraz eta alaikiro artu eta burutuko den erabakia. Eztago emen egiari uko egiterik.

Pozik gaude, berriro ere esango dut, Txillardegia euskal-soro mearrean ari zaigulako. Eta orain, iñor ezpanaiz ere, ongi-etorria egin nai nioke buru-langille edo direlakoen sail nardatu onetara, naiz ongi-etorria baiño gaizki-etorria zuzenago esana legokean. Mintzatu berriak dira Donostia'ko egunerokoetan orrelakoek gure artean maiz jasotzen dituzten zear-begiratu eta susmo txarrez. Baiña, nai ezpaditugu ere, bear ditugu ta gaur, gaiñerontzekoei ezer kendu

*gabe, iñoiz baiño geiago. Ur lasterraren erdian goaz, ez gaude ia ertzetik begira. Mendi-tontorretara igotzearekin ere, Domingo Agirre'k nai zuenez, eztugu deus askorik aurreratuko. Gauza asko eta asko ikasi, onartu eta gureganatu bearrean gera. Damurik, ezta dena irabazi utsa izango: kendu bearko da, soildu, idoki, ebaki, ezin-bestean baita maiteen duguna ere. Zuzen ikusteko eta zuzen erabakitzeko, burua bezain biotz garbiko jendea bear, nai-ta-ez. Egiak, aspaldi irakatsi ziguten, latza eta garratza izanagatik, osasunbidean jarri gaitzake.*

14-IV-1957, Erramu-igandea.

L. MITXELENA  
Euskaltzaindi'koa

# UDALEN

Bakarrik nago "Zerubide"n.

**1** Bañan ez nitzaz urrikaldu, naita etorri  
naiz-eta bakarrik egotera. Eta bai po-  
zik, alegia!

Emen bakarrik nago, egia esan; baña naia-  
go dut milla aldiz orain bezela egonda, pixka-  
naka-pixkanaka, zeru-lurraren aundia ta ederra  
dastatu, jende askok inguratuta denbora al-  
perrik xautu ta galdu baño.

Zer da-ta bakarrik egotea? Kalez-kale lagun  
askok inguratuta ibilli arren, ez ote naiz ni  
egon oi, ala ta guziz ere, orain nagoen baño  
askozaz bakarrago ta utziago? Bai, ziñez, eta  
sarri.

Orrengatik esan dut asieran, naita nagoela  
gaur bakarrik; bestetan ere lagunakin egon  
arren, bakar-bakarrik bai-nengoen, eta derri-  
gorrez gañera.

Gaur ez onelakorik. Ain zuzen ere, bakarrik  
egoteko etorri naiz "Zerubide" onetara, ta po-  
zik nago nere bakartasunean. Lortu al diteke

edozein gogo-gauza bakartasunaz maiz elikatzeke?

“Zerubide” au txit da polita, parke guziak bezela. Ez dakit “Zerubide” ote den polita, ala “Zerubide” bera ez dena, ots, bere parketasuna. Ori etzait ajola aundirik, ederra dela baizik.

Zugazti onetan sartuta, bere kerizpe indargarrarian murgildu, ta badirudi beste mundu zoragarri bateko sarreran nagoela. Biotza ukitzen dit bere olerkiak.

Orain, esaterako, alki batean exerita, urmael txiki borobil bat dut aurrean, nere lagun bakarra. Ez uste izan berak apaingura fiñak dituenik, ez: iturri apala da guziz, neri gustatzen zaizkidan bezelakoa: goldioak berdez margotua, iturburuaren xirripa etengabeaz besterik ez du. Ta or ari dira txirri erabetiaren tantotxoak, jauzika, uraren ispillua urratzen; eta gañean igerika ari diran ostopuska ariñak, otzikarak artuta gisan, gora ta bera mugiarazten.

Arratsalde ederra gaurko au. Ortzea garbi goialdean, itzalak igikor lurrean, arnagarri aize-bala frexkoak, eta landare-usaia... osasuntsu.

Udaberriaren ederra!

Bakarrik nago, bai, ta ondo alere. Gizonak bere begien aurrean belar izpi bat duelarik, gogaituta dagoela esan aal dezake?

Gogorra omen da bakarrik nai-ta-naiez ibiltzea. Eta, alere, pozik egon oi gera bakarrik. Nola ori? Zer da bakardadetik iges-eragiten diguna? Ta zer da bestetan bere billa

zuzentzen gaituena? Geure baitarako mintzagaiak izatea; geure buruakin itzik gabeko jarduna izateko gogoia.

Ots, nere buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik; garbiketa utsa baita, ta egiazko aitorketa, bakardadean egiten dudan egonaldia.

Nere burua ordea gezurtaratu nai dudanean, ezin dagoke aitorketarik, eta ez dut bakarrik egon nai oi. Bildurra da; bada, nere buruaren bildurra alegia, bakardadetik baztertzen nauena.

Orain ez dut alako bildurrik. Nazkatu egin nau munduko lozorroak, nazkatu egin nau bere laukeriak. Neure burua arkitu nai dut, nere gaitzerako ba da ere, naizena sakon aztertu ta miatzeko.

Eta iñork ezagutu ta ulertzen ez nauen ezkerok, "Eguneroko" onetan ipiñiko ditut nere arkikunde guziak, gaur bezela, geroan nere animak nekez goldatutako ildoari jarraitu aal izateko. Egunkari au izango da, bada, nere kezka guzien kutxa.

Txatxukeriak dira nunbait nere gertakizun oriek. Baña paperan txatxukeri orietzek zirri-marratuz iñoiz ez bezin gogara nago.

Or dut, aurrean ere, landetxe jori bat. Zergatik ikutzen dit barrunbea ura ikusteak? Zerbait eder bururatzen didate bere tellatuaren gorriak eta ormaren zuriak.

Bañan ez datza orretan bere unkigarria: bere pakea da nere burua asalduz betetzen duena. Baretasuna dario etxetxoari bere gauzatasunean; ez da ezertan igitzen, eta bere orretan



dirau eta dirauke. Arentzat ez dago zer-kezkatu; trankil eta asaldakaitz begiratzen ari da eguzkiaren ibillera geldia, bere sartalderako urdin argitsuan bera dijoala... Ez du biotzik!! Orrengatik ez du asalduk arrapatzen. Nik bai, berriz.

Sartaldera doa polliki-polliki eguzkia arratsalde eder onetan; orrengatik eta nolako estularria nere biotz onek! Igaro egin zait beste egun bat, ia oarkabean, ixil-ixillik, arrabotsik batere entzun gabe.

Eta gaur ere, gauzei alako edertasun-lillura darielarik, ez dut zorion-arrastorik sentittu, bere eza ta gabea baizik. Ez dakusat ezta zorionaren bidea ere!!

Zer dira nere lerro auek guziak errenkura sutsu baten gar kiskalgarria baizik? Zorion-irritsa da, bai, nere kezkaburua; bakarrik ego-tera ekarri nauen zio ezkutua, ta nere lagunengandik igesi joateko agindu nauen abotsa. Ori ez besterik. Zorion-miña da Izadiaren eder-lore yaukalak sortu didan biotz-utsunea.

Kezkatzen ez diran izakiekiko bekaitz-giro bat sentitzen dut barnean batzuetan. Aien pakea!

Baña... bekaitz esan al dut? Zergatik? Aundia edo-da zoriona, bere falta ain aundia da-ta. Gaurko nere utsune onek ez al du berez, eta besterik gabe, aski balio? Ez al du beintzat asko adirazten? (Eta ezer ere adirazten ez ba du...?)

Edo-ta, zoriona nai dut, nere biotz minduak zoriona bear duelako. Zertara datoz bestela nere



*W. H. ...*

**ЗЕРУБИОЕ'КО АТЕР**

bizigura ta biotz-lillurak deuseztatzea baño beste irteerarik ez ba dute...?

(Eta, ez ba dute...?)

Ondo konprenitzen dut, alabaña, zugaitz eta belardietako oiartzunetan nere biotzaren mintzaira, zorionarentzat jaio naizela diote, ta egun auek etorri diran artean, mundutar jostabide ero ta itsuei utzi-ta bakarrik onera etorri ez naizeño, ez naiz onetzaz konturatu.

Uriko zarata zela-ta, ez nuen nere biotzaren dei ixilla entzun, gor onek.

Orain berriz, urmaeleko xusmurrak, eta arbolen kulunkaera arrigarri ta aldakorrak, garbiro belarriratzen didate biotzaren itz auala.

Zoriona bear dut, bai!! Uriko orro zentzuga-beak ez nau bete. Orain, ostera, urrutitik entzunda, bere itsustasun eta gezurraz konturatzten naiz.

Bakarrik nago, baña neure munduan. Zalapartarena ez da nerea: "Zerubide"ko parkea dut, nunbait izatekotan, nere zeru-bidea.

Emendik aurrera onera etorriko naiz, eta onetaratzen naizenetan ez ditut koartillak aaztuko. Auek izango ditut gaurgero nere biotzaren adiskide min eta leialak. Aiei kondatuko dizkiet nere penak oro.

Eta au idatzi ondoren, arratsaldea iltzen ikusiko dut talaitxo artatik. Au poza. Ta au tristura! Au ederra!!!:

Itsaso aldera begiratuko dut. Eta nork imita dezake bere esana?

Talaieruntz noa, bada, lasai, geldi, presarik batere gabe. Zertarako presak? Eguzkia ez dabil larri. Ezta zugaitzak ere osto-kiman.

Nik ez dut presaren aldetik utsegin nai. Nerezako atsedengarririk ba da, ez al da au nere atsedena?

Bideska txigorretan barrena noa, bada, saskarka ta lore herrituen usai ezea betaro-betaro ausnartzen...

**2** “Zerubide”n nago berriz, eta bakarrik ere, arratsalde onetan.

Bearbada aspertuko nintzala-ta, liburu bat ekarri dut besapean. Irakurtzen asi naiz leen, bañan gogorik ez: barka bezait aipatuko ez dudan novelari ospatsuak, berea ez bai-da obena; bañan ezin josi bertan nere arreta ta oarmena. Txorien txorrotxioak zirala-ta, aur bi eskutik elduta nere ondolik korrika igarola-ta, burua eskubi ta ezker aldera, ta, utzi egin dut irakurtzea.

Naiago nuen parkea ikusi, ta nere baitan dabillen urduritasuna itzetan itzultzen alegindu.

Ederra dago gaur eguraldia: giro aztuna, sargori alegia, bañan itzaletan geratzeko zoragarri.

Aritzondo artetik zerua. Beltzak dirudite zugaitzen ostoak, eta atzo asko igitzen ba ziran, gaur geldi-geldirik daude. Noizik bein soillik aizearen arnasak nere arpegia birbizten du; nagikeriz bezela kulunka adaburuak labur eta mazal.

Zerua ez dago atzo bezin garbi, ta odei gandutsuak urdinduta agertzen dira, urrutiko mendi ta muñoak lau-lauak, koska ta konkoren arrastorik gabe taiuan.

Eta, ostarteak eguzkiari alde-egifnik, odeien artetik onen diztira itsa biurtzen denean, beren oikotasuna estaltzen dute izakiak oro, ta argia galtzeak larrutu dituela dirudi. Enbor eta adarretako islak. eguzkiaren utzierak irentsi bailituan, argi epelean iraungiturik, gorputz-edo gelditzen dira, erlieberik gabe, alkar gain metatuak, Gauguin'en koadroetan legez. Benaz, agi denez beren eguzki gun-emallea galduta, zertako biziko ez dakitela dautza erdi-illunean.

Alako more-beltzak jazten ditu, lore gorri zena ubel biurtzen da, ta negarraren eder unikarria dario orotatik.

Bitartean, zugaitzak koloreakin batera artu duten negar-itxura nabarmentzeko edo, enbor artetik dator urrutiko eresi ariña... Dantza-orkesta dantzut, aldizka, kantak eta egungo aireak jotzen dituen.

Ez bide-dago urruti dantza-lekua, orain ordubete inguru dela, neronek entzun bai-ditut, ain zuzen, ezkonberriai eman zaizkien agurrak eta zorion-opa alaiak. Eta joan dirala ematen du.

Orain, bazkaldegi apainduan noski, maitarrak ari dira dantzan. Betiko leloa, betiko jaimota, ta... beti bezin zirrargarria.

Bidea arkitu al dute bi oriek? Arkitu... aukeratu bai, beintzat. Azkatasuna galdu dute, ale-

gia, baña gaurgero maite-kezkabiderik ez dute izango.

Orretzaz gañera alkar maite ba dute, zerua ez al da ideki aientzat?

Baña... zauskada sakon eta latz batek astindu dit biotzondoa. Zer dakit nik ortaz? Lillura, lillura!! Zorion itxura oñarrige utsa ez al da oriek ikusteak bururatzen didan au?

Bi egi, bi alderdi, bi aro izan ditu orientzat biazialdiak: txikizitutik orain artekoa bata, ta gaurdanikoa bestea. Lenengoari utzi diote.

Alaz ere, azken-kutsuren bat ez al du ezkontzak? Ordurarte, alde batetik, goruntz ez al doa gizona, andik aurrera beeruntz eta illunpe beltzaren aldera abiatzen dela? Txikitzen ez al da gizona ezkonduz? Ezkongaietan zerbait ba nintzan, ezkondu-eta...

Aurrera begiratuki, beste biziera bat islatzen da, alegia, ezkonberrientzat. Bañan ezkon-aurrea ametsa ba zan, ezkon-ondoa zeatze ta konkretatzea da; ta ametsen gauzatzea beren amesburua baño zirtzillagoa ez al da izaten?

Zoragarria aien etorkizuna: Jainkoarena omen da sortzeko atsegiña.

Izugarria beren etorkizuna: bizimodu desberdiña, zearo ezagugabea, berunzkoa agian...

Nork daki?

Eztai-eguna igaro dute oriek. Gaztetasun be-tearen billa abiatu-rik, gaztaroa il dute. Sari garestia, egia esan, aukeramenean bai-datza gizonaren izana. Eta ni beldur aukeratzeko. Gogorra da ori. Aukeratzeko larri-miñik ez dute aurrerakoan izango; bañan, bere orde- z, auke-

raketa egiña izatekoa izango dute lagun betirako. Damurik ote?

Egun gogoangarria, bada, orientzat, maiaztzeko au, muga, bide ta joera eman bai-diotte gaur beren biziari. Ez dute berriz ezer ere ikusiko orain arte bezela, ezkontzak aientzat mundua aldatu du-ta. Arrosa xamurrak aien biotzai atzo itzegiten zienean, beste batera zuen elea. Illunabarrak, berriz, ez du sekulan izango atzo arte izan zuen lillura-mota. Gaztetango mintzoa, mututu egin zaie betirako. Atzo ere zituzten ametsak etzaizkie berriz otuko.

Zer burura dizaieke "Zerubide"ko iturritxo onek ezkontuta dagoen bati? Ez, alegia, neri esaten didana bera.

Nolakoa ote da ezkonduetik loreen izkuntza?

Jaiotzatik ezkondu artekoa, ta ezkontzatik eriotzarakoa; orra bizitzaren bi zatiak: autatu aurrekoa, autatu ondokoa.

Nigan, oraingoz, dena dago ikuskizun. Lenengo aroan nago ni. Ez dut nor maite, ez nau iñork maite, gurasoak besterik; ez dakit noruntz joan... Larribide au ez al da ezkonberri ausarta orienna baño nekakorrago...?

Ori idazten ari nintzala, aurreko iturrira alderatu da neskatz bat. Uraren ispillu igikorrrera begira egondu da lipar batez; eta bere burua, ala urmaeleko ondo arriksua ikusten ote zuen, ezin esan dezaket nik, ametsetan bezelakoa bai-zuen begirada...

Orretan zegoela, zakur aundi sendorra ondoratzu zaio zaunkaka, bere zakurra nunbait,

arri koskor bat botatzeko eskean. Ametsai betetan utzi neskak, lilluragunetik asmamena kendu, ta zakur ederrarekin joan da. Neri ez galerazteko egin dio kiñua, ta iturritik joaterakoan barkatzeko eskatu dit begiradaz. Ez da arritzekoa: gazte bat parkean idazten ez da askotan ikusi oi; ta berak ere alatsu uste zuen noski.

Eta bakarrik utzi nau berriz, leen bezela, atzo bezela, zugaitzak eta txoriak nere lagun bakarrak ditudala...

Itzali egin da eguzkia odei-tartean. Geioz ta goibelago jartzen ari da arratsaldea, ta onengatik ausaz, oni jarraitzeko gogoak joan zaizkit.

Oraintsu arte, or ari zen korneta zorrotza notak zabaltzen. Orain, berriz, ez dantzut ezer dantzakorik. Amaitu bide-da eztaiondo zarata-tsua...

Eta neuri ere idazgura suntziturik, logale nago.

Euria oraindik ere!

**3** Irakurtzen egon naiz goizean, ta pozik egon ere.

Bañan arratsaldean etxetik atera gabe berriz geratzea gauza gogorra iduritzen zait, eta kalera joatea erabaki dut.

Aterkia arturik, etxetik atera-ta Zerubide'ra joan naiz.

European oso eder-ugaria zelakoan, aruntz abiatu naiz; eta sartu ta segituan, zuzen-zuze-



nean, "nere" xoko begikora joan naiz, ots, bes-tetango urmaelondo berera.

Etzen andik ezer entzuten, euri-tantak neronen guardasolan jotzen baizik. Urmaelaren gañaldean euriaren onda-ingurutxoak eta iturri-xirriparenak alkarrekin naasten ziran, eta ura irakiten ari zela zirudien.

An gelditu naiz ni zutik, nere begiak iturrian josiagatik iturrira begiratu gabe, neure buruarekin itz-gabeko solasean.

Batzuetan aize-bala xamur ozkirri batek nere arpegiaren larru oztua musu ezeaz jautu ta iratzartzen zuenean, bazter ezagungabeak begizatzen zituen ziplo nere biotzak; bañan amets-atsegin berria nabaitu orduko, zoriontasun-pitsak nere erraietako erraiak berak sakon alaitu orduko, zoritxarrezko aragiak loturik-edo, lur bustiaren gañera etorri bear nuen berriz.

Oriek biotz-ziztadak! Aien ondoan atsegiñik gozoena mingots utsa da.

Pozik emango nuke guzia lipar dizdiratsu oriek luzatzeagatik. Bere muiñean ederraren tximist labur eta sarkor auek sentittu ez dituenak, ezin esan dezake txintik zorion-pozaz...

Zoragarri zegoen gaur Zerubide. Astotzar galdu-beteak bai, parke bustiaren bakardadeari biotzez betesten eta ederresten ez dakitenak. Zorigaistokoak obe... edo gizajoak.

Bide txigorretan ibilli naiz gero, zugaitz aundien artean, eta Debussy'ren "Les Jardins sous la pluie" bururatu zait. Ura bera zan. Zoriontsuak Ederraren munduan bizi ditezkenak,

ederrarenaz beste kezkarik ez dutenak, Artean jaio ta iltzeko aukera, edo ausardi naikoa dutenak.

Noizean bein, aide-bolarak zugaztia iñarros-tean, ezin geldi nindeke goruntz begiratu gabe. Nork ikusi du sekulan arbolen igitzea baño igitze lilluragarriagorik? Ozkarbi denean asperen da beren otsa; goibelaldian, aubena. Neguko ekaitzean, berriz, meatxu izugarria; udazkeneko arratsalde aizetsuan, agur minbera.

Onelako gogoetan ari nintzalarik, zakur aundi bat igaro zant ondotik. Lengo egunekoa ez ote?

Alde guzietara begiratu dut, eta... berbera. Neskaxa Zerubide'tik nolatan zebillen ez nekien, eta orain ere ezin igarri. Alako eguraldi txarra izanagatik, andik zijoan ura, or zintzoa lagun, bidexka bustietan barrena; eguraldiaren txarraz kasorik batere egin gabe.

Aren ondotik igarotzerakoan kezkatan ibilli naiz, kezka farregarrian alegia: agurtu bear nuen? Edo-ta, ez dut pentsatzeko beta luzerik izan, eta "agur" esan diot ia oartu gabe.

Lotsatuta gelditu da nunbait neska, urratsak arindu dituela bistan bai-zegoen.

Zer egiten ote zuen berak? Piska bat kezkatu nau, egia esan. Polita iduritu zait, oso polita. Ez dakit nola den ere; baña giro busti ta illun artan margo-lore bizia zen bera, ta gorri-zuri gozoa iñoiz ez dut sentittu gaur bezin garbi ta kilikagarri. Bildurtuta zebillelako bearbada, xamurra izan zait txoil aren begirada, ta guztiz berria. Nik bezelako kezkabide ta katramillak

al dardiduki gurea berotiduko naska urak?  
Zeritako araban da bestia urrutietan eta  
bakarrik? Zurea eta urrutia al dabil  
eta eta?

Nere andi... joster... bai-ou.



NERE AURREAN XIRRIKA ETENGARREN

*Editha...*

egunetan egundako...  
eta... eta...

al darabilzki ausaz Zerubide'ko neska orrek? Zertarako aratzen da bestela orrenbestetan eta bakarrik? Trixterik eta uts-miñez al dabil ura ere?

Neska andik lekukurik, joaten ikusi bai-dut, itsaso aldera abiatu naiz, talai aldera, ta orduntsu atertu du.

Gorritzen asi dira urrutiko odei berunak, eta an gelditu naiz, itsaso zabalari so, eguzkia osertzean itzali arte.

Biar eguraldi ona, eiki.

Ala bedi!

**4** Zerubide'n egon naiz zai ez dakit zenbat orduz. Alperrik. "Bera" ikusteko gogoa nuen, bere iduri polita itzaltzen ari zitzaidalako.

Etxe aldera nentorren, bada, ikusteko itxaropena zearo galdurik, eta bidean Xabin arkitu dut. Alderatu egin natzaio. Azkenaldi onetan ez nuen ikusten, eta izketan asi gera gustora; ta orrela ginjoazela, bigarren txiripa izan dut: "nere" neska zetorkigun.

Alkarrizketa eten dut ziplo, tximistak jota bezela, ta esan dion Xabin'i: —Adizak, Xabin. Ezagutzen al duk ortik datorren neska ori?

Baietz esan dit.

Begi utsa nintzan ni; arretarik gabe egin dut agurtza, tutik esateke.

Gogoz asi natzaio begiraten. Eremuan eun egunetan egondako ibiltariak ura edango zuen eran, edaten nuen nik bere aurpegi zoragarria.

Uste nuen baño ederragoa da. Begitarteko zati guziak azertu ditut banaka xegundu batean, eta zeatz itsusi bat ikusi dut: etzaizkit bere ortzak gustatu. Nola gerta liteke au? Ez dakit.

Lipar motz batean ikusi ta pentsatu ditut gauza oriek, guziak, eta geiago ere bai, Miren'ek ezertaz konturatzeko betarik izan ez duen artean.

Asko gustatu zaizkit bere ezpain lodisko-teak; eta bere begi erabetiak batez ere. Arek nere agurrari erantzun orduko baneukan nik bere erretratu osoa ta au guzia txoil azterturik.

Izketan asita, kristalezko bere abotsak urratu bezin laister, aterata nengoen ni nere baitatik. Nola ez dira arriak berak ari entzutean urtutzen? Nolatan ez ditu bere begirada otoitsuak arkaitzak berak beratzen?

Amasaspi urte ditu. Gorputz lerdena, begi argiak, bolizko larru xuria.

Laguntzen asi gatzazkio bere etxerako bidean, eta dena esan diot amar miñututan. Itzontzi berritsu biurtu nau pozak.

Xabin gizajoak esan edo egin duenaz, ez dakit ezer; bañan eskaratzera iritxi orduko etzegoen gurekin.

Non sartzen den ez dakidala esan diot Miren'i; benetan zoragarria dela siñistatzeko, ta ezagutzeko gogoia nuela. Ezpafiñetan nuen biotza.

Bereala iritxi da alkarri agurtzeko unea, ta noiz arte ez dugun alkar ikusiko galdetu diot, bañan ez du garbi erantzun nai izandu, zearka-

mearka baizik. Ezdakit bada berriz noiz ikusiko dugun.

Etzirudien etxera joateko oso presa aundia zuenik, eskaratzean gelditu bai-gera zenbait miñutuz.

A, Miren maitea! Ta zein argitsua den gaurik beltzena zu ikusi ondoren...

Ura utzi dudanean, pozik asi nintzakean karasika, maitasuna zein ederra den oju-egiten. Bañan, zertarako? Zer daki zegarriaz, egarririk beñere sentitu ez duenak?

Maitasuna: iztegiaren itzik ederrena zera zu, biotzaren elerik xamurrena, buruaren eragillerik hortitzena. Nork asma dezake maitaleari agertzen zaion ederra?

Bere abotsaren oiartzuna gal ez dedin, ez dut iñorekin itzegin nai; ez dut ezer nai, nere bakartasunean amestu baizik. Munduko atsegin guziak ezer etzaizkit.

Nitzaz kontura dedin, bere begiak nigan josi ditzan, nitzaz oar dedin, nola egin nezake nik...?

Orretzaz aritu izan naiz leen, eta alik azkarren gutun labur au ematea erabaki dut:

“Miren:

Zergatik?

Etzaitut ezagutzen, eta guziz ere ezaguna zatzazkit.

Etzaitut maite, baña zure zoriona nai dut.

Zergatik?

Amets eragin dit zure begiruneak; eta malakoak ere agian ixuri-eraziko dizkidatzula pentsatzeak, dardar jartzen nau.

Zergatik zu, Miren?

Zergatik?"

Ez dakit noiz eman dizaiokedan, bañan erabakita daukat ematea.

Nola artuko du nere ori? Noiz emango ote diot? Au zalantz-asun minkorra!

Illuna izan da gaurko eguna. Jaso egin da eguzkia, ta goi urdiña argitu. Baña zer dira eguzkiaren izpi meak, egun osoan nere Miren ez ba dakusat?

Geldi bedi eguzkia irten aurretik, utz bizaio bere bideari, eror bitez izarrak ortze baretik; eta zer neri ori guzia Miren'en begi argitsuak nere aurrean atsedengarri ba ditut?

Ai, nere eroegia!

Ez dut ikusi!! Zergatik ez du onek iñoren biotza erdiratzen?

Baña badantzut: "Joxeba, ire egoera ez duk bidezkoa. Eroa dirudik". Gizonaren xede bakarra bidez eta zentzuki bizitzekoa ba da, eraman nazatela deabruak.

Zertarako nai ditut nik arautasuna ta zentzua, orain arte lozorroa besterik eman ez ba didate? Bere bidez biziaren giarra ausnartzeko gauza egiten ba nau, betor ordu onean erotasuna.

Au aldaketa: orain arte gaua zetorreanean ez nuen zer-kezkatu, ta oeratu bezin laister orditzen ninduen loak, eta bere illunbean iraungitzen zen nere biotzaren argia.

Orain, ostera, oieratu, ta berantetsita narabilte milla asmaziok, eta milla kezkak naragite, pake zena bathatean ekaitz izugarri

egiñez. A, Miren: biar ikus ba zintzat, itzegin ba neza zurekin, alai ba nintza zure abotsak... Zerori zera nere gogorazio bakarra, zuk zerorrek betetzen duzu nere izate osoa, ta edonolako kezka illuntzen. Zerurik goreneraño altxatzen nauzu batzuetan, eta ifernurik izugarrieneraño egozten besteetan. Egun eta illun zatzazkit batera.

Eta zein txiro ta urri den nere asmamena! Aldizka, zure iduri amesgarriak ernetzen du nere barne-muña; baña, une batean sekulako argitasuna zabaldu ondoren, leeneko nere illunbe itora biurtzen naiz, leen baño ere itsu ta itunago.

Jauna! Ta zein kaskarrak diran nere almen guziak bear dudanarentzat...

Gauetz ames egin al ba neza. Ikusmenak, eta itzar-men guziak, zer egiten dute egunez eragotzi besterik?

Lo-egin nai dut, eta nere loaldia bere irudi oroigarriak edertuko ba lu...

Baña nolakoa du arpegia Miren'ek? Gogoratzen saiatezn naiz, eta bere arpegiaz zeatz oroitzen ez naizela oartzen naiz saiatze berean. Gezurra dirudi: nere bizitza mamitu ta piztu duen oroitzapen orrek, ez du nigan, izan ere, isla aratzik.

Gau-miñean beintzat ames egin al ba neza... Orduan, zentzumenak eragozpenik ez dagienean, diztiratsu ikusten du animak, gorputza itzarrik doi-doi begizta dezakeana.

Itzaliko al dit aurki lo sakonak kordearen argi aula!



**5** Beste egun bat joan zait, eta zer ikusi dut gau beltza baizik? Atzo oraindik zure abotsa entzun nezakean oroime-  
nean, erdipurdi ba zen ere, ta zure begirune biguingarria argi xamar neukan nere begietan betirako iltzatua.

Miren ez ikusteagatik tankera orretan go-  
goetan nenbillela, bere kaleruntz abiatu naiz.

Bidez aldatzea zer zen ez nekien gaurdaño; ta bere eskaratze-aurretik igaro aal izateko, zu-  
zenean joan bearrean zearka joan naizenean, maiteminduta nagoela ikusi dut garbiro.

Bortitzago egin zaizkit biotz artegaren tau-  
padak, eta... Ez dakit nola esango. Lumarik trebeena baldar eta kamots utsa izango litzake, egiazki, erdibitu nauen ikusketa azaltzerakoan.

Ikusketa labur-laburra izan da: soto baten aurretik pasatzeak diraukeana; luzeago ez. Oñez ninjoan ni, ta zastada eriotso gisakoa izan da. Eskaratzean zegoan Miren, zoragarria, leengo egunean baño ere ederragoa, paretaren kontra, grix jantzia ta zapi gorri-gorri bat lepoan zera-  
ramala.

Nork adiraz dezake nere odola arindu ta naserazi duen zauskada latza? Lauorri bezela gelditu naiz. Egia esan, ez dut ulertzen: zergatik etzen, bada, beste gizonekin ibilliko?

An zegoen nere Miren maite ta maitagarria. Nor ote da Zoriak orren bereziki ornitzen duen gazte ura?

Senargairik ote du Miren-ek. Edo-ta kendu-  
ko diodala zin dagit emen, artarako zeru-lurra oinperatu ta illerazi bear ba ditut ere.

Zenbat iraun du eriozko nere ikusteak? Miñutu baten eunena bai? Ala ta guziz ere, betikotasuna etzait aski izango nere ikuste erdiragarri au nere burutik kenerazteko; ezta alako amaika geiago ere.

Suak marraztu du latz ildoa, ta ez du biotzeko baizik suak ezabatuko.

Nork igarri zezakean au?

Dudaren suleze beltzera aurtiki nau zorigaiztoko nere ikuserak. Jan egingo dizkit orain erraiak kez karen ar ankerrak.

**6** Bederatzi egun ziran gaur Miren ikusten ez nuela. Denbora pasa-ala utsunea aunditu, ta bizitzeko gogoa eukitzeko tokirik gabe gelditzen ari nintzan, tristuraren arra zula ta zula zebillen-eta.

Idatzitako ekutitza, nerekin neraman beti edozein unetan Miren'i eman aal izateko; ta gaur, azkeneko, ikusteko zoriona izan dudanean, dardaratu egin zait barrunbe osoa pozez.

Berandu zen alabaña, ta ari laguntzeko beta besterik ez dut izan. Nolako gogoz begiratu doidan nik dakit, eta ez bestek. Eta ni Homero bera ba nintz, sentitzen nuenaren laurdena ere ez nioke besteri sentiaraziko. Ura poza nerea! Segundu zitzaizkidan miñutuak; eta mendeak ere, nik uste, berdintsu. Betikotasunak bete zezakean bakarrik une artako nere egarri legor idor amurratua.

Laisterregi iritxi gera bere eskaratzera. Baña bazen joateko garaia, ta nere patrikatik aterarik, eskutitza artu, ta eman egin diot.

Ez dit jaso nai izan.

Ez nuen nik jokaera au espero; eta emakumeakin geienetan gertatzen den bezela, ura geratu da garaille; ta ni, gauzak pentsatuta zituena, asaldaturta ta oreka galdua.

Ez du nere eskutitza artu nai izan. Gertara orretara biltzen dira bederatzi egunetako kezkek eta larrimiñak.

Urduri nago, guztiz urduri. Nora joan da leengo nere pakea?

**7** Bart gogor egin nion Miren'i; oso gogor. Biotzat itzegin zion, eta nere bitziza osoan atzo bezin urduri loegin dudarik ez dut uste; ta bost orduz bakarrik.

Ez omen da gizon "azkarraren" bertutea beti atzeraka ta damutan ibiltzea; ta ala nabil ni. Baña nork esan dezake egiazki ezertaz ere damurrik ez duela? Antuste utsa litzake gerozko damurrik gabe jokatu nai izatea; ta ala esanagatik ere, iñor ez dabil tankera orretan. Nork jokatu du iñoiz denetan zentzuz, eta adimentu utsaren arauz? Egizale izan bear da besterik ez gizonaren flakiak aitortzeko. Eta auetako bat nauzu ni.

Zer gerta diteke orain? Pentsatu izan ba nu, ordea...

Baña... pentsatu egin nuen, gañera; au gertatuko zela oartu nintzan, ziur dakit. Izketa

zakarregi iruditu zitzaidan atzokoa puntu batean; alabaña, ni nerau asi nintzan bereala aitzekiak eta sasi-konponketak asmatzen, eta zer-bildurtzerik etzegoela siñistu nuen azkenik. Banekusen nik au guzia, ta etorriko zitzaizkidan kezkek eta artegatasunak; baña ez nion nere adimentuari bear ainbat jaramonik egin, eta gero gerokoak.

Ez naiz nere buruaren jabe, ta Miren bera da leize izugarri onetara abiarazi nauena. Gutxiago irauten du, alegia, atsegiñak bere oritzapenak baño. Berebat, leenago ezabatuko da nigan Miren'ekiko xamurtasuna, bere iduria baño. Ta zer dagiket nik iduri itsa iraungitu ta gero?

Deus ere!

Atzo, berriz, maitekor agertu izan ba nintzaio, lasai egongo nintzakean orain, azaldu ta ikararik gabe.

Onela oster...

Baña zerbaitek esaten dit ixillik: "Lasaitasunean noiz izan zera gizon? Beti damutu zaitzu bezperako sasi-pakea. Lasai irauteko jaiot al zera?"

Ta zalantzaren arrak narabillelarik ere, lozorro lodia aienatzen dut.

8 Joan egin da Miren. Izetara. Udara igarotzera.

Bera zan nere bizia. Ots: ildakotzat dut nere burua.

**9** Nola gertatu den ez dakit; bañan antziñako nere paperak eta eskutitzak ikusten ari nintzala, Gipuzkoa'ko mapa bat arkitu dut. Mapa eskuetan arturik begiratzen asi naiz, eta "Izeta" izena ikusi dudanean, zirrara batek astindu dit barrunbea: "Izeta! Izeta! Izeta!... Zugan bizi da Miren. Egunero ikus dezakezu, zoriontsu orrek. Ez ditut zure auzo ta inguruak ezagutzen; baña zein politikak izan bear..."

Astiro, xamurki, maitekiro ere miatu ditut mapako zirrimarrak eta zeatz guziak. Mapa otz batek alako ugaritasuna gorde lezakeanik ezin pentsa nezakean gaur baño leenago, ta maitasuna sentittu ez duenak ezin konpreni dezake.

Edertasuna bide-zerion Izeta izenari. Ezti-tsu zitzaidan bere doñua, eta atsegin utsa aren letrak banaka irakurtzea...

**10** Atzokoa izan da zalantzarik gabe nere bizitzaren egunik gogoangarriena; ta etzait, alegia, erraz aaztuko. Ez erraz, eta ez nekez ere.

Egun berean iñoiz ez bezin zoriontsu, ta iñoiz ez bezin zorigaiztoko izango nintzala, nork esan zezakean?

Itzaspri'rako bidean exeri nintzan eguerdian alki batean. Ozkarbi zegoen, eta aurrean itsaso barea ikusten nuen.

Ordu biak aldean, Altzurain'go edertasuna polliki-polliki uxtiatzen ari nintzalarik, Miren

agertu da ezker aldetik. Sekulako zauskada eman dit biotzak.

Ura ustekabea! Itizaltzen ari zitzaidan bere iduria; eta nere barrunbean gordetzen zen baño ederragoa iruditu zitzaidan.

Jaiki, ta arengana ondoraturik, agurtu egin nuen.

Ez dakit zer esan nion. Polita zegoen, adoragarria obe; ta ori ta geiago esan nion bere sotorako bide laburrean.

Pozaren pozez etxera nintzan. Miren Altzurain'en!

Arratsaldean, Zerubide'ra joan nintzan. Nola ez? Baña alperrik joan ere.

Iru orduz egon naiz an, irakurtzen nuela-koa egiten (ate aldera adi bai-nengoen, eta ez bestera) ta itxaropena guztiz galdu dudanean parketik joan naiz, egunero bezela bere etxearen aurretik pasatzen.

Alperrik dena.

Etsita nengoen, bada, bart etxerakoan.

Etxean ere egon eziñik kalera aldegin nuen berriz, txotxolokeri aundia bai-zitzaidan egiazki Miren birrikusteko bearbada egun bat bakarria izan eta etxean xautzea. Irtenda laister Joanes eta Peru nere lagunak arkitu, ta delako "Cannes Club" orretaruntz abiatu gera oñez.

Baita damutu ere.

Sartzeaz giñala, Altzurain betesten gelditu naiz lipar batez: "Nun ote dago Miren? Arekin egoteagatik emango nukeana".

Sartu gera ta... Miren dantzan.

Argi epela zegoen pistan, izkiña batetik pantalla gorrixka batek zabaldua. Arén argitasunean Miren'en isla maitatua berezi dut. Leengo egunekoa bera iruditu zait mutilla... Zein zurrut mingotsa!

Lenbizi nere begiratzeaz ez da Miren konturatu. Gero bai. Baña berdin jarraitu da. Ura erio-bearra nerea!

Exeri egin gera lagunak eta ni. Zertsu ari nintzan ez nekien ordurako. Pikoan arrapatu naute auek milletan. Ni lotsatuta nengoen; baña edozein lotsa baño sakonago ta bortitzagoa zen nere larrimiña; nere biotza iñarrosi duen bortitzena.

Miren'gan josi ditut begiak, ausarki, etsita dagoenaren eran, txorabio betean zirkiñik egin gabe, beragandik zipitzik aldatzeke. Miren!

Ordukoa baño urrupa mingarriago ta saminago dagoenik ez dut uste.

Bereala joan dira "Cannes"tik. Biak batera!

Irten dira, ta miñutu batzuetan geratu naiz ni "Cannes"en, nere tristura nabarmen zedin nai ez nuen-eta.

Bañan andik atera, ta "Lambretta" batean irtetzeko zorian zeudela ikusi dut. Ez-ikusia egin diet., bañan alperrik. Nere agurraren billa zebillen Miren ez dakit zertarako. Ta nik, estu-estu, biotza guztiz erdiratuta, "agur" motz bat esan diot, zearka begiraturik, eta aal nuen eta zakarrenik. Erdi itzal artan bere begirunea josi zait nerean, tiro bat ninian bezela.

Orain bertan ba nekus bezin argiro gogorazten zait guzia; ta bizitza osoan auxe agituko zaidala uste dut.

Etxera joan eta afaldu ez. Ezin. Segituan oieratu nintzan, batere trikatu gabe; eta orobat egingo nuen eorztekotan, eortzi egin bear banu orduan. Malkorik ez ordea.

Gau osoa joan zait iraulka, asperenez asperen, ta lotan asi eziñean. Bere izena esan dut burukoaren oialean milloi bat aldiz. Auxe zen kontsolatzen ninduen gauza bakarra. "Miren... Miren!! Beste bat maite duzu... Zer dagiket nik orain zu gabe? Maite zaitut, Miren, maite zaitut. Nola ez naiz gaurdaño konturatu?"

Gaueko ordu biak arte-edo piska bat loegin nuen agian. Gero ezer ere ez, ziñegiten dut, ezta miñutu batez ere. Ta bai gau miñututsua atzokoa!

Orain irribera dago goiza; ta eguraldi bikaña dator.

Zertarako? Norentzako bikaña?

Asi besterik ez du egin egunak, eta lerre-giña nago.

Egun luzea datorkit. Ez bekit, arren, gaua bezin azkengabea izan.

**11** Ezin bizi naiteke onela; ezin egoera oni geiago eutsi.

Adiuntza txarra da oraingoa, noski; baña Miren'i idaztea erabaki dut. Ai, nere berotasuna paperera biur aal ba neza...



Bein eta berriz zuzendu dut idatzitakoa. Ain zuzen ere, ori izan da egun auetako nere kezka nagusia. Labur izango naiz irakur dezan. Onatx eskutitza :

“Miren :

Ikusketa diztiratsu, dollor eta ikaragarria izan da neretzat “Cannes” en gertatutakoa.

Ustekabean zu zoriontsu an ikusteak nere biotzari eman zion zastada, ain izan zan bortitza, asieran siñistu ere nai ez nuela nere begiak, zukan josita, ikusi zutena.

Tristura sakona betetzen asi zitzaidan piskanaka, ta geroz ta aundiagoa.

Gero, gaua, luzea izan zan, txit luzea, ta arrunt asaldutsua : aren erakorik bat ere ez nere biziera osoan.

Maite zaitut, Miren. Ez dut ulertzen, baña milla azkonek egingo etzuteken eran urratu didazu biotza.

Obe nukean sekulan ezagutu ez ba zinduzt!”

Biotzeraño iritxiko ba litzαιο au... Nitzaz urrikalduko ba litz beñipein.

Baña “bestea” maite ba du, aztarrenik utzi gabe pasako da beragandik nere ori, ta daridan berotasunak ukitu ere ez du egingo.

Urrikarria ni, alegia, au gertatzera.

Ez dezadan geiago pentsa; eskutitza botatzera noa, ta gero gerokoak. “Kontzientziak kol-dar biurtzen gaitu gu guziok...” Utzi egiogun aztertzeari.

## 12

Nere etxeko leioan nago. Aurreko astigarrari so, ez dakusat alaz ere astigarrik. Arpegia eskuen gañean ezarria, matrailletaraño sartzen zaizkit aize-bolak beaitzen arteko zirrikituetatik, eta berotutako musullarrua kresal usaiez ezatzen.

Au eguraldia! Ni ez besteak oro alai daude. Arratsalde argia gaurko au, ta joan-etorri bizia kalean. Eten gabe pasatzen dira nere leioaren azpitik automobilak eta motoak, "scooterrak" batez ere, milla tokitaruntz abiatu-rik egunaren argitasunaz landan gozat- zera.

Udako arratsade opar- oia...

Sakonki artu dut arnasa., eta bai gogoz: "Three Coins" jotzen asi dira irratit- zez, eta automobil- etako txaranbillakin naastuta dator- kit eresia. Ez neri esan igarokorra denik. Bali- teke. Baña, nere onetan, edozein sinfonik aña ukitzen nau ark.

An, urruti xamar, zugaitz artetik dakusat Itzaspiko ondartz- a zatitxo bat. Urrunago, lotan dautzaz uraren gañean margo guzietako txalu- pak. Bitsik ez bazterretan.

Arratsaldearen betea!

Nere barrunbea berriz utsa dago. Edo zea- tzago adirazteko, tristuraz betea. Eta zugana di- joakit, Miren, bein eta berriz, nere oroimena.

Zergatik zagozkit lurrez eta biotzez zauden bezin urruti?

Egunak joan, eta nere eskutitza zer tanke- ratan artu duzun ezin jakin. Jaso ere duzunik ez dakit.

Zure azken begiradaz beste oroitzapenik ez dut, bestearekin "Cannes"koa ezpada. Ezin bestea maite dezakezu. Ezin, Jauna!

**13** Zenbat ete zenbat dènbora ez den igaro emen azkenekoz idatzi nuen egun zorrigaiztoko aietatik... Zenbat egun uts... zenbat barne-atsekabe... Neuk ez bestek jakin ori.

Dagonillaren beroak eta itsaso bareak pasa dira, ta zein polliki alegia.

Orain Agorrean gaude. Egun argitsuak auek, motzak, eguzki ta zeru aratzekoak; amatezko arratsekoak... Leenago dator gaua, ta freskua oi dabil illunabarretan.

Agorrailla: illetan zoragarriena.

Udatarrak joaten asi dira, freskua dela bide eta bere berera itzultzen ari da Alzurain. Eta ni pozik.

Uda pasa delako pozik. Siñis al diteke onelakorik? Uda bukatzen ari delako nago pozik.

Baiñan, aurrera segi baiño lenago, zer egin ote dut nik ainbeste denboratan? Nik neuk ez dakit. Lagunakin ibilli, bakarrik ibilli (lagunakin baiño askoz usuago) ta lanak asmatu. Asmatu bai. Jo-ta-kea, eman natzaio, irakurtzeari, ta ez dut argatik damurik; zeren, oni eskerrak, Miren'ez aski aaztu naizen bi illabetetako tarte luze onetan.

Gaur arratsaldean, beste askotan bezela, besapean liburu bat artu ta kalera joan. Itzazpi atzeko alki batean egon naiz exerita, irakurri

ta irakurri, ta uriruntz abiaturik bidean nentorelarik, Miren zetorren nere aurretik! Bakarrrik, oso liraiña, pitin bat aaztutako nere ametsetan bezin polita.

Zausk egin dit biotzak, alegia; baiñan uste ez nezakean eran, ots, apalago, motelago, bestetango sua itzali bai litzaidan:

—Ongi etorria, Miren! Noizdanik etzinduztan zoritxarrez ikusten!

Ori esan eta betbetan konturatu naiz; eskutitza... aspaldiko nere eskutitza! Ura lotsatu bearra. Oreka galtzeko zorian egondu naiz aalkez eta damu sentittu dut bidaltzeagatik;

Nola edo ala, iñoiz baiño nerezkoago jokatu dut gaur, eta arrituta nago, ez bai-nuen iñola onelakorik itxaroten. Berriz abiatu naiz Itzazpi'runtz ari laguntzeko, ta izketa erraza arkitu ere bai. Onetaz eta artaz itzegin dugu: udaldiari buruz, Izeta bera egondakoaz, Miren'ez beraz, eta neure buruaz; ots: guziaz. Eta ondo orekan, estura zentzugaberik gabe.

Itzaspi'n etzegoen iñor, betiko umeak baizik, ondar-metak eraikiketan.

Bero egin digu gaur, odei txuriska batzuk ari ziran zero urdiña piskanaka estaltzen. Eta, bada-ezpada ere, Altzurainuntz biurtzera erabaki dugu.

Erabakia artu bezin laister, ortots baten orro urrutikoak urratu du aizetegia, ta arindu egin dugu gure ibillera.

Bi bat kilometro dira Itzaspi'tik Altzurain erdiraño, ta indriskak arrapatu gaitu bidean.

Tellatu baten egan estalita, an geratu gera biok eskaratze baten ondoan, noiz atertuko zai.

Ango geraldiaz ez naiz erraz aaztuko. Zergatik? Ezergatik ere ez, eta guziagatik, batera. Motzegi izan zait erauntsia, luze xamarra izan arren; eta urri oñaztarriak, askotxo izanda ere. Emozioa erantsi diote auek egonari.

Atertu du azkeneko, eta zoriontsu nintzan ni lurrari zerion lurriña arnastuz. Milla atson idaroki dizkio ezatasunak guziari, ta margo arrigarriak argitu etxeak eta kaleak. Ori ta more jarri da zerua, ta arratseko soñeko gellgarriz jantzi uria.

Bereala piztu dira argiak, eta zoratzekoa zan ikuskaria, gandua argien atzetik lasai asko altxatzen zala.

Atertutakoan, bada, Miren'en etxeruntz irten gera; baiña zuzen joan bearrean bira batzuek eman ditugu ondotik. Eta eskaratzera iritxita ere, presarik ez du izan igotzeko. Nola zitekean au?

“Besteaz” galdetzako zori-zorian ibilli naiz portalean geundela; baiñan ez dut egin. Ta pozutzen naiz asko ala jokatzear. Zertarako ta galdegitea? Naiago dut kutsu goxo ta badaezpadako au, egia latza baño:

Amets egin dudala deritzat orain. Nerekin benetan egon al da?

Denak zaizkit galderak. Ai, nire errukarria! Zalantzetan asia naiz berriro.

Ez dut ulertzen: iñoiz baño otzago naiz. Orren denbora luzea ikusi gabe pasa ta gero, jan

egin bear nuela pentsa liteke, ta deus ez. Zer gertatu da nire biotzean?

Miren! Jaio zera nigan berriz. Izango ez al da leen bezin ordu txarrean! Eta egia esan, azaltzen jakin ez arren, zerbait aldatu dela derizkiot.

Zer gertatzen da zugar, Miren?

**14**

Ez naiz ondarretara joan. Eguraldi ozkirri ta kaxkarra zegoela-ta, Itzaspi'ra bearrean, egiteko batzuek egitera joan naiz.

Alako batean, eta beste gauzetan burua nuela, Miren topatu dut. Berak bukatu bear zituen mandatu batzuek egitera lagundu diot, eta gero, eginkizunak egiñik, arekin gelditu naiz.

Gaur ere etzuen etxera itzultzeko gogorik, eta bazkal-orduraño beta naiko genuela-ta, Txifartza'ko aldapan gora igo gera biok, nora ginjoazen ez genekiela.

Ura arritzekoa! Txifartza'tik aurrera, Muñoa'raño iritxi gera. Ango arrizko alki batean exeri ta izketan aritu gera patxadan. Zeruan ni.

Muñoa'tik onuntz gentozela, arratsaldeko kontua agiri da, ta ni oartu orduko, eramandit Miren'ek ni ausartzeko, ta eskeñi zaidan bidea ustiatu naiean, galdetu diot:

—Bakarrik ba gaude biok, zergatik ez goaz arratsaldean alkarrekin, aipatu duzun "Marty" filma ikustera? Neuk ere ez dut ikusi, ta zuk ainbat gogo ditut joateko, oso ona omen da-ta.

Zenbat-eta geiago nere konbita onetzaz pen-  
tsatu, ta ainbat-eta gutxiago ulertu bere ta nire  
bion jokaera. Ausartzeagatik nerea; ez ukatzea-  
gatik Miren'ena. Ortaz, gaurko ezer ez dut kon-  
prenitzen, eta burura bein eta herriz datorkidan  
azalpidea ez dut emen aipatu ere nai. Ez!!!  
Ezin diteke.

Ura zoriona. Baiñan beranduegi zitzaidan  
ordua. Lau ordu luze oraindik: ura epe az-  
kengabea...

Bazkaltzen asi ta guztiz barreiatuta nen-  
goen, eta guztiz jangar. Ez dut jan nai izan.  
Zertarako jan? Etzan jatekoa bear nuena, zaar-  
tzea baizik. Ain zuzen, lau orduz zaartu bear  
erabat.

Zer egin bear nuen denbora aurrera zedin?

Kalera joan naiz, urduri nintzalako lasai  
ibiltzen, eta iñoiz etzait aaztuko Sorrarain len-  
bizi, ta Kalparsoro gero, ikusi ditudala.

Zugaztieta'ra abiatu naiz falta zan denbora  
nola igaroko. Itsaso txikia zegoen, eta kresa-  
laren usai sarkorra erruz. Biziro artu dut atsa,  
ta ugiñak ondarrean lertzen ikusten egondu  
naiz asti batean. Gero, seirak amar gutxi zira-  
la, Miren'en etxera jo dut.

Oso ederra etorri zait bera.

Zinera joan, eta bai pozik Miren'ekin ni...  
Egia esan, ez diot, agian, dagokion atarramen-  
dua atera "Marty" delakoari, ta esan zidaten  
baño gauza motxagoa izan zait. Gañera zer  
ajola neri filma, eskubitara begiratu ta ainbes-  
tetan amets egindako arpegia illunbetan ikus ba  
nezakean? Erdizka nekusen, islatan, ta Jain-

koak daki nolako erakarmena zuten bere begiak nigandik ain urbil ikusita. Oso nere aldera jarri da: lotsa-giroa ematen dit aitortzeak, baiña nere besaburuaren gañean zuen burua ozta-ozta.

Batzuetan arrapatu nau noski xeletan illuntasun artan ari so; baiñan ez-ikusia egin du, ta begiratzten utzi nau. Zer ote da au guzia?

Gero, zinetik irtenik, itsasoaren aldera joan gera polliki-polliki, bolada freskuez gozatzera, ta etxera azkenik.

Nola asma nezakean, bada, gero gertaturikoa?

“Biar arte” esan diot agurtzerakoan, eta zastada latza eman dit bere erantzunak:

—Ez, Joxeba. Damu dut, bainan ezin.

—Kanpora noa sei egunetarako —ekin dio Miren'ek— Ordurarte, bada.

Zauritu egin dit biotza bere berriak.

Baiñan, el nakion alde onari.

Zoriontsu izan naiz gaur. Miren'ekin!!!! Siñis al dezaket...?

Alperrik da, guziz ere: bere azken tankadagatik-edo ez nago poza-jario. Baiñan ez dezadan biraurik bota...

Badijoa berriz: ona korapilloa. Noiz izango dut neurekin eta neuretzat, egun guzietarako maitagarri, ordu guzietako zorion-iturritzat?

Ta zer naiz ni munduan zu gabe? Umezurtza!



**15** Nere aurre-aurrean, belar izpi segailla dakusat, urduri antza, aizetxoak eragiñik zutik geldi eziñean. Nori egiten dio itzal-agurtza, orrenbestetan makurtuz?

“Bolueta”ko belardi batean etzanda nago. Txirrindulan etorri naiz oraintsu: aisa egiten da orrela lau kilometrotako bidea.

Zoragarri da bazter au: paketsu ta irribera. Baserri zaarrak mendietan, bide txigorrak, oritutako artalorrak, muño gorriskak, dena zait atsegin. Itzai sendor batek agurtu nau arestian, eta “Aida idi”ka galdu da bere abotsa, aldapan gora gurdi batekin zijoalarik.

“Ezkai” errekatxoa daukat aurrean, belardietan barna dijoana; ta tente dirau oraindik bere gañeko arrizko zubitxo zaarrak.

Sarri etorri naiz onera nere tristuraz kontsolatzera, ta au bezelako kontsolabiderik ez dago, ene gardiz.

Noiz artuko ditu Miren'ek nere goraintziak? Maite bere laguna ikusi dut leen, eta Izeta'ra zijoala esan dit. Goraintziak niketz emateko eskatu diot bereala ta zorion-bolada batek jautu nau argitasunez. Miren'ekin geroxeago itzegingo zuen batekin nengoen! Guztiz unkitu nau gertaera xume onek.

Ixillik or, aizean, batera ta bestera dabil kulunka nere belar izpi mea. Xamur, etenerraz, lerden...

Neure biotza dirudi.

**16** Kepa'rekin egon naiz.  
Baxoerdi mordo ugaria edan dugu alkarrekin.

—Aaztu egin bear, Kepa- esan diot nik zirikana naiean.

—Zer-aaztu ba al daukak ik, ala?

—Bai, jauna... ta asko gañera, gauza bakarra delarik ere.

Damu izan dut gero.

—Ezagutzen duk: Miren.

“Zer ikusi duk argan?” Edo, geroxeago galdetu didana: “zer da gustatzen zaikana?” Esango bai luan: “zein zati”.

Eta “bere begiak”, esaterako, erantzun dezaketen oriek, ez dakite tutik maitasunaz. Asko dirala alakoak? Baliteke. Baiñan ezertxo ere ez dakite onetzaz. Zeren, nola jakin diteke zergatik maite den? Dena da beregan argi ta atsegin, ala maitasunik ez.

“Zer dakusak, Joxeba?” Belarrian dantzut oraindik lelo zentzugabea. Ez dago Miren'gan ezer “ikustekorik”. Ikusi, ikusi... Sentittu egiten da beingoz, erabat, gorputzean eta animan, izate osoaz, bereziki laket den “lekurik” gabe. Senak dute sena-tokia. Animari dagokio, ordea, sentimendua, ta ez dezake berez tokitzerik.

Zertarako esan bear nizekion nik zio auek guziak? Bi mundutan geunden.

Bestelako adikizuna dute arentzat eta nireztat itzak. Ez, alegia, sarri gertatu oi den moduan, arrazoiari buruz, esanaiak desberdin zaizkigulako; biziari buruzko goraberakatik baizik.

“Maitetasun” itzak beste kontzetu bat adi-

razten dio bearbada ari; baiñan, onetzaz gañera, ta emen dago koxka, beste baliogo bat du itzak arentzat.

Nola ulertuko litzake bestela istoria? Gertera berbera jazo dira batentzako ta bestearentzako. Nola konpreni diteke, bada, batak batera jotzea, eta besteak guztiz bestera? Batek zeatz bati garrantzirik ematen ez diolako, ta guzizkoa besteak. Zergatik? Guk geuk ez dakigu au.

Orobat gertatzen da maitasunean. Zer ikusten du Urliak neska orrengan, Sandiak ez dakusana? Ezer ez, noski. Begidunak dira bata ta bestea. Batek osterera, ikusten duen orri kanorerik erasten ez ba dio, besteak bai.

Baliogoa: Erraz aipatzen dan berba.

Eta ez dugu jardun. Zertarako? Eztabaidetik ez da sekulan argirik ateratzen. Bi aldeak darabiltzkite, arrazoia, pentsamena, ta ari ditxezkon zioak eta probakariak. Nola, bada, egia bat izanik, egia orretara ez irixtea? Matematiketan ez ba da, arrazoizko eztabaidarik ez dagoelako. Baliogo-eztabaidak dira bakarrik gizonetan. Besterik diotsanak ez daki ezer gizonaz. Norabait goaz guziak, beti zerbait probatzera; ots: geiago darabilkigu beretan biotza burua baiño.

Gañera arrazoiak jokatuagatik ere, gutxi proba diteke mundu onetan. Zaillegiak dira gauzak. Geiago ere esan genezake: gauza bat probatu-ala aurkakoa egizta ditekeala ere. Eta au izakien izanagatik. Ortik dator, ain zuzen, gizadiaren nasketa gorria, beñere urratuko ez den nasketa... "Ikusiz ez dakusagulako".

Nai duenari eltzen dio bakoitzak.

Zer esan bear nion nik bada Kepa'ri? Ezer ez. Maitagarri dela Miren probatu bear al nion agian? Orrelakorik proba al nezake? Parregitekoko gogoak ematen didate "egiak probatzen" dituztenak. Gizajo ok!

Miren maite dut, eta kitto. Ez dakusat beste ziorik: nai dudalako maite dut.

(Nai dudalako, otean? Ezta onengatik ere).  
Ez dakit ezer.

Ta neronek ez ba dakit, zer esan bear nion nik Kepa'ri, ni baies nintzan?

Ezer ez, noski.

Bi mundutan geunden: alperrik izango zitezakean nere alegiña:

Onengatik, mundua mundu dedin artean, parregarri izango dira maitale-bikoteak. Duda-rik ez.

Eta sendabiderik ere ez.

**17** Burutapen egokia izan dut gaur betiko kontuari buruz: "Bere" etxera bezuza bat bidaltzekoa. Bereala oldartu zaizkit zalantzak: garai ohea arkitu bear zala, agian onetara artuko etzuela... Eten egin dut azterketa, ta egitea erabaki.

Amorru ematen zidan guziz ere ene asmoaren alde batek: bere arrontasuna. Zergatik jokatu bear nuen nik orain arteraño maitale ta sasi-maitale guziak bezelaxe? Ziur dakit nik an eta emen ikusten diran bikote geienak maitasuna zer den azaletik baiño ez dakitela; es-

kierki dakit nik maite-dardara zer den ezagutzen ez dutena. Ikusi besterik ez da bear esaten du-dan onetzaz konturatzeko: gorputzaren lera utsa da aiengan nagusi.

Nigan, ordea, diferente izanagatik ere, ber-dintsu jokatu bear al nuen nik beti, ezin bestez? Betekizun tristea nerea baiezkoan. Nola adieraz nizaioke nik ezetz? Bizizko kezka dela au nere-tzat, guziz bestelakoa dela barne-muiña iña-rrosten didan ilbear au...

Eskuikusi bat egiñez, ordea, berrizkorik ez nere jokaeran. Betikoa egingo nuen...

Eta "maite zaitut" esaten ba diot ere, zer esaten dut berririk? Zerk dager esanaren biziz-kotasuna? Zer dago artan berezirik? Kantu zantar guzietan, arrats guzietan, erri guzi gu-zietan, oarkabezko gezurra geienetan, belaunik belaun esan den berbera birresaten dut nik. Ni-retzat neure bizitza bera denak, gauzarik arron-tenaren itxura artu bear. Nazka!

Benetakoa da, ziñez, Miren'ekiko nere mai-tasuna. Baiña kanpotik ikusita...

Atzera jotzeko zorian egondu naiz une ba-tean.

Dendaz denda asi naiz billatzen. Gutxi zi-tzaizkidan apainkallu ta eskeingarri guziak; otzak batez ere: gaizki izango ziran aiek nere biotzaren mezulari zintzo.

Erregalu bat autatzea orren zailla zanik ez nuen iñoiz pentsatu. Orduak igaro zaizkit ka-lez kale, ta ezpai gorrian.

Aukeratu egin dut azkenik, kutxatilla ba-tean sartu, ta azalean Miren'en zuzenbidea jarri

ondoren, postaz bidali diot. Barnean au bakarrik tarjetan: "Biotzez-Joxeba".

Biar edo etzi jasoko du.

Trankillago nago orain, ta bezuza aurki jasoko duelako pozez. Gustatuko al zaio!

Berakin egon naizela dirudi.

**18**

Biar dator Miren: ezin au burutik baztertu. Badator biar; udatea bukatuta, ez bestetan gisan.

Zorionaren atarian nago bada; "eztaiaren bezperan". Zer pozgarriagorik? Irrikatsu itxaroten nuen eguna iritxi da. Ta bear zan bezelakoxea: argitsu, bizitasuna dariola.

An goian, odei me bat. Ibilli ba al dabil? Ez dirudi; baiña begira nagokio asti luzetxo batean, eta badabil. Polliki-polliki, munduaren kezkabideak oro batere kezkatuko ez bai lutean. "Odei miragarria: ikus al diteke ortik nere Miren'en begirunea?"

Biar dator.

Zerubide'ko iturritik pasa naiz. Noiz ikusiko dut an "Pintto" lagun, lenengo egun arrigarri artan ikusi nuen bezela? "Pintto" k berak ere, Izeta'ko landetxean dagoela udaldirako ta, nik baiño suerte ohea du.

Egun artako alki berean exeri, ta iturriari begira gelditu naiz. Alegiñak egiten nituen oroimenaz dena birrikusteko. Nolatan gertatu zan ura? Nere bizitza zearo aldatuko zuena zuputz ezagutu nuen, txiripaz topatu nere biziari guna emango ziona. Nola? Ta, ezagutu ez ba

nu? Ni ara bearrean, beste edozein tokitara joan izan ba nintz? Edo-ta, Miren'ek beste egi-tekoren bat egin bearragatik, edonora joan izan ba litz?

Biotzikara. Ustekabez ezagutu dugu alkar. Nolako tristura eman didan gogoeta onek.

Gaur ez nintzan, ordea, tristatzeko; ta utzi egin diet alako gogorazio guziei. Eta Miren'en itzulera erakarri dut burura.

Berdintsu zirauen denak: eten gabe ari zen txirria, eten gabe billakatzen ziran zugaitzen iduriak, eten gabe igaritzen osto eroriak uraren gañean. Soñutzat txorrotxioak, txirriaren xirri-xirri jarraitua, ta urrutiko boziñen oiartzun motelak. Besterik ez, pake ta gelditasuna baizik.

Denak iragartzen dit etorrera pozgarri bat: adaburuak kulunkatzean ere, Miren ikusteko saiatzen dirala ematen du, urduri bai leudean.

Irribera dago dena. Ez al duzu adar igikor orretan nabaitzen?

**19** Xirimiri izan dugu goizean: eten gabe jantzi du Altzurain beltzuraz; guzia, jakiña, ni ezik. Atertu egin du gero, eguerdia aurretik, eta odeitsu ta bare gelditu da dena. Denboraren igarotzeak berak geratuta zirudien, eta luzeago egin dit onek goiza.

Nekez aaztuko zait gaurko eguna: Agorri-llaren 16 garrena. Urrezko letraz idatziko ba nu ere, exkaxa ta motxa izango litzake apaindura.

Gero... Goazen astiro.

Ikusi ta, "Txoroa zaude": itz auekin egin dit arrera. Asko gustatu bide-zaio eraztuna, ta beartzean zeraman gaur ni agurtzean. Siñu ona iruditu zait au, ta ez ninjoan oker ala pentsatzean.

Zerubide'ra joan gera biok. Bustita zegoen guzia, blai-blai eginda. Adarrak tantoka, loreak malkotan gisan, lilitegiak gañezka. Kristaurik ez barrenean. Pakea zerion guziari.

"Nere" iturrira alderatu gera, ta beti bezelatsu zegoen dena, baiña bestelako kutsuaz margotua. Iñoiz ez dut Zerubide gaur bezin olerkitsu arkitu.

Iturriaren aurrean geratu gera Miren eta biok, eta lenengo gure ikusketa gogorazi diot. Bearrik ez: babide zan gogoratzen.

Orretan giñan, bada, urmaeltxoari so, bere esku otza nereaz artu diodanean. Eraztuna begiratu dut xamurki ta irribarrez. Ez du ezer esan. Ixiltasuna sortu da bion artean, baiñan etzitzaidan gogaikarri; ezta ari ere, nere ustez. Nolako atsegiña bere eskua nik berotzekoa! Goxoagorik ez.

Betbetan bere begiak miresten zituzten nereak, eta neureak agian bereak. Diztira utsa biurtu da dena arrezkero: esmeralda belarra, zillarra urmaelaren ura, su gori zeru goibela. Zer zan ura?

Alakoxea derizkiot lorian sarrerari. Atseginboladak bete naute bein eta berriz, eta oreka galdu dut zearo: gorputzekoa ta arimakoa. Zaiñetatik igesi naiean edo zebillen asaldatutako odola. Zearka izan da musua, zerutiarra, ta laburra izan arren betikotasuna kutsuduna.



Orain, nere gelako bakartasun geldi onetan, alperrik ipintzen dut aoa alasako ispilluan. Erre egin naiz sekulako: gutxi da kristalaren otza nere miña sendatzeko. Kiskaldu egin zait aragia, ta bizitza osoan zear izango dut or, aztarna ezabakaitz, bere ezpain lodixkote erdiezeak utzitako ildo.

Baiña, zertarako jarraituko natzaio azalpen otz oni? Musua bizi izan ez duenak. ez dakike ezer; eta bizi izan duenak ere ez ditu aren erako diran itzak arkituko, bizizko gauza delako.

Gero, maite nauela esan dit, eta zoratzear ni. Nortzuk diote ezta goxo denik? Ixil bitez, arren.

Zoratzeko arratsaldea, bai, zoratzekoa. Nere egunetarik zoriontsuena. Maite nau. Oraindik ez naiz onetzaz konturatzen: maite nau!!

Ta ez dut biar arte ikusiko. Au betikotasuna!

Ezin idatzi, ezin loak artu, ezin ezer. Kalera noa. Berriz asi da euria, ta banoa, aterkia eskuan, nere betetasun au bakardadean goxatzer.

Utz nazatela bakarrik: aski ta sobera naiz gaur ni neure buruarekin ez aspertzeko.

Bere ezpainañak nereetan... eta belarrietan bere "maite zaitut" ilgarria...

**20** Gañezka nengoen gaur goizean zoriontasunez, azken egun auetan guzietan bezelaxe.

"Zerubide"ra naiz, euriaz bustitzera ain zuzen. Ez egin arrituarena: egia utsa duzu ori. Naita busti naiz blai-blai.

Zorion-jarioak gazteturik edo, parkeruntz abiatu naiz, oituraren aurka guardasolik gabe, ta tanta ttikin freskuak arpegian beera lerratzen nabaitu ditut. Noizpeinka, goialde goibelari so nengoela, adaburuetako tistiltzar batek ernatzen zituen lokarrazitako begiak.

Euri geldia ren betiko mezua erdientzun du nere biotz unkituak. Zoriontsu nintzan sentinezake-ta.

Larruaren beroa ta euriaren ezatasuna alkarrekin naasiak nere begitartean gogoz das-tatu ezkeru, banentorren "Zerubide"tik etxe aldera; naiko bustita, egia esan, baiña pozik.

Eta, beingoz, estutu egin zait biotza. Bar-ne'ko Miren'en irudiaren orde z, amona gajo bat begiztatu dut aurrean. Beltz zatarra zuen jantzia burutik oiñetaraño, narratxa burua, ta guztiz karrakatuta gona. Dirurik batere gabez, ta dena galdutzat emanik, noski, etzuan ondi-kozkoak ezertarako gogorik, ezta kalean gar-bi agertzeko ere. Zerk eutsi lezake emakume kupidagarri ura here artan? Zer, eriotzaren bil-durra ezpada? Bizi ba zan, ez iltzeko bizi zan soillik. "Eriotza, bazter ez-ezagun ori: bere mu-gak berriz igaro ditzazkean bidaririk ez". Erio-tza: munduan diranen eusle ta erausle...

Ekaitzean ontziska galdua, izkiña batean exeri edo kuzkurtuta, burua makur, loteria-tirak eskuan, atso itsu gajoa; ozta-ozta entzuten zi-tzaion taigabeko bere deia: "los últimos que me quedan para hoy". Luzaroan ikusi dut jen-dea: joan etorri biziaren zurrunbillo zarata-tsuak irentsita, iñork etzuen begirune bat arga-

natzeko betarik. Batere ez da argatik gelditu. Atsoaren alabear gogor galdua!

Argana joan naiz. Bere arropak euriaren ezeak kirastuta, nardagarri zegoen guzia argan. Gajoa!

Zizkua atera ta une artan neraman diru guzi-guzia eman diot, txanponik gabe geratu arte. Eta leengo alaitasuna barne-pake biurtu zait. Alere, ez kezkarik gabe. Lotsa eman didate bere esker beroak. Bereztasuna eman nai nion nik nere eskeintzari; bañan ezin: biotz-muñe-taraño zetorkidan itsuaren abotsa. Bizia bera emango niokean une artan.

Munduaren ezbidea! Eta Zoriaren gogorkeria ankerra! Bati guzia, besteari deus ez. Ni poza jario nagoela, malkorik ere atera eziñean ura! Bai iñauteri iskiriozkoa munduarena!

Au dantzan, ura illetan. Emen jaio, an il; toki onetan ezkontza, artan eorzte. Onek bere dirutza nola xautuko jakin ez; eta beste orrek, bitartean, bizitzeko aña lortzerik ez...

**21** Lur ezea usnatzen ari naiz Bolueta'ko belardi batean.

Kezkatu egiten naute Miren'en musuak; eta onengatixe nauka lilluratuta. Ez naute betetzen, eragiten baizik. Zeren, nork esan zuen paketsu izan bear dela zoriona?

Arekin nagoenean, arrenkuratsu ta yoranez beterik oi nago: geiago nai bide-dut, eskeintzen zaidana gutxi bai-litzan, eta geiago-bear orretan mugitzen naiz alai eta triste. Bere gorputza

bear al dut? Ez, ez! Eta argandik urruntzean, ura bai gogorra! Miren'ekin nagoenean bete ta kezkatu, Miren'gandik urrun uts eta il.

Zer egiten du orain? Etxean egongo zela esan zidan. Bazkaria antolatzen? Edo-ta, atsartzen ari da, edo leiotik landa ikusten... Txoarre bildurkorren eran mugitzen ditu bere niniak; eta betetsi ezin nik!

Etzanda nago emen. Arpegia ukitzen didate belar-izpiak. Tamala: ezin sar ditzaket begiak barrenago. Au mundu ezezaguna!

Milla motatako landare biguin eta segallak, alkarrekiko bizi-leian dakusazkit emen, amai-ka kale ta zoko eratzen. "Enbor eskergea" orien artean nekez igarotzen da orain txingurri langille bat. Geroxeago, aurrera eziñean, karra-kaldo aztuna ari da "baso ito" orretan barrena. Une onetan armearma ba da nere laguna, segituan datozkit itxuraz ere ezagutzen ez ditudan milla xomorro arrigarri. Ta agertoki ezustekora bat azaldu ala, itzali egiten da bestea, berriz ez etortzeko. Belar artetik datoz, belar artera doaz; eta ba al dakite jakin beren nora? Munduaren irudi bikaiña dut begien aurrean; eta, ain zuzen, ez al datza beraganako nere lillura iruditasun zeatz orretan?

Kilikili bizia egiten dit beatzean mantangorri batek, eta gogoetatik erakarri nau sentitzearen mundura. Eta onetatik, aurtzarokora: "Amona mantan gorri, gorri gorri gorri..." Ume guzien xomorro maitatua. Gerard Bahr'ek dion bezela euskaldunen pizti sagaratua izan zalako? Badijoa beatzean gora. Beti goruntz joan bear;

eta igotzerik ez ba du beatz-punttara iristea-  
gatik, egan egin bear.

Miragarria: guzia bizi. Eta ni neu ere, bi-  
zitasun orri begira bizirik nago. Nork ezagu-  
tzen ditu bizitza ezkutu auek guziak...! Nork  
nerea...? Miren.

Lur ezean usai egiten dudanean, animalia  
izateaz eta sentitzeaz poztutzen naiz. Belarra  
bezelakoa naiz-eta; ots: bizidun.

**22** Ezin siñistu: Bestetango mutil arekin  
ikusitako Miren. Lauorri utzi nau ikus-  
penak. Nolatan izan liteke ura? Agurtu  
egin diet labur, eta nere bideari ekin diot, erio-  
tza segaduna aurrean ba nu bezin erotuta.

Egia esan, eta bada-ezpada ere, ez diot Mi-  
ren'i sekulan aipatu ere nere arerio onen iza-  
tea, bildurrik batere ez nuelakoa egiteko. Den-  
boraz, aaztu ere zitzaidan, eta ez dakit, ortaz,  
nor den, ezta zer artueman izan dituzten ere.

Ez dut ezer ulertzen. Maite nauela aitortu  
dit Miren'ek askotan. Argibideak eskatuko bá  
lizkida batek, ez nuke nik ematen jakingo,  
bearbada; baña gaurko aldakuntza zertsu den  
jakin ez arren, ziur dakit nik benetan esaten  
zituela Miren'ek bolada onetan gauza aiek.

Nola azaldu, bada, ezuste au? "Aldakorta-  
suna: emakume deritzazu". Arrazoia al du be-  
rriz Shakespeare'k?

Agian, ari ere egiten dizkio neri egiten diz-  
kidan laztanak... Ez!!! Suntzi nazala suak, il  
nadilla sasoiean, ori jasan baño leenago. Utz

dizaiodan oni gaurkoz: astakeriak besterik ez dut idatziko segitzekotan. Eta ez: neure burua berotuko nuke geroz eta geiago.

Orretan nengoela, urrutizkiñez deitu dit: alik eta gogorren jokatu dut nik; arek, ordea, albait xamurren. Ez diot ezer entzun nai izan, arek apalki ta eten gabe eskatu arren, eta biar-ko zitatu gera.

(“Three coins” irratitzean. Ez! Itzali egin bear-ko).

Den dena azaldu bear-ko dit biar; eta ez bi-guintzeko eskatzen diot Jaunari. Dena jakin bear dut gazte orretzaz, itzetik ortzera; ta biar esan bear diot ere Miren'i, bein bakarrik ikusten ba dut berriz orrekin, guzia autsita dagoe-la bertatik eta betirako.

Moztu egingo da ori, alegia.

Bai.

**23** “Zerubide”n ikusi dugu alkar. Ni iri-txi orduko bazegoen an Miren. Eta atzo gauean ala erabakita, bere ondora joan, eta itzik esan gabe, zaplateko bat eman diot.

Negararri eman zaio gajoa, eta orduan kon-turatu naiz nere zakarrerri latzaz. Berandu zan.

Bere barne-muñean minduta Miren, etzuen ezer azaltzeko kemenik, ezta bere burua garbi-tzen saiatzeko ere. Ta, ura ikusita, nora joan da nere gogorra? Lekutan zeuden ordurako atzoko nere asmo “tinkoak”.

Malkoak bigunduta, zerbait esateko eskatu diot otzan. Erantzunik ez. Bere eskuak artu

ditut ondoren: ez du begirunea altxa ere. Lurrari so, etzuen txintik ateratzen. Besarkatu egin dut: alperrik. Arrigarri au ere: ez dit ezer bururatu bere gorpuztasunak. Ezer ez.

Neuri sortu zait eztarrian korapillo bat, eta barkatzeko arrendu diot. Azkenez, guztiz minbera, au esan dit: “Ez nauzu ezagutzen. Au pena! Ezin asma dezakezu, zure dollorkeri onetzaz eman didazun miña”.

Barkapena eskatu diot bein eta berriz. Ba al nekien, ordea, atzoko gertatua? Ez.

Eman diteken musurik xamurrena eman diot masaillean, batere aragikeririk gabe, nere amari emango nioken bezelakoxea.

Bereala, kondatzen asi da Miren:

“Galen aundia artuko duzu, Joxeba, ta egia ez dela usteko duzu bearbada. Dena dela, esatera ni joana egia osoa dela agintzen dizut.

Andoni Iturzaeta da atzoko gaztearen izena. Aspaldidanik gera lagun; eta zuk ni ezagutu aurretik, bagenuen arek ate biok alkar ezagutzen. Adiskide miñak dituzu bere familia ta nere; ta orrengatik ezagutu ninduen Andoni'k gaur dela ez dakit zenbat urte.

Soldadu dabil orain, udaberritik, eta kanpora joan bear izan du. Soldadutza egin baño leenago askotan ikusten ninduen, eta ezer esan ez ba zidan ere, baninduen maite, nere ustez. Auetan, ez gera emakumeak oso oker ibiltzen.

Iru illabete badira kanpoan dagoenetik, eta frankotan idatzi dit. Asieran erantzun egiten nion nik batzutan; bañan alako batean, argi

ta garbi esan zidan Andoni'k maite ninduela. Arrezkero ez diot bein ere idatzi nai izan.

Baimena eman diotela-ta, atzo onera bezin laister, deitu egin zidan. Ikusi bear ninduela, ta abar.

Naiz bestegatik izan, ikusi egin bear nuen nik ere.

Ta igarri egin dizaiokezu ondorengoari: egia esan diot, eta ondo etsita gelditu zan gizona”.

Ero modun ixuri dizkiot nere musuak, tarta barkatzeko esaten niola. Malko-tantak iztatu dituzte nere ezpain egartiak. Sukarra izan da ura.

Nere kordea kilikatu ta iratzarri du xamurtasun zoragarri arek. Laztanka asi naiz, zeruko atarian jarri, ta lanak izan ditugu atsegiñaren aldapa labaiñean tenk egiteko.

Erotu egin nau betirako gaurko igotze margotsuak.

Miren biotzekoa: nola biziko naiz aurrerantxean zure biotza gabe?

Badakit: iñola ere ez. Ezin. Ezin, Miren...



# U D A

Biltzaillearen oarra:

Leturia'ren paperak billatzen asko alegindu arren, ez dugu aztarnarik ere arkitu "Uda'ko" bere sasoi oni buruz.

Badakigu, ta irakurlea bera konturatuko da onetzaz bereala, utsune bat dagoela bere egunkarian; eta ain zuzen, ezkontzaldikoa dela ura.

Nola ori? Ondorenean ematen ditugu gure azalpenak.

Zoriontsu izan al zan Leturia aro onetan? Baiezkoan gaude. Ez dakigu zeatz pozez beterik, ala alai xamar bakarrik bizitu ote zan bera.

Bañan, au da hipotesis txalogarriena: Leturia'k etzuen idatzi aro artan. Onengatixe ez da aren izkriburik arkitu.

Eta, ziur aski, au ala izanik, asko adirazi nai du, gure ustez, egunkariaren utsuneak, Leturia idazteko tankeran etzegoela esan nai baidu noski.

Zeren, nork idazten du? Noiz idazten da? Egunkariei buruz ari gera orain.

Literaturan aztertzen ba dugu, bereala iker-tuko dugu gauza bat: egunkari famatuenak idatzi dituztenak barne-prolema gogorrak zituztela.

Munduan erlijiozko fedea galdu-ala kezkek eta zalantzak aunditu zaizkio egungo gizonari, ta aiekin batera, geroz ta geiago ugaritu dira barne-egunkariak, benetako literatura - moda biurtu arte.

Amaika dira au probatzeko aipa genitzaz-kenak; eta, agiritzat, irakurleak ezagutzen di-tuen bi gogoraziko dizkiogu: Kafka ta Amiel. Paranoikoen mallan jarri ditezke biak askoren iritiz.

Alde batetik, bada, barnekoiak eta neuroti-koak idatzi dituzte egunkariak. Eta Leturia etzan, gure aburuz, aietako bat, urbil xamar ba zebillen ere.

Badira, bestalde, egunkariak idatzi oi di-tuztenak, gizon erdieroak izan ez arren. Denok izan dugu bizitzan egunkariaren aroa; eta bide onetatik azaldu bear da Leturia'ren utsunea, ta bere adirazkuntza.

Noiz idazten dira-ta egunkariak? Noiz ida-tzi duzu zeuk, irakurle? Beltzurak zure arima goibeltasunez bete zuenean.

Illuna da poesia. Alaia ez da poesigarri. Ez al zenuen orain arte nabaitu? Nekez azal di-teke munduko alaitasuna: osoa ez delako, nos-ki, ez gaitu sakon unkitzen. Tristura, ordea, biotzeraño sartzan zaigu. Ta lenengoa antzu ta

urri ba da bururapenetan, aberats eta oparo da bigarrena.

Nork bizitu du alaitasun osoa? Iñork ez. Bi milla ta bosteun urte dira Budha'k esan zue-netik: "Zorion-unerik izan al dezute bein? Ez!"

Puskaka ta asmamenaz ezagutzen dugu ba-karririk zoriona, ta gure barrenean euki baño antzeman egiten diogu. Tristura, ostera, larri-miña, bete-eziña, denok ezagutu dugu; ain osoto-ro geienetan, aietaz mintzatu ere nai ez dugula.

Ezin esan dezakegu guk alaitasuna ta zo-riona berez nolakoak diran; badakigu, alere, mundu onetakoak alakoak dirala, ta askoz ere geiago ta ederkiago izkribatu duela olerkariak tristurari buruz, betetasunari buruz baño.

Sortaldeko erriak jakin dute bakarrik ame-tsetako zoriona aurkezten, europatarrei jotapa-sa galanta emanaz.

Orrengatik, tristerik edo irrikan gaudenean idatzi oi dugu: emakume maitatuaren baietza entzuteraño, Jainkoaren bidea arkitu arte, egi-teko gaizki dijoazkiguño, eta abar; ots, burua-uste bat urratu dugun arteraño.

Ta auxe ikusten da garbiro Leturia'ren Egunkarian.

Jokaera au lasai-bide utsa da sikoanalisi-sarien ustez, eta ala ematen du zalantzarik gabe: kezkaz eta katramillak paperan ixuri-tzeaz, txikitu egiten dela nolabait aiei ditxezkon barne-tentsioa.

Ortaz, zoriontsu izan zan Leturia ezkondu ta geroko illabete batzutan, ori adirazten du bere ixillaldiak, gure ustez.

Zer egin ote zuen denbora onetan guzian? Ez dakigu; agian, au ez da beñere jakingo. Pentsa beza irakurleak gogokoen duena.

Tamala da, alegia. Badirudi obeto ezagutzen dugula Leturia tristea, Leturia zoriontsua baño. Bañan, izan aal zan azken au? Bestea izan zana eskierki dakigu; alabaña, zoriontsuaren berririk ez. Emen al dago korapilloa? Bearbada...

Batzuen ustez, igartzen diogu, oraingo seta aunditu besterik ez du egingo Leturia'ren Egun-kari onek; au da, gizon barnekoi ta etsita aurkeztutzekoa. Gizon eria artzen omen da gaur literaturan gizonaren eredutzat; eta joera onek iduri gezurrezkoa sortu duela diote sasi-baikor askok.

Arrazoi pitin bat dutela ukatu ez arren, au esaten diegu oriei: zergatik ez ditu lau osto irustak?

Bañan au guzia dela-ta, ez ditugu gertakizunak aurretik iragarri nai. Aski da biltzaillearentzat esandakoa esan aal izatea.

Utzi zaiogun, bada, lekua gure Leturia'ri.

## UDAZKEN

Lozorra da gaur adarera nioxeua; outalako  
rik ezalako gauru izan dionak esko ez dira.  
Eta adaranga d'ri gauru jakinuz d'la iz n'ki.  
es dakit ezara juho ez ote n'k'ozan g'ik ere.

Larria da ote ezalako: Miren'ek ez nait zo-  
nortien egiten. Erkanda surraen beria' l'irika  
naiti.

Lehen, eta noizik bain bekarririk, l'ora b'itak  
d'gauru alkar ematen g'ozentzen, gauru ote  
gurekin, b'itakela r'itidien, ote d'ntasuna ta  
d'ionan nait'oz g'itidien.

G'okera ura, ordea, d'ian orkearia eta b'it-  
ak; eta gaur, g'urak joan eta d'ona l'era berera  
d'aditrik zer egin da erlar g'urak?

Tarriak izan nait' ezionten, bai, l'era emen  
d'efio. Gero, ezarrea agertu da g'urak; ta nait

1 Aaztu egin zait idazten. Denbora asko da lerrorik batere zirrimarratzen ez dudala; ta gaur, oitura galdurik, gorriak pasako ditut nere barnea astintzen duena erdi-purdi beiñipein azaltzeko.

Gogorra da gaur idaztera nijoana: onelakorik idazteko gauza izan diranak asko ez dira. Eta ondorengo ori gerora jakingo dela ba neki, ez dakit atzera joko ez ote nukean nik ere.

Larria da oso esatekoa: Miren'ek ez nau zoriontsu egiten. Ezkondu aurrean bezin tirrika nabil.

Leen, eta noizik bein bakarrik, lera biziak itsututa alkar ematen genuenean, zerua bera gurekin gendukala zirudien: odol-itsutasuna ta zoriona naasten genituen.

Egokera ura, ordea, etzan orekarik eza baidarik; eta gaur, egunak joan eta dena bere berera itzulirik, zer egin da artaz guziaz?

Tarteka izan naiz zoriontsu, bai, lera asetu deño. Gero, ezerreza agertu da gugana; ta sua

itzalita, ez su ta ez austerre: ke. Ta ketan joan da bildutako erregarria.

Nere bizitza betetzen zuen utsunea lekutu da. Badaukat bear nuena. Ta, zer? Egoki zion Shakespeare'k: "Ezer irabazi ez-baña galdu egiten da dena, naikundea lorturik, gu bete gabe iraungitzen denean".

Mithoa desegin ta tirrikazioak deuseztuta, biotza zizpilduta, sakonago egin da utsunea. Nekatu egin nau opa nuena eukitzeak.

Ez esan, badakit-eta: geiegi goratu nuen Miren. Jainkosa biurtu nuen oarkabeen, eta ortik datorkit oraingo etsipena.

Baña, zer egin nezakean orduan nik goratze orri aldegitoko? Zer gaur nere onetatik irtezeko?

Ona da Miren, eta biotzez maite nau. Egia esan, ulerkaitza zait bere maitakera; ta nere maitasuna ta berea alderatzen ditudanean, izututa gelditzen naiz: berearen ondoan ezer ez da nereaa.

Alabaña, geiago bear du nere biotzak, "zer-bait" eskatzen dit orain leen baño ere bortitzago. Ta, zer eman dizaioket nik? Au ez da bear zuena, Miren ez da, agiri denez, bete lezakeana.

Orain aste batzuk, irrikaz beterik itxoegiten nuen gauaren etorrera; bañan ez nintzan ni zai zegoena, nere gorputza baizik.

Okitu ta iguindu egiten nau gaur arratsa ur-biltzeak, nere beteeziña aren ondoren berritu ta suminduko bai-da ezin bestez.

Iñork ez du au sekulan jakingo. Ez, Jauna, arren!





TELITIK IYRSOX

pour. Abonnez-vous à nos journaux  
pour connaître les détails de nos activités

Eta zer da ni engañatu nauena? Ez diot Miren'i errua botako, ez; neuk gezurtara dut nere burua.

Askotan entzun izan nuen nik zorion-irritsa mundu onetan asetzerik ez dagoela; ta, guziz ere, ta aoz nik ala aitortuagatik ere, zer egin dut etsipen-leize illun onetara ez jausteko? Deus ez.

Edozein txotxolo zentzugabek bezela jokatu dut, txoro onek. Eta gero... oraingoak.

Etorkizunaren bildur naiz. Nun dago-ta nere irten-bidea?

**2** Zerubide'n egon naiz. Osto eroriak zoko guzietan. Gorrixka parkea ta gotillun ni, aateen urmael ondotik igaro naiz. Margula zan argia, ta eurikara giroa. Otzik ez.

Bi ezkonberri etorri, argazki batzuk atera, ta joan egin dira.

Supituan, aspaldian ikusitako eztaiaz gogoratu naiz; eta zastada aundia artu ba nuen orduko artan, are aundiagoa izan da gaur arratsaldean nere oroimenak arrerazia.

Bi gizon bide-gera ura ta au, biok izen bat besterik eraman ez arren: Joxeba Leturia. Igazko udaberrian ikusi nituen aiek, eta auek aurtego udazkenean: onek ere bere mamia izan dezake.

Berriz bururatu zaizkit egun artako iduriak: beitik gora begiratzen nien orduan, goitik beera gaur. Aienganako mirespena zan ura, mirespen asaldatzallea alegia; kupida gaur arratsal-

dekoa. Aldapan gorakoan nekusen orduan lillura-gaña; beerakoan gaur.

Ots, guziz diferentea.

Ezin siñistu. Gaurko ezkonberriak bezelaxe asi nintzan ni ere: esperantzaz beterik, aiek bezela irribarrez, aiek bezela Zorion Nagusia eskuan nuelako uste irmoan.

Beren ibillera ta kiñuak aztertu ditut, eta ariñegi iruditu zaizkit. Biziak alegia, bañan oso urduri ta artegak bezela. Nigan ez dago orrelakorik: patxadan mugitzen naiz, eta ez bide-naiz, leenagokoa bera. Itz batera bilduz gorabera: aiek gazte, ni zaar.

Ikusita dago: lillura iltzen du aukeratzeak. Eta lillurarik gabe, gaztetasunik ez. Zergatik aukeratu nuen, bada, gazterik iraun ba neza? Onatx nere okerra!! Aukeratzeak egin nau zaar. Frakasatu egiten du derrigorrez aukeratu duenak.

Bidez esan oi du Yon nere adiskideak: "Maiteminduak ez-baña hipnosituak daude".

Ta zer gertatuko ote zaie gizajo oriei berriz esnatzean? Neuri gertaturikoa, noski.

Ai, mundu eroa! Besteren buruan ikasterik ez.

Alaka au berau alperrik da.

**3** Bai polita zegoela gaur itsasoa: bada-kusat oraindik, urdin eta nare. Eta millazkaen artean "Zugaztieta" 'ko egurastokitik ninjoala, Yon topatu dut.

Izketa mamitsua izan dugu; edo, obeto esa-

teko, kausitu egin du arek bere bakarrizketan, entzun baño geiago ez bai-dut nik egin.

Armentia-tarren ezkontzausteaz asi zait mintzaten. Banekien nik gertatua gutxi gora bera; baña xeetasun guziak eman dizkit arek. Nola edo ala, beti daki jakitekorik dagoena; lortzeko nola moldatzen den ezin esan.

“Seme bat utzi dik “-erantsi du-” eta Ameriketara joan duk”. Kemena izan bear orretarako. Errexa zirudik kanpotik begiratuta; baña jarri adi bere lekuan, eta ikusiko duk”.

Ba al zuen au esan bearrik?

“Semearen kontua duk or, eta beti, gogorrena; onek ez beste baiesten dik ezkontzaren ezin urratzea. Bestela, ta norberaren okerrak zuzentzekoa zuurren jokabidea ba da, zergatik onetan ez zuzendu? Autatze larririk ba da bizitzan, auxe duk larria.

“Amaika istillu izan omen dizkitek Armenia'tarrak orrera baño leenago; ta, gauzak era artara jarri ezkeru zer itxaropen izan zezatekean?

”Akats bat arkitzen zioat ezkontzari: aurretik ezin probatzea. Nai dutena esango ditek oni buruz “txintxoak” eta ortodosoak; baña beti izango duk au milla okerren iturburua. Ta, dirudenez, zuzendu eziñezko okerburua duk”.

Zerbait erantzuteko zorian egon naiz, bañan ez dut tutik esan: zerbait otu arren, ez nuen ikusten esatekoa.

“Gañerantzean, zio aztunak dituk burgesentzat “okerra” ez egiteko. Gizartearen susmu-

rrak dituk lokarri sendorra: gaizki ikusita zegok ori gaur...”

Nazka pitin bat eman dit puntu onetan bere lotsagabekeriak.

“Badituk, oietaz gañera, beste “maitetasunzioak”... zeren, senarra utzi ta zer egin dezake bere aldetik zijoan emakume gajoak? Au dela-ta, lika bikaña duk diruaren falta.”

Gogorra zan lasaikeria au, bañan arrazoia-  
edo ez al zuen Yon'ek?

“Onela, illobi-ixilla egiten duk ezkonduen artean, eta batek ere ez dik txintik esaten. Pozik daudelako? Ez, alajainkoa! Nere esperientzia exkaxean (besteen lepotik artua au, jakiña) erabaki bat ateratzen ari nauk: gutxi dakigula ezkontzaz, eta uste dugun baño garratzagoa dela egia.”

“Ta ni ez nauk batere arritzen, badakik: hipnosiaren ondorea zeritzaidak...”

Zarrakatu egin dira nere orekaren oñarriak, eta minduta etorri naiz etxera. Oean etzan eta zartako bat eman diot burkoari indar guziakin.

Nazka ematen zidan, batez ere, gizartearen zioak, egia utsa zalako. Ori baño zirtzilkeri lotsagarriagorik ez: jendearen esanagatik gezurrez jokatu... Ez!

Zer da baña Miren'en ondoan naukana?

**4** Aztergarria da Mikel'en pentsakera. Arekin egon naiz oraintsu, ta zerbait pentsa-arazi dit bere kondaketak.

“Miriam” deritza oraingo neskak. Iñork ez bezelako begiak ditu, iñoiz ez bezin unkituta

dago Mikel, iñora joateko gauza ez dira ez bata ta ez bestea alkarrekin ezpada... Gezurra dirudi orrenbestetan eta orren berdin "maitemindu" aal izateak. Amets berberak beti, itz berberak, sentsazio berberak, eta lenengo aldiz nabaituko ba lira bezin berriak.

—“Ez, ez, Joxeba; egiaz esaten diat au: oraingo onetan ez duk bestetan bezela gertatuko. Biotza urratu zidak Miriam'ek, eta etzeukeat ezer arentzako baizik. Benetan”

—“Ortaz, gauzak okertzen ez ba zaizkit, erretorearena baño beste biderik ez duk, ez da ala?”

—“Zergatik? Ez, ez. Mentalidade antziñakoa duk ik. Nondik nora ezkonduko ni? Illabete batzutan ibilliko gaituk alkarrekin, biok poza-ren pozez, eta gauza xamurregi jartzen ari dela oartu ta laister moztu egingo diat. Au bai: onetarako biotzik ez: tenk egingo diat ezertako errukirik gabe. Oituta natxeok.

—“Eta, Miriam?”

—“Bazekik arek ezkontzeko asmorik ez dudana, neuk ala esanik. Asiera duk polita; ortaz; asi gaitzen alik ata geienetan. Orain esate baterako, irrikan negok ni, ia olerkari biurtuta, Miriam dela bide. Ta au galtzea eskatzen didak? Nola gal nezake zorionerako dudan bide bakarra? Obe nitek burua moztutzea!

”Bazekiat nik bati lotu ta iguiñak arrapatuko nindukela ezin bestez. Nola nai duk, bada, nere eskuz neure burua urkatzea? Ezin diat. Nere azkatasuna zegok guzien gañean, ura gabe galduta naizela bai-baitzekiat.

"Bazekiat, besteko, ezkondu den batentzat ezbide aundia dela au, ta bizitza txatxukeritan ondatzea. Baña, besteak beste, onetarako jaio nauk ni!"

Zentzugabe deritzat jokaera orri; bañan, ala ta guziz ere, alai dabil beti Mikel. Edo-ta, nik baño obeto ezagutzen du bere burua, ta eza-guera onetatik datorchio alaitasuna: bere iza-keraren arauz jokatzen duelako.

Ta, nere hitzondoan, ez al dut nik Mikel bekaizten? Baliteke. Iru gizon-mota dira Orte-ga'ren ustez: "Don Juan" izan diranak, "Don Juan" izan uste diranak, eta "nai etzutelako" "Don Juan" beñere izan etziranak. Onetan al datza, ausaz, Mikelganako nere inbidia ezku-tua? Alde batetik baietz uste dut.

Badago, alere, arimari buruzko beste zio edo kari bat; eta koxka au dela uste dut. Aukeratu egiten ez du Mikel'ek: bere esku dirau; auke-ratzearen ondorioak ez ditu ezagutu, eta onen-gatik dabil pozjario.

Baña, sakonago azterkatuz, libre al da? Ez aukeratzea aukeratu du, nere ustez, ta zentzu-gabekeria da ori. Bere burua engañatzea baño ez. Pentsatu ondoren artu izan ba lu beintzat bere bide ori... Bañan ez dut uste. Oarkabean, edo pentsatu gabez, aukeratu du itsutasunaren bidea; ta au da ori: saldukeria, gizonak egin dezakean saldukeriarik galduena.

Mikel'ek, jakiñez eta burubidez, bizitza au-tentikoa autetsi bearrean, inautentikoa artu du bidetzat.

Ezin bat etorri arekin.

5 Lanari buruzko aitzeki bat asmatu-  
rik, etxean utzi dut Miren, eta Ibaetatik  
ibilli naiz. Arratsa etorri ta bikotez  
bete dira ibaiaren inguruak.

Maiseo billa joan naiz ara, ta bai errex ar-  
kitu maiseogarria. Gizontxo aiek illunpeak  
ausaturik, betiko lelakeriak aoan, enborretako  
islakin naspiltzen zituzten berenak ni pasa-  
tzean. Atsegiñaren billa denak betiko itzak  
aipatu dituzte noski losentxatu naiean, azkenik  
aiek berak siñistu arte. Guziak berdin, eta gu-  
ziak maite dutelakoan. Izen gorenez zamotuak  
senak eta griña utsak! Laztanik anitzenenak  
banatuz gogai goragarrienak naasi... Bai iski-  
rio gordiña!

Bapatean neska mutil guziak gizaseme bi-  
llakutzen zirala bururatu zait. Zer ifernu-ikus-  
keta zan ura? Goragaleak ere asi zaizkit, nik  
uste. Ura ikustekoa!

Ortaz, lizungoak biltzen ditu ara arratsero.  
Agirian dago baietz, bestela ez du arek azalbi-  
derik eta. Onetan ezin eman nik amor.

Freud bururatu zait, eta arrazoi betea duela  
pentsatu dut. Gizagorik gabe, zer izango litzake  
orretzaz guziaz? Zer gauza askotzaz? Deus ez,  
Senak iratzartzen digu zorion-irritsa puberta-  
roan; arek eusten dio; arek eratzen ditu gure  
ametsik gogoangarrienak, arek dakazkigu etsi-  
pen gogorrenak, arek sortzen du, diotenez, mai-  
tetasuna (sortzen duenetan). Aren bidez sumin-  
tzen zaigu bizitzaren utsunea; neuri galdetu  
bestela.



Zer gera, bada, ura gabe? Ezer gutxi. Ibaeta'ko Paseoa kontutan euki gabe, ezin Altzurain'go ixilpeko istoria azaldu. Berebat, ezin gizona konpreni hormonak aintzakotzat artu gabe.

Etxera itzulirik gogoeta auek nerabilzkien gelan eta, ziplo, tximistak argituta bezela, gizaseme biurtuta ikusi dut Miren. Zabal eta borobillak jarri zaizkit begiak. Ura ikara! Banquo ta Macbeth'ena bera. Nere aurre aurrean nuen Miren gizona eta nazka-lotsak eraginda, atzeraka asi naiz urrats txikiz. Maitxo batekin topatu, zapasalto, ta txarro bat puskatu da lurrean. Aundiagoa egin ikara, ta lertzear jarri zait biotza. Alde batera ta bestera begiratu ta... ikusi egin dut, ziur nago. Miren sukaldetik etorrira aitzeki batzuk jarri dizkiot, arpegira iñola begiratu gabe, ta nereak eta bi entzun ditut ura puskatzeagatik.

Erotzen ari naiz, bai; neuk nabaitzen dut: orain ondo itzarrik nagoela, bakarrean, artaz oroitu ta nekez gordetzen dut karraxia. Ilberri bat bere iljantzia, zurbil, urdinska begitarte, oetik jaikitzen ikusiko ba nu, ez lidake ikusteak zauskada latzakorik emango. Jauna, zer izan den izukari ura!

Zeroen ulermena dut orain, eta lotsa oso, bete, guzizkoa sentitzen dut maitatzeko legeaz. Au iguiña!! Aski zait ikuspenera asmatzea oka egiteko zorian jartzeko.

Maitasuna... Nola garabilzki Naturalezak!... Nai duen eran maneatzeko gaitu, gure esku generala siñistaraziz. Joko jolasgarria, alegia, berea!

Au al zan Gide'ren prolema? Uste dudanez ez osotoro. Bañan emendik ba zebiltzan bere buruausteak, ez nabil ni argandik urrun, eta ulertzen bide-dut piska bat.

Bildur naiz Miren aurrez aurre ikusteko.

**6** Artemeindanik, bere begirunearen igesi dabilta nere begiak, eta konturatu egin da Miren.

“Nazka ematen dizut. Etzait au gorde, ez. Nazka ematen dizut!! Politago biurtu al ba neza nere burua, munduan dagoen emakumerik ederrena biurtu al ba nendi, ondutako nere izate guzia zuri eskeintzeko, nolabait zu zoriontzeko... Au zoritxarra nerea!”

Ta negarrari eman zaio. Ta ni, zakar gaisto au, tankera orretan ura ikusi, ta buru-belarri ibilli naiz zerbait egokirik esateko. Legortu egin zaizkit biotzeko iturri guziak, eta burua aurre-ratu zaio sentimenduari.

Ez dijoa oker Miren. Ez da-izan nazka nik sentitzen dudana: nere barnea azal dedin dut bildur ikaragarria. Nere burua agertuko ba litz, galduta nengoke lotsa utsez. Nork igarri di-zaioke nere biotz usteldua bazkatzen duen belzkeriari?

Bi iguiñaldi izan ditut orain arte Miren'ekin, eta biak izan dute oñarritzat bere gorpuztasuna.

Lenbizi, oraindik ezkongai giñala, atzera-arazi ninduen batzutan bere gorpuztasunak. Gauza arrigarria zan: gorputz zalako etsi-arazten ninduen bere gorputzak, gaiezkoa zalako,

mugatua ta pixua zalako. Gaitzi zitzaidan bolada artan nere barneko lillura zoragarriak gorpuztaren bidez azaldu bearra.

Orain, berriz, ez da iñola berdin. Nekatuta nagoenean etzait ajolik bere gorpuztasuna nere ondoan nabaitzea. Ez dago gorpuzteko esirik. Baña, noizean bein, odolak eraginda besarkatu ta nereganatu nai dudanetan, nazka ematen dit bere gorpuztasun orrek; ez alegia, ezkongai-al-dikoagatik, neure griña, joera, ta senen jopu ta katigu naizelako baizik. Guziak menperatzen dituen indarraren jostallu arkitzea zait nardagarri. Ala irudituagatik ere, ez naiz azke. Ta azke izan nai dut nik, neure esku!! Neuk izan bear dut nere geroaren aukeratzaillea.

Au dela-ta, geroz ta okerrago dago alkarrekiko egokera. Oztasun ikaragarriak izoztutzen dizkigu bazkal-orduak. Piztu nai bide-du irratitzak guztiz illik datzana. Alperrik. Kanpoko zarata da ura, ta oso barnekoa gure ixillunea; eta atzik utzi gabe pasatzen dira soñuak gure artetik, neguteak gogortutako arkaitzetan aizeizpi mea gisan.

Denari oartu zaio Miren, eta ezin egin nik alaitzakoa.

Bart, aitzekiak asmatuz, ezetz esan diot berriz.

“Beñere ez nauzu maite izan. Milla eskaera ta arren egiten zenituenean ere, etzenizkidan neri aiertzen, nigan jabekizun zegoenari baizik. Niganako zure amodioa jabekunde baten istoria izan da. Zeure burua baizik ez duzu sekulan

maitatu. Zerekoi amorratua zera. Nola ez nintzan ni garaiz konturatu?"

Besarkatu egin nau orduan, eromodun, bere indar guziakin, tiro batek ziplo zauritu bai luan, eta osotara etsita erantsi: "Berandu da, alabaña, orain. Maite zaitut, Joxeba: itz auek ulertuko dituzun egunean jakingo dituzu oraingo nere penak".

Ura ikusita, bigundu egin zait barnea. Bertiko nere akatsa. Gaur, ordea, ozkiro pentsaturik, au dakusat garbiro: ez dutela bere malkoak egokera aldatu. Ots, zergatik aldatuko jokae-raz? Nere pentsamena ukatuko al dut?

**7** Miren'ekin bearrean beste batekin ezkondu izan ba nintz, zer gertatuko zitzaidan? Istillu onetan sartuta egongo al nintzan? Au bururatu dit deabruak azken gauean. Miren bera ote da gaitzen jatorria...?

Loa galdu ta asko azterkatu ondoren, ezetz uste dut. Ona da Miren, biozti, etxekoi eta zintzoa. Biotzez maite nau. Zer geiago arki neza-kean beste emakume batengan? Ezer ez. Puntu onetara elduko nintzan edozeiñekin.

Miren'i buruz ez-baña neure buruaz utsegin dut. Aukeratzea egiteko larria zanez ez nintzan konturatu. Ez nuen oarrez egin aukeraketa. Eta bein, oarkabeen, oker jokatu nuelako, bizi osoa galduko al dut? Damu dut, alafede, egiña; bañan onetaz besterik ezer ez? Ooarkabeen egiten dena pekatu ez dela-ta, alaka alperretan xautuko al dut nere bizialdia?

Egin egin bear zerbait okerrak zuzentzeko, asmatu egin bear zerbait. Bestela, mingostu egingo dit bizitza utsegin nuelako mamuak; eta au ez da itzaliko, zeren jakin badakit egiña dagoena beaztopa. Zalantzarik ez onetzaz.

Bidarte Nagusira itzuli bear dut berriz, bada, geiago ibilli aurretik.

**8** Arratsalde igarokorra Zerubide'n. Are igarokorrago egiten du urrutiko irratitz bateko soñuak. Ozta-ozta irauten dute zintzilika azken osto igartuak. Lurrean dautza-zenak, euriak busti ta zimurtuta, beren xarma galdu dute, ta illen antza artu. Goibel zerua, ta urdin moreak onetan nabarmentzen diran odei luzaxkak.

Betiko urmael-iturritxoa nere aurrean, Dena igeskor. Aguro dijoa arratsaldea, udazkeneko arratsaldeak oro bezela. Igarokor, labur, etenkor: onatx giroari dagozkion itzak.

Makillaz lagunduta, nere aurrera iritxi da nekez agure konkorr bat. Exeri egin da ta orain ez du iñora begiratzen. Baztergabean josirik begirada, zer darabil biotzean giza joak? Denak utzi ta aaztuta agian, zer itxaropide izan dezake orain?... "Bai azkar joan dela bizitza! Oitutzen asi orduko ikertu egin naute eriotzaren mandatari diran eritasunak. Bai laburra, Jainkoa! Gaztetan, noizpait geldiene bat izango nuelako ustean bizi nintzan, urteak joan, eta "noizpait" paketsu orren zai nago oraindik. Eriotza al zan

otean orren gogotsu itxaron dudan gelditasuna?"

Neuri begiratzen dit orain, eta asalduz bete nau. Entzun ez arren badantzut: Gazte maitea: "Qu'est-ce que tu as fait de ta jeunesse?"

Ez ori gogorazi, arren!

"Laister zimeldu ta iraungituko dira zure lillurak, laisterregi. Uste duzun baño aurkiago gogoratuko zera alkarrekiko gertakari ixil eta izkutu onetzaz, eta makilla bat izango duzu eskuan, orain nik bezela. Laister dijoa denbora, laisterka bezin ixillik; onengatik ez gaitu esnatzten. Aguro ikusiko duzu aurrean bizitzaren Eragille Nagusia, itxarokizun bakarra biurtuta: Irugarren Parca. Ta Homero'ren esana izango duzu etengabe agirian, zalantza-buru ta kezka-bidetzat: "Illak ez bestek dakite miña zer den".

Naikoa da, arren! Asko alaitu naiz sendo ta gazte izateaz, eta azkarki eldu diot arkatzari: bizi, bizi, bizia...! Ta eriotza... gizonak duen ezin bestezko bakarra...

Sekulako edermenak bete nau, eta bizitasunez mozkortu. Illunpeak diztirazten du argia, gauaren beltzak izarra, mingotsak gozoa.

Nere jaiotzaz oroitu naiz; nere jaiotza egiazkoaz, bai; zeren, Egunkaria idazten asi nintzanean jaio nintzan ni jaio, orduan sentittu bai-nuen bizi-bearra. Betbetan, eta zergatik jakin gabe, olerki-kutsua idoro nuen guzitan. Jaiokundea bezela izan zan ura. "Zerbait" berri mintzatzen zitzaidan lenengo aldiz, utsune ta trixturaren ondorea barne barnean utzita.

Kanpoan zegoen “zerbait” falta nuen nik; eta Miren ezagutu nuenean ura guzia arkitu bide-nuen argan, Uraxe zan “zerbait” ura.

Aro artan, “Zerubide”ra etorri ta “Gero” zan izaki guziak belarriratzan zidaten itza: “Gero”. Miren izandakoan, zoriontsu izango nintzan, au ta ori izango nintzan. Gero, gero, gero... “Gero” zan olerki-kutsuaren mamia, eta gerotasun orretatik zetorren mamia, eta gerotasun orretatik zetorren orain-nai ura, ots, illun arrigarrri ura.

Gaur, Miren guztiz nerea dudalarik, ez dago “Gero” rik; eta, alaz ere, tente dirau olerki-kondar azaldu-eziñezko arek. Baña bestelako siñu edo joera artu du: “Nun” biurtu da orduko “Gero” a. Baieztu egiten nuen bein, galdetu egun. Etorkizun zegoen eguna orduan, betirako pasata gaur. Oroi-miñak jarraitu dio lillurari, ta eriotzaren beti-egonak bizi-naiari.

Lilluraren lilitegietatik etsipenaren saizulora igaro naiz...

Sartu ez-sartu bide-dago eguzkia. Egun bat geiago... egun bat gutxiago...

Neguaeren etorrera nabaitzen dut arratsetan: bere aintzindari dira aize-bolada otz auk.

Nere biotzaren arrenkura ez beste danak beera dijoaz. Bizi egin nai dut! Betirako bizi nai dut! Zoriontsu izan nai dut! Nun zaude? Nere aurka al dago guzia?

Alperrik deika. Ezta txorrotxiorik ere. Ezer etzait mintzatzan, atsedengarritzat.

Ta nun dago nere argimena illunpetatik ateratzeko gauza ez dela?

Badator gaua, izarrik gabeko gau beltza;  
gaua: ixillaren ama, deusezaren aizpa bizkia.

Badator piskaka, neure azkena bezela.

“La vie s'en va, Madame, la vie s'en va.  
Hélas! La vie non, mais nous nous en allons”...

Ez!!!

Au al da negar egitea?

Ez al da au erregutzea?

9 Paregabea da ardoaren indarra. Ondo dakite au olerkariak eta beren erako askok, eta ari ematen zaizkio edozein lan asi baño leenago.

Gutziz bakarra da ardoak eragiten duen olermena. Orain ni, mozkorra nagoela, argitasun berri batek naragi; ta iñoiz ez bezin garbiro ikusten ditut nere katramillak.

Lillura utsa izan da guzia... Miren'gan etzegoena ikusi nuen nik, zoriona atxiki nion eta. Zergatik izango zuen berak, nik falta dudana?

Orra maitasunaren okerra: norberak opa duen zoriontasuna beste batengan ezartzea. Nondik nora “nondu” gure utsunea emakume batengan? Zergatik “nortu” gure zorion-miña? Zer dela bide?

Auxe da maitasunaren lillura, ta argatik etsitzen dugu maitale guziok: maitemintzean nortze eziñezko bat egin genuelako. Iñork ezin dezake beregan nortu besteren zorion-bearra. Nortu egiten du beti, ordea maiteminduak. Ortaz, etsipenak jarraitu bear, nai ta ez. Nola-tan ez?



Lillura utsa, bai: nere lillurabidea izan zera zu, Miren, ez nik eta ez zuk ala nai izan ez arren.

Guziz ere, bizitzeko gogoia nuen nik amets-aldi artan. Ain zuzen, zu nere lillura bete bete zifñanean, bizi-jario nenbillen ni, guziakin etorkor eta otzana, edozeren alde lanegiteko prest.

Orain, berriz, zu lillurabide bat besterik izan etzerala nik dakidala, nakar eta nazkatuta nabil, bizitzeko gogoak arras itzaliak.

Lillura batek eusten ba ninduen, ezaguera batek jaurtiki nau.

“Hipnosis” esan oi du Jon'ek. Ori norañoko egia zorrotza den arek berak dakienik ez dut uste. Egiaren zorrotza, Jauna!

Ta ongi etorria zu, napar ardo ori, argitasun argitsua ematen baididazu.

Maizago orditu bearko aurrerakoan...

**10** Oraintxe ikusi dut ixpilluan nere bu-  
rua, ta otzikara batek iñarrosi nau:  
eroren begiak ditut!! Ez begiak baka-  
rrik, nere itxura osoa baizik. Betazpi ikaraga-  
rriak ditut, eta bi txinpart ematen dute begi-  
niniak. Lerregiña nago.

Zirrara eman diot nik nere buruari: au mar-  
ka! Une batean, beste bat nintzala otu zait, za-  
titu egin da nere nortasuna, ta dardaratu egin  
naiz bildurrez. Bidezkoak al dira asmazio auek?

Etzait au, gañerantzean, lenengo aldiz ger-  
tatu. Beste batzuetan ere, edozeñekin izketan ari  
naizela, orrelako ikara nabaitzen dut besteak

aztertuta nagoela oartzean. Eta amets beltz izugarri batetik aterako bai-nintzan biurtzen naiz nere baitara urduri, artega, kezkaz beterik. Eta bein baño geiagotan egondu naiz Urliari edo Berendiari galdetzeko zorian: "Zer begiratzen didazu orrela? Zer dut nik? Zer ikusten duzu nigan? Ero baten antza ote dut agian...?" Bildurra sentitzen dut, ero biurtzeko bildur ikaragarria.

Leen, gogorragoa izan da, benetan larritze-ko gauza, alegia. Ispilluan begiratu, ta beste bat ba nintz bezela ikusi dut nere burua. Sendagillearengana joan bearako al dut egiñaletan? Ez dakit. Dena dela, bildur naukate gertaera ikaragarri auk.

Alboetara begiratu, ta trankillago geratu naiz iñork ikusi ez nauelako segurantzian.

Egia esan, ez da au arritzekoa. Bart ere, beste askotan bezela, betiko ixillua izan genuen Miren'ek eta biok. Ezin dut nik nere nazka garaitu; ta, egun biz bein, zaputuz eta otz nagoela entzun bear.

Bizpairu esakuntza erdiragarri esan ondoren, ixildu egin zan Miren, eta etzuen txintik berriz atera. Geroenean, ordea, ni loak artuta nengoelakoan, negar ixilla asi zuen, eta tankera orretan, denbora luzean egondu zen mal-ko-jario, oso oso ixillik.

Unkitu egin ninduen sakon bere negarrak, eta egia osoa azaltzeko zalantzan ibilli nintzan. Zer esan bear nion, ordea? Maite ez dudala? Ez al zan au izango nere ixilla baño ere gogorragoa?

Ez nuen nik uste. Alako batean, nere lo-  
aizuna etetzeko zorian nengoenean, gauza bat  
bururatu zitzaidan: zer egingo nuen aurrera-  
koan? Artuemanak ontzeko ta xamurtzeko ez  
ba zan, zertarako esan bear nion nik ezer? Une  
artan, bai: biotzak eraginda, edozein neurri  
agintzeko prest nengoen ni, bañan ondotxo eza-  
gutzen ditut nik biotzaren atzipeak: unearen  
zauskada igaro, ta berriz egiña damutu bia-  
ramunean. Ez, ez: orduan "esnatzen" ba nin-  
tzan, ez nintzake gero gauza izango asitako  
xamurtasun-bideari jarraitzeko. Oker jokatzeko-  
kotan (eta biotzari entzutea zan oker jokatzeko)  
damuak eta errukiak etorriko lirake gero; ta  
ura etzan bidezkoa. Ito egin bear nuen nere  
beraxtasunak, bigunkeria igarokorra baño etza-  
lako.

Ta gogor egin nion nere buruari, ta bioz-  
kada azpiratu.

Gogaikarria ez al da egokera au? Baita  
geiago ere: ezin eramana da. Onela ezin di-  
teke bizi.

Orretzaz gañera, goganbearrez beterik dago  
Miren. Beste emakume bat dagoela uste du,  
noski. Eranegun, ez-oiko ordu batean etxera  
nintzan eta nere maiean arrapatu nuen Miren,  
kajoiak idiki naiean nunbait. Ez nion ezer esan.  
"Zerbait" idazten dudala nabaitu bide-du, ta  
bere etsaia ba litz bezela billatzen ari da. Ez du  
ezer arkituko. Bai zera! Egunkaria irakur ba  
deza, egin duke nereak.

Eta, guzira, bizitzea al da au? Miren zalan-  
tzan, nitzaz fiatzen ez dela, beti urduri; ni, be-

rriz, gogait, erotzear, neure buruarekin burrukan.

Ozta-ozta itzegiten dugu alkarrekin. Nork esan zezakean au gure eztaialdi irribera artan? Oztasun izugarriak bete du gure arteko guzia. Bikote kupidagarri gaude, ziñez.

Ezin, au ezin diteke segi.

**11** Berriaren arrigarria! Parre eragin dit asieran, eta negar gero. Maitemindu egin da Yon! Yon, bai, Yon argia ere "hipnosi" 'an erori da.

Denok berdin. Nork igarri zezakean au? Beti iskirioka zebillen ura, berak maiseotutako lillura berean eroriko zela...

"Guztiz erotuta" dago gañera. Nola ez!

"Bazekiat, bai, Joxeba, parre egiteko gogoia emango diadala. Ni nerau negok arrituta, i baño leenago. Beti bezela pentsatzen diat nik gaur, eta "hipnosi" 'ak eta amodioak artueman aundiak dituztela uste, orain arte guzian bezelaxe. Baña buruak ikusten dik au, eta buruak ez bestek ematen aintzakotzat egia ori. Orren-gatik, buruz betikoa iraun arren, izanez ez nauk atzokoa.

"Ez, Joxeba. Ez egin arrituarena arritu ba aiz ere. Ik erorrek egiztatuko duk au bearbada. Biotza zegok buruaz gañera, ta lotuago ta gertuago dugu au biziari, adimentua baño. Ori duk nik ematen dudana azalpena.

"Eta txoratuta naukak, gau ta egun Lore' gan nere ardura, arekin egoteko ogei ta lau orduz irrika gorrian.

"Gañera, edonork baño erromantikuago jokatzen diat nik azken bolada onetan. Zeatz batzuek emango nizkikek... Bañan lotsatu egingo nindukek, ginduzkek obe... ta naiago diat ez esan.

"Ezin nauk Lore gabè bizi".

Betiko lillurak, betiko okerrak, beti betiko asmazio ero berberak. Eten gabeko leloak.

Baña arritu egin nau Yon'ek; zeren ni konturatu ez ba nintzan, guztiz konturatzen den au: ta erori egin da, alere, Nola konpreni ditteke orrelako ezbidea? Noiztanik da gizona pentsakorra?

Betiko mintzoa berritu da gaur: ezin naiz bizi, beregan dago nere biotza, ta abar. Betikoa!!

Gizonak ez du deus ikasten nork bere buruan baizik. Ondamendi garratza da au, bañan egia utsa. Bost ajola zaio bati bestearen damua; eta ala izanik, makiña bat aldiz okertzen da gizadia betiko okerbideetan barrena, ta alere, arrastorik ere ez ikasteko. Belaunez belaun berritzen dira utsak, eta beti gertatuko da berdin mundua mundu deño.

Denok nortu dugu zerua bein baño geiagotan. Eta, izan ere, nork bere zeru-gaia jaiotako errian bertan arkitu al izatea, ez ote da berez, beste gabe, arras arrigarri? Ondoan bide-dugu beti gure zorion-egarri sakona itzaliko duena... Farregarria, alegia! Ta geu, berriz, beste edo-

noren "zorion-egarri sakona" asetzeko gauza bide-gera, noski, beste baten iritziz... Nondik nora? Nola erori gaitzke bein eta berriz astakeria orretan? Gezurra dirudi.

Ta Yon bera lilluratuta...

Goragaleak ditut!

**12** Bestetan bezela intuizioa ugaritzen dit edateak, eta neure burutik igesi eragiten bidenabar. Eta, dena dela, bizi-garriago egiten dit bizitza.

Film batean bezelaxe dakusat nere leena.

Argi geiago zen orduan. Orain, nere zorion-miña ezik, dena goibel.

Arrigarria. Zenbat-eta biziago izan nere zorion-azkurea, ainbat-eta epelago nere bizigura. Ito egin zidan lillurak zorion-miña, ta bizitzeko gogoia piztu. Zergatik ala? Zeren eskuragarria zirudien zorionak Miren'en bidez. Eta Maite-min biurtu zen Zorion-miña. Miren'en sasi-bearra, biotzaren Bearra.

Orretan datza maitetasunaren lillura: zillegi ez den jomuga-trukatzea da. Egiatzkoa ta iraunkorra da zorion-bearra; aurki egiten da errauts, berriz, maitemiñaren lillura igarokorra.

Ez maitemiñarena bakarrik, noski...

Bere ezdeustatzera abiatzen da berez lillura oro. Eriotza du bizi-legetzat. Ezdeusak ematen dio guna, ta ezdeustatu artean urduritasuna besterik ez da. Emaiogun denbora edozein lillurari, ta, aukera agerturik, ezereza biurtuko da gogoz bere elburura iritsi ta laister.

Denbora bear du lillurak bere izana erakusteko, ta besterik ez. Orrengatik oi gera zaarrago ta ukakorragoak. Lillurak bete-ala (ots, illala) beltzura agertzen da ezin bestez.

Burutzerako bidean abiarazi zituen lillura illerazten dute burutzapenak oro. Burutu ta il: onatx legea...

“Eman, arren, eziñezko amodio bat...” Bai, bai. Non daude hetirako lorkizunak? Non daude mugagabeko bide izkutuak? Ez dut inora iritsi nai!!!

Gogaikarria da opa denean, opa-gaia ez iristea. Bañan iristea ere, ez al da gogaikarriena?

Naikundeak eskatzen duena lortzen ez bada, naikundearen almena edo joera gelditzen da erren eta gogotsu. Baña desira lortu ezkeru, izate osoa, nortasun osoa gelditzen da egarri bizian, osotara etsita, nora jo ez dakiela. Lenbizikoan, lillura batek lurjotzen du; bigarrenean, gizon osoak. Onengatik, sakonago da naikundeari darraikon tristura, naikundea betekizun gelditzeari darraikona baño. Ots, kaltegarriagoa da lortzea, ez lortzea baño.

Itxaropena iltzen du lillura itzaltzeak; itxaropena piztu, ordea, “kizun” geratzeak.

Onengatixe, indar eta eragite aundiagoa du lillurak arrakastak baño, ta ibiltzeak iristeak baño. Alere, ezdeusera abiatzen da izanez lillura. Beraz, frakasoia da munduaren eusle aundiena. Eriotza esan nuen artemein; frakasoia gaur...

Batzuetan, Buda'ren kutsua-edo du onek guziak. Baliteke. Ta, zer?

Ardoari eskerrak ikusi ba dut garbi, bost ajola neri ordi-“keria”.

**13** Bart betiko istillua; nazkatuta nago. Aztuna zait guztiz bere maitetasuna. Beti ari da etengabeko leloak esaten. Itz berberak orrenbestetan erabilli litezkeanik ez nuan uste: beti berdin; beti! “Maite zaitut”, eta orrelakoak entzuteak nere onetatik ateratzen nau: milla aldiz entzun izan ditut. Zertarako entzun bear berriz?

Miren'ek aaztu izan ba nindu, obe biontzat. Eta ez nituzkean nik lelo nekagarriak entzungo.

Egunero berbera! Igesari emateko gogoia ematen dit bere begirune maitariak.

Ezin, Jauna!

**14** Ez dakit zenbat denbora den emen idazten ez nuela. Zertarako? Ixilpean eraman dut nere nekea, ezta emen ere deus esan gabe.

Aste gogorak izan zaizkit azken auek. Egia esan, beti bezelakoak. Baña betikoaz gañera erori dira atsekabe auek, eta orrek egin ditu, ain zuzen, nekagarri.

Atzokoa, ordea, ezin ixildu. Gertatu zaizkidan ikaragarriena da nunbait. Gau aaztu-eziña pasa dut, bai, bañan ez zorionagatik, alegia.



Ura lokamutsa! Itzarrik nere asmamenak asma lezakeana baño beltzago ta izugarriagoa izan da. Nondik otu zitzaidan neri alako astakeria?

Lotan zegoan Miren, lo sakonean. Begiratu egin nion, nere odolak arrigarrero zirakiela. Azaldu eziñezko amorrak arrapatu ni, ta lepotik eldu nion bi eskuez, biurtzeko eran. Eta estutzen asi nintzan, geroz ta bortitzago, batere kupidarik gabe. Ta nik estutu ala, beroago ta lodiago egiten zitzaidan odola, ta zaiñetan zear ibilli ere ezin zitekeala zirudien. Beroaldiaren aundia!

Zerbait esan nai bide-zidan Miren'ek: bere begi zoratueta ikusi nuen nik. Begirada triste aren irudia etzait sekulan itzaliko. Bañan une artan, ni bigundu bearrean, ankerrago biurtu ninduen, nolatan ez dakidala, ta indar berriak eman zizkidan bere aultasunak.

Oraindik ere nabaitzen ditut bere espasmok. Ura sukarra nerea! Iltzeko atsegiña ezagutu dut ametsetan, eta izutu egiten naiz.

Karrasi zorrotz batek dardaratu ninduen. Miren'en karrasia zan, noski; banekien nik lozorro bete betean, eta asaldata egin nintzan itoketa agertuko zalakoan.

Mallukadak ziruditen nere biotzeko taupadak, eta sekulako nekea nabaitu nuen bularrean, pixu eskerge bat bere gañean jarri bai lutean. Nekez artzen nuen arnasa, taupada az-tunak nere zaiñak astintzen zituztela. Ura larria!

Beste karrasi bat entzun nuen, lenagokoa baño ere zorrotzagoa ta latzagoa; ta ifernuko atean izutuko nintzakean aña izutu nintzan. Ta neuk ere bota nuen karrasi zirrargarri bat.

Estutu-ala estutu zuten nere eskuak Miren'en eztarria, miña artu arte. Ezin azaldu sentsazio ura: karrasien artean, itoerazi naiean, pixu aztun-aztuna biotzaren gañean taupadak mallutzar batek emango bai lituan, beroa... zer dakit nik!

Geroz ta maizago entzuten ziran bion karrasiak, alkarrekin naastuak, eta ni neu ito bearreran egon arren ez nintzan esnatzen. Entzun egiten nuen bakarrik.

Esnatu egin nintzan, azkenez. Besotik iñarosten ari zitzaidan Miren, ni esnarazi naiean, eta ikaratu egin zūen noski nere zoro-itxurak. Lertu bear nuela zirudien, ta begiak nolakoak nituen igartzen dut: ispilluan begiratu nuen egun artan bezelakoxeak.

Ni bezin izututa zegoen Miren, eta galderaz bete ninduen. Alik eta gutxien erantzun nion nik nere izualdian, eta lokamuts bat zala esan. Besterik ez. Zer esan nizaiokean?

Berriz lotan asteko alegiñak egin nituen, bañan alperrik. Otzikarak astintzen naute orain ere karrasiak gogoratzean; onengatik pasa dut gau osoa ikara bizian, oiua berriz entzuteko izu betean. Laztu egin zait illea bein baño geiagotan, eta alaxe gertatuko zait noski geroan.

Entzun, eta ezin esnatu. Erio-aurrea ezagutu al dut, ausaz?

# 15

Astiro aztertu dut nere egoera, ta irte-  
era bat besterik ez dakusat: etxetik al-  
degitekoa. Zeatz pentsatu dut dena, ta  
ez dago besterik.

Banoa emendik. Dena ezagutu nai dut, dena  
dastatu nai dut; eta gero, ori guzia egiñik, auke-  
ratu egingo dut.

Garbi dago, nere gardiz, neri gertatutakoa.  
Pentsatu gabe aukeratu nuen bidea (Miren),  
(Miren'ez besterik ezagutu gabe). Bide egin arte;  
ta ortik datorkit frakasua: neuk egin bear nue-  
na zori utsari utzi nion ta oker irten zait. Nola  
ez? Zergatik ez? Biotza al dugu bakarrik?

Ikusi nuen lenengo lillurari eldu nion, Egia  
ta Bidea arkitu nituelakoan; atsekabez beterik  
egiztatu dut, ordea, etzegoela orrelakorik, eta  
bidez naastu nintzala.

Orrengatik noa etxetik. Eta Paris aldera  
noa: bear den bezela nunbait aukeratu aal iza-  
tekotan, an aukera diteke, noski. Dena ezagu-  
tuko dut, eta biotz txoroari uko egin ondoren,  
buruz aukeratuko dut ni beteko nauena, ots,  
nere bide egiazkoa.

Noiz etorriko naizen ez dakit, ezta Altzu-  
rain'a itzuliko naizenik ere. Betirako noa agian;  
nork dakike?

Gogorra zait joatea: nere sorterriari utzi, nere  
gizaroa galdu, nere erriari aldegin... Miren bera  
gezurtara ta abandonatu, dena sentitzen dut  
errai-muñean.

Baña nere azkatasunaz baliatu bear dut.  
Oker jokatu ba nuen bein, zuzen dezadan orain

oker ura, ta asi nadin berriro bizitzen. Gogorra da joateaz egiten dudan belzkeria; baña geratzeaz ere, ez al litzake gogorragoa izango? Pentsatu gabez nere burua betirako galduko banu, eskeñi zaidan aukera bakarria ondatuko banu, ez ote nuke saldukeri txarragoa egingo? Bein bizi gera sollik, eta bein baño geiagotan ez dugu aukerakizuna autatzerik izango.

Ez nintzan ni onetzaz garaiz konturatu. Berandu oartu naiz, alegia, baña nere urrats okerrak zuzendu nai ditut, oraindik zuzen ditza-kedalako ustean.

Pentsatzeko eman zaigu burua, ta biotzaren zorion-irritsa pentsa dezagun. Orrengatik gera geure esku.

Eta Miren gajoari zer esango diot? Nun na-goen ba daki, egin du nereak: nere ondora etorriko litzake egiñaletan. Ezin esan dizaioket, eta ezkutuki ibilli bearko dut joateko.

Egun batzutarako noala esango diot, eta iritxi ta segituan zuzenbideak bidaliko dizkiodala. Negozio-kontuak direla ta kitto. Gero geroakoak. Neuk ere ez dakit gertakizuna.

Erabaki gogorra da au, ta damutu egingo zait bearbada noizpait. Edo-ta, au egin bear dut nere burua galeraziko ez ba dut, beñipein.

Agur, Alzurain! Agur, denoi!

Gizonaren zoribidea oarrez bizitzera noa

Agur!!!

NEG U

1

Treanean idazten dut au Paris'ako bidean. Laisterrean nabaitzen da aldakuntza: 140 kilometro bai orduan onek. Eta ariñago dakusat nik nere burua ere, tren bezela, berriz jaio izan ba nintz gisan.

Gorago bide-daude emen odeiak, eta zabalagoa dirudi landak: muño txikiak islatzen dira bakarrik noizean bein. Gañerakoa, laua ta zabal da txit. Gogarago betetzen dira emen nere hirikak, eta zoriontsu naiz berriz.

Neure esku naiz. Itxaropenez betea dut gaurko eguna: ori idarokitzen didate belardi zabal berdeak eta tellatu grixak.

Piztu naizela dirudi. Aurraren eran ikusten dut dena, ots, arrituta, zoratuta, baikor...

Izkuntzaz aldatzeak ere inpresio ori bera uzten dit. Aurraren eran jarri bear dut: konprenitzeko alegiñak egin bear ditut, doñua alakotu bear dut ulertuko ba naute, ta, dena dela, umekiro jokatu bear.

Orretan datza, nere ustez, bidegiteko atsegiña: jaio egiten da, ta umeak bezela miresten dira munduko gauza arrontenak. Eta zein dago zorionetik urbillago umea baño? Miresteko gauza da au; ta miretsi egin bear da edozein gauza bere xarman sartzeko. Berritasun orrek sortzen du olerkia, ain zuzen.

Bai. Zalantzarik gabe, jaio egiten da berriz txangotzen duena. Dena berria. Aurtzaroan bezela... Au lillura...!

Urruti dago Paris oraindik, bañan uste du dan baño leenago iritxiko naiz. Ez dut Paris ezagutzen, eta gustatuko zaidalakoan nago. Ospea badu erruz. Gustatu baño bete egingo nauela. nere jokabidea arkitzeko beintzat.

Tristeia izan da azkenagurra. Ez diot nik bidualdiari batere garrantzirik eman, noski; baño zerbait igarri dio Miren'ek. Bere jokabidean nabaitu dut argi ta garbi. Ta nekeak izan ditut arekiko penaz atzera ez jotzeko.

Bere indar guziaz besarkatu nau milla aldiz, esaten zidala:

—“Zu galtzeko bildur naiz, Joxeña. Azken aldiz joango ba ziña orain... Esaidazu, arren, maite nauzula. Esan ere alik eta azkarren itzuliko zerala. Oso zakarra izan zera nerekin azken bolara onetan, eten zazu orain beintzat zure zakarraldia, ta esaidazu zerbait goxo. Entzun egin bear dut!!!... Eta zu bear zaitut!! Ez al zera konturatzen?!”

Sakon unkitu naute itz auek; baño “beste” saldukeriaz gogoratzen saiatu naiz. Miren'ek



J. ALONSO-SUDARMA  
1957

Parc de Buttes-Chaumont.

**BUTTES CHAUMONT - PARKSE**



eskeñi didan baño zorion biziagoa bear du nere biotzak, eta arkitzen alegindu bear dut denaren gañetik. Berebat, pentsatu gabe aukeratu nuen nere bizibidea; ta ez naiz zorientsu iñola ere. Zertarako eman zait bestela adimenaren argia, billatzeko baizik?

Oarrez, ondo buruaz, aukeratu bear dut nere bidea; bestela Zoria da nagusi, ta atseka-bea geienetan bere ekarria.

—“Galdu zaitudala deritzat. Nun daude asierako laztan eta musu bero aiek, Joxeba? Nitzaz nekatu zera... Ta, bearbada, nigandik aldegitoko zoaz gaur. Esan ezetz, arren...”

Nola edo ala, ezetz esan diot nik. Ozta-ozta atera zait bearrezko gezurra.

Gero geltokian, ez du negarrik egin, nere trena abiatu den artean. Orduan bai. Azken uneraño iñarrosi du besoaz musuzapia, nere trena zugaitzen atzetik estali den arteraño. Gutxitan izan dut biotza estutuago; bañan orain pozik nago, nere joerak gainditu ta neronen esku biurtzeko indarrak izan ditudalako.

Gaistoa naiz, badakit; au guzia egiteko nigan pentsatu dut bakarrik. Baña burubideak ala eskatzen zidan. Zertarako dut ulermena?

Nere bidea billatzeko.

Arkituko al dut!

**2**

Badira egun batzuek Paris'en nagoela; ta, alere, egunkariak ez du nere luma-ren muturra ikusi, alajaña. Ez dut beta

egokirik arkitu, ta gerotik gerora utzi dut idaztea.

Egun batzuek pasa dirala-ta, zer esan dezaket Paris'ez? Zer egin dut zeatz? Ezer ere ez. Ibilli besterik ez. Izan ere, ez da gutxi. Toki guzietatik igaro naiz, oñez beti, ta ikustekoa izan da nere lan bakarra. Gauero, oieratzekoan, poto eginda etzan naiz. Ez da arritzekoa.

Baztergabearen indarra du Paris'ek. Uriaz nausitu ezin ditekeala dirudi, aunditasuna dario orotatik, bizia du gañezka, ta berpiztuta bezela paseatzen da bere kaleetan barrena.

Baztergabe ematen du: edo gizona baño milla aldiz aundiagoa. Onetxek ematen dio here kutsu berezia: menperatu egiten du guztiz Paris'en indartasunak.

Eta zer izan zait atsegiñena? Ez da erraza esaten. Polliki-polliki igaro naiz frankotan "Quais" delakoetatik, "bouquiniste" guzien aurrean geratuz. Ez dakit, bañan orrenbeste liburu ikusita, nola ez geratu?

Bestetan, aozabalik eta zalantza gorrian egondu naiz "Bois de Boulogne"ko" bazkaldegi apain aien aurrean, nere buruarekin solasean.. Eta beren argiak aintzira garbietan diztiratzean, zoriona atzeman ditekeala pentsatu izan dut, zerua bera baitzan ura zerua izatekotan. Ura atsegintasuna! Ta bekaitzez beterik begiratu diet sartu diran bikoteai. Ezkon-berriak, noski, geien-geienetan. Lilluraren zoragarria!

"Arc de Triomph" delakoa miratu dut", askotan, arratsean eta "Champs Elysées" abe-

nida argitsutik batez ere bere errañua zeruan erregekiro islatzen denean. Bestetan "Avenue Wilson" 'ean exeri naiz, zugaitzen itzalean. "Musée de Galliera" 'ren aurrean, eta an egondu naiz, presarik gabe, arratsaldea pasatzen uzten.

Ikusgarria zait, gauez batez ere, "Champs Elysées" 'ko joan-etorri eroa, baita "Rivoli" ta "Place de la Concorde" zoragarrietakoa.

Uriaren orro azkarra entzun nai dudanean, berriz, itsasoan ekaitz urrutikoarena bezelakoa, "Tuilleries" 'ko jardinetara joaten naiz, eta aietatiko bista bezelakorik ez dagoela esanez, ez dut gezurrik batere esaten. Edonoruntz begiratu, ta erdi-jainkoen uri batean nagoela uste izaten dut nai ta naiez.

Persia'n arkitzeko "Tertre" 'ko enparantzara joan besterik ez da bear, gauez. Eta atsedena artzeko, "Buttes Chaumont" 'eko parkera joan, eta ujola edo aintzira ikusiaz joaten zait nekea. Edo bestela, "Vert Galant" 'delakora joan, eta "Seine" 'ra begiratu.

Eta milla ta milla toki geiago.

Zergatik jakin gabe, piskanaka piskanaka, gañezka bezela arkitu dut nere burua, geroago ta beteago.

Atzo, batipat, "Chaillot" 'ko Jauregia eza-gutzera joan nintzanean, zearo unkituta ibilli nintzan andik. Biotzeraño sartu zitzaidan aren ederra, ta zauskada zerutiarrak astindu nin-duen Paul Valéry'ren idazpuruak irakurtzean. Gizairudi larriak, jauregiaren yaukala, dena,

unkigarri zan; eta egoki-egokiak etorri zitzaizkidan pentsaera labur aiek. Gutxitan nabaitu dut olerkiaren ziztada zugazti aietan bezin bortizki.

Onengatik, mozkortuta bezela nabil. Ain zuzen, baztergabetasun-kutsuak orditu nau; ez bestek. Minberatu egin nau edo, ta sentikorrago nago orain iñoiz baño. Miren ezagutu aurretik Zerubide'ra joaten nintzanetan sentitzen nuena bera sentitu dut berriz; ots, gaztetu egin nau Paris'ek, eta bizitzeko gogoak eman.

Ero modun nabil. Beltza zan nere biotz-utsunea margoz bete da ta polita dirudi orain tristurak berak.

Zorion-miña... Baztergabe-kutsua...

Betikoak. Maite-aroan nago berriz. Nai izan gabe, Miren'ez gogoratzen naiz; ez beragatik, nere gaztaroagatik baizik.

Eta onela, lenengo maitasunaren kutsua du neretzat Paris'ek: arek bezela bizitzeko gogoa piztu dit onek, arek bezela margoz apaindu du nere arimaren utsunea, arek bezela amaika xarma berri agertu dizkit.

Eta lenengo maitasuna gisan, Paris ezagutu duenak aaztu dezakeanik ez dut uste. Lenengo andregai maitagarriari bezelaxe, aaztu eziña deritzat uri zoragarri oni.

Sekulako arkikundea egin dut.

**3** Leengo egunean esaten nuen bezela, gaztetu egin nau mundu berri onetan

murgiltzeak; eta berriro bere zorion-azkure bi-  
ziak. Aizearen olerkia dastatzeko gai naiz biga-  
rren aldiz, leen baño geiago noski: gaur bezin  
xamurkiro ez nau itzalaren ozkirriak sekulan  
laztandu.

Argi ikusi dut gaur, eta biotz-utsunearen  
sustraiari igarri diot: Jainkoaren egarria da  
gizonaren zorion-miña. Zerbait Absolutu bear  
zuen nere biotzak, Artan atsedena ta atsegiña  
edateko. Betetasuna bear nuen, osotasuna, gel-  
ditasun osoa, pake egiazkoa, egia utsa, dene-  
tatik dena. Nola bete nintzake emakume gajo  
batek? Nere egarria bera zuenak palakatuko al  
ninduke agian?

Nekez bete dezake mugadun sorkariak mu-  
garik ez duen arrenkura. Ezin bete nintzake  
Miren'ek, ezta beste edozein emakumek ere.

Erliziozkoa da berez gizonaren utsunea, ta  
ez dauka mundu onetakoaz asetzerik.

Ez naiz, bada, emakumez naastu, ez. Ziur  
dakit orain.

Ederki ulertzen dut lillurakin gertatzen dena:  
beti izaten da lillura lortzea baño ederragoa.  
Bestetan esandakoa: ametsen azpian geratu oi  
dira egiñak. Ez da arritzekoa: absolutuak eli-  
katzen eta moldatzen ditu ametsak, irudimenan-  
ren bidez. Maitemintzen geranean, esate bate-  
rako, ez du ameskia andregaiak sortzen, gure  
Jainko-egarriak baizik. Orrengatik apaintzen  
dute maite-miña andregaiak berak ez dituan  
gauzak, oarkabean, absolutuari ditxekon gai-  
tasunak geuk ezartzen dizkiogulako.

Eta ala izanik, aberatsagoa da askoz ere gure egarriari darion edertasuna (ukaeraz sortzen ba da ere), neskek edo emakumeak duena baño.

Auxe da aldakuntza: absolutuaren irritsak bitxitzen du lenengo maitegaia, ta nai ta nai-ez geratzen da au geroenenan sortutako mithoa baño beerago.

Lillura sortu duena baño ederragoa da lillura bera. Onengatik, gañera, lillura iltzen du beti edozein lilluragai atzeman eta irixteak.

Gauzatze guziak ondatzen dute ametsa; zeren ametsa Jainkoak edertzen duen, gu konturatu ez arren, eta gauzatzea sorkariak. Absolutuaz jazten da berez lillura; ta emendik ondorea.

Ez dago betetasunik gizona guztiz bete dezakeanik: ezin bestez etorri bear du gerora etsipenak.

Ez da maitemiña bakarrik gezurtaritzen duena, edozein lilluragai baizik. Lilluraren sus-traiean datza geroko frakasua.

Mugara iritxi ezkerro, ez dago lillurarik. Beraz, ez gaitezen iñoiz iritxi. Au da askoren iritzia. Askorena esan dut, eta guziena esango ba nu ere, ez nintzake oso oker ibilliko.

Iristeak oro lillura iltzen ba dute, ta aberatsago ta ederragoa ba da izanez lillura irispena baño, egokiagoa da bidea ere elburua baño.

Ibilli gaitezen elbururuntz; onela bizi gaitetzeke zoriontsu xamar beintzat. Eta ibilli aal izateko, urrutira ditzagun jomugak. Onela jo-

katuz, betirako izango dugu nundik ibilli ta noruntz joan, eta amaigabeko bideetan zear gordeko ditugu lillurak eta zorion-esperoak.

Tarteak sortu, tarteak asmatu, ibilbideak billatu: onatx agian gizonaren salbazioa... Eldu ez-bañan ibilli gaitezen, eten gabe, zorion aldera, beñere bidea bukatzeke. Ez dago beste salbaberik: gauzen esentziak eskatzen digu jokatera au.

Eziñezko amodioaren erakarria konprenitzen dut orain: ezin lortu ditekena aukera dezagun, eta orrela etzaigu lilluraren lorea beñere zimelduko...

Bai... bai... Egia...

Baña, Jainkoa?

**4** Tinkoago nago leengo egunean esan nuen guzian, egia deritzat-eta.

Ibiltzeak, aurreratzeak sortzen ditu emozioak. Ez da eriotza zirrargarriena, nekellarrian iltzen joatea baizik. Aldatzeak eta mugitzeak egiten dituzte zoriona ta atsekabea. Nolabait igitzen ez denak ez du biotza ukitzen: aldaerak ez bestek ikutzen du sentimendua. Aldaera ori kendu, ta asaldakaitza ta oztasun utsa biurtuko da gizona.

Ekarri auetxek ditu oiturak, ain zuzen. Emozio guziak suntsitzen ditu piskanaka, gelditasuna itsasten dielako; ikararik larrienak epeldu, atsegiñik bizienak kamustu, yoranik sakenak itzaltzen du. Biotzaren eralle da oitura,

berritasuna amai-erazten duelako, ta onekin sentimena agortu.

Eta zoriona emozio bat da, ta auetako legeak betetzen ditu. Onengatik, oituran benetako zoriontasunik izan ditekeanik ez dut uste. Jainkoagan ez dakigu; bañan mundu onetan, zorionaren billa dabillenak (au da, guziak) ez dauka gelditzerik. Eta geratzen ba da, bereala uztatuko du gelditasunari darraikona: erio-kutsua.

Ibilli egin bear da, ortaz, aurreratu egin bear da, urratsak eman bear dira tai gabe, eriotzaren bazter geldian ez erortzeko. Oni buruz, illargiaz oroitzen naiz: ilbera ez dagoenean, ilgora dago. Ez dauka gelditzerik: goruntz ala beeruntz. Gizonak ere alaxe du barrua.

Gutziz egokia deritzat onengatik erlijioari, bestegatik ez ba litz ere. Gizonaren elburua Zeruan jarriz, bide utsa biurtzen du biziera, ta itxaropenak eta lillurak gordetzeko aukera bakarra ematen dio gizonari. Erlijioari eskerrak, bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna. One-la jokatzuz, erlijioen sortzailleak zein arten eta noraño sakonki ezagutu zuten gizonaren sus-traia neurtzen da.

Ondo zekiten aiek lillurak oro itzaltzen dirala urteakin, eta eriotzaren atzean jarri bear zala gizonaren itxarokizuna, onek iraun al zezan.

Orretzaz gañera, elburutzat Jainkoa bera jarriz, oker guziak baztertu zituzten, eta guztiz egokiro pentsatu zutela esan diteke.





JN ALVAREZ-EMPARANZA  
1997

PALAIS DE CHAILLOT

CHAILLOT - JUREOIA

Nai dutena esango dute "gaikoiak", bañan istoriaren agiria dago or, eta erlijioako sorkari agertzen ari da gizona bein eta berriz mende guzietan zear, Jainkoaren bearra da gizonaren sustraia bera: gizona ukatu gabe, ezin diteke au uka.

Gañera beste obari bat du erlijioak, kaxkarra ta erdi-farregarria ba da ere: mundukoien frakasua agiriko gauza den bezela, iñork ez daki ziur erlijioaren okertasuna. Onela, itxaropen iraunkorragoa izango da beti erlijioa, mundua baño.

Bestalde, bizitza obakunde bat bezela jotzean, zer-egiña biurtzen da biziera, ots, bide bat, eta beste arrakasta aundi bat du au ere.

Bearrezkoa iduritzen zait, beraz, orain beintzat, gizona griñaz beterik eta okertua dedilla: akats auk gabe, ez luke zer-egiñik izango, ots, biderik; eta gizonari bidea ta zer-egiña ukatzen dizkionak bere izaera bera ukatzen dio, ibilli bearra bai-da gizonaren mamia, ta ez besterik.

Alde onetatik, beste gauza bat, ikusi uste dut: gaitza izatearen karia. Gizonaren izanak eskatzen ditu nere ustez bidegabekeria ta larri-miña. Auek bukatuko ba lira, edonolako atsekabe ta egarri guziak ase al ba litez, zein izango litzake gizonaren eginkizuna?

Onela, gizonak berez ibilli bear ba du, dena argitzen da.

Ibilketa bat da, ortaz, bizitza.

**5** Etsita nago. Geiago aztertu ondoren, aurrerago iritxi naiz, alegia; bañan egiaren billa aurrerago joan, eta illunago ikusten dut guzia.

Ibilli egin bear da, bai; ez dago beste soluziorik. Baña, noruntz ibilli? Bideak bear dirala-ta, egia da; alabaña, nora daramate bearrezko bide oriek? Iñora ez ala? Bidea bear dugula esaten da dut (baña nora dijoan jakin bage) atzipe berria besterik ez da nere irteera.

Leengo egunean idatzi nuena ez du onek ukatzen, aurrerago joateko eskatzen duela baizik. Egia zion Shakespeare'k, eta berriz aipatuko dut: "Irabazi ez-baña galdu egiten da dena, naikundea lorturik, gu bete gabe itzaltzen denean". Auxe bai-da naikundeen eta lilluren ondorea. Baña ibiltzeko ibilliko al gera?

Ibilli egin bear da; bañan ibiltzea ez da elburua. Ibiltzeak ez darama absoluturik bere sustraiean. Bearrezkoa dirudi alde guzietatik, bañan ez gaitu arek berak betetzen.

Lillura baten atzetik mugitzen asten geranean, pozik gabiltza alegia; ibilli bagabiltzako ez-bañan elbururuntz abiatu ta nai duguna bereala iritsiko dugulakoan. Ez da ibiltzea atsegiña ta itxaropena piztutzen dituen, berez, elburua gertu jotzea baizik. Urrutiei ba dago jomuga (eta areago jomugarik ez ba da) nekatu egiten da, ta ez da gogorik izaten jarraitzeko. Bideari ekiteko, ikusi egin bear da beñipein aren azkena.

Ots, elburu bat izan bear da, lillurak sortzeko gaia; au gabe zentzua galtzen du ibilli bearrak.

Griña guziak deuseztatzera dijoaz; bañan ezin ibilli jomugarik gabe.

Ortaz, nun dago Jomuga? Nundik dijoa Bidea? Ezin izan ditezke denak berdin. Ezin itsuka jarraitu: ikusiz aukeratu bear da.

Ibilkizuna bearrezkoa da; ta itsuka ibiltzekoa ba litz gure betebearra...

Ezin!!

**6** Berdin ez dela esaten dit adimentuak. Baita geiago ere: nere burua galdu nai ez ba dut bidez naastu ezin naitekela.

Zein da gizonarentzat bere etorkizunarena baño buruauste larriagorik? Ez dago. Emen argi ikusten saiatu bear dut nere indar guziez baliatuz; arazo onetan oker jokatu ba nu, eman zaidan baliotsuena ondatuko nuke: aukerarena.

Absolutuak zuzendu bear du nere bizitza; zer balio izan dezake bestela onek? Zertarako genduke adimentua? Zertarako poz-yorana?

Nun daude oñarri sendoak, aietan nik atsedena ar dezadan? Nun dago beren Iturria? Nun zaude Zu? Zutzaz maitemindu nai dut, zorion betea emateko Zeu bai-zera bide bakarra. Zuzan izango dut bear dudan pakea; erio-atsik ez daraman zure pake zoragarria... Agustin Deunarekin esango dut: "Zeuk esnatzen duzu

(gizona) Zu goratuz gozaro dedin; zeren Zeureztat egin ginduzun, eta urduri dabilke gure biotza Zugan atsedean arte”.

Ez duzu, ordea, itzegiten. Entzun al ba neza zure deia... Itzegin zazu, arren; mintza zakizkida, ta salbatuta nagoke!

Zein da Zuganako bidea? Artan aurrera abiatuko naiz azkar, eta ez dut geiagotan zapasaltorik emango.

Ikusi egin bear dut!!!

**7** Betetasuna bear dut, betetasun geldia gañera. Urduri dabillena laister nekutzen da...

Mundu onetan, berriz, kiratsa dario ur geldiari, ta alaber edozein gauza geldiri..

Oso eskierki esaten nuen leen nik ibilli bear zala: mundu onetan bai, alegia; ez, ordea, betetzen gaituelako. Orain ez nuke orren alaiki esango, zalantzan nago-ta. Nekatu egiten du ibiltzeak... Ez al gaitu zaratak itsutzen, betetzen baño...?

Mundu onetan ez daukagu bada asetzerik. Igikor eta igarokorra da beti onek eskeñi di-zaigukeana; ta pakerik izan al diteke igidura eroan? Ez.

Argi dakusat: munduak ezin du gure utsu-nea bete; ta au adimentu utsaz egizta diteke Gure izaera, ta mundua ozki aztertu besterik ez da bear.

Ots, beste bizitzarik ez ba dago, galduta gagozke derrigorrez.

**8** Edozein fedek balio al du besteak ana? Ezin. Bide bakoitzak bere bide-muga du. Nork garamatzizke, ortaz, egiazko gure elburura?

Batekin itzegiten ba dugu, arek bide-dauka arrazoi osoa; eta au ba leuke bezela itzegiten du. Besteak dijoaz oker, besteak dira arroke-riagatik ikusten ez dutenak, besteak antustez beteak, besteak... Nork here burua baiesten du egia duelakoan, eta indar izugarria artzen dute fedeak aiengan guziengan, ezberdiñak izan arren.

Postuladuak dira fede ta filosofi guzietan: Fededunak dira aiek (edozerгатik) aintzakotzat ematen dituztenak; arro kupidagarriak, berriz, intuiziozko postuladu oietzek arbuiatzen dituztenak. Nola igaroko alkarren arteko leizea?

Arabia'n jaiotzen diranak mahomarrak dira ia bereizkuntzarik gabe; berebát, budista Ceilan'en jaiioak, eta katoliku Irlanda'tarrak. Zerгатik? Zeren egia ez duen gizonagan agintzen, baloreak baizik. Eta balore auek ez dira adimentuz aukeratzen, joera, azikuntza, gizaroa, biotza, ta beste amaika eragiñen bidez baizik.

Bañan joera, azikuntza, gizaroa ta biotza ez ditugu guk aukeratu. Beraz, jo-ta-kea zuzenesten dugun gure absolutua Zoriak ez bestek aukeratu digu.

Jostallu billagarri gu, alegia...

Izugarria da au ikustea; bañan esandakoa-  
ren indarra aundia da, ta ezin uka diteke. No-  
raño esan dezakegu bere esku dela gizona? Nork  
esan dezake berak aukeratu dituela bere ab-  
solutuak?

Nork bere erria maite du, ta ziñez uste du  
denetan ederrena ta maitagarriena dela. Orobat  
gertatzen da politikarekin, edo aberriarekin.  
Landare bezela gera: toka zaigun lur-puska  
maite dugu guztiz.

Bai, landareak bezelakoak gera...

Emen jaio denak., emengoa maite du, ta  
emengoari zuzenesten dio; ta bizitza bera eman-  
go luke berea defenditzeko. Eta ez itsuka, bere  
ustez arrazoi osoa duelakoan baizik.

Alaxe gertatu izan da gerretan, istoriak kus-  
ten digunaz: Egia ta Zuzenbidearen alde bo-  
rrokatu uste zuten gudariak oro, eta orixe pen-  
tsatuko dute gerokoak. (Naita edo gogoz joan  
diranak, beintzat.)

'Arrigarria da, oni buruz, maitasunarekin  
gertatzen dena: denok arkitu dugu ametsetako  
emakumea gure errian bertan. Arrazoa zuen  
Jon'ek (Lore'kin asi baño leenago beintzat...)

Ortaz, oso erlatibuak dira absolutuak. 'Ab-  
soluturik ez dagoela esan diteke egiaz: ez dago  
onetan batere geiegikeriarik.

Berdintsu gertatzen da, gañera, jakintza gu-  
zietan. Euclides'en postuladua ukatuta beste  
bidetatik abiatzen ba da Matematika, egia ego-  
kietara iristen da ere. Filosofian oñarri batetik

ala bestetik asi, ta toki diferentetara iristen da, ta burubide aundiz eta bidez beti. Artean berdin: aro batean jaio diranak ez dute leenago-koen eran ikusten egitekoa, eta arlo onetan batez ere ala bear da.

Ez dago, agiri denez, guzizko aukerapenik. Benetan eta trabarik gabe aukera dezakeanik ez da jaio; ezta jaioko ere. Lojika utsaz autatzea Jainkoari bide-dagokio, ta alperrik saiatzen da gizona Jainkoarena egiten.

Alabaña, nun dago utsa? Egia zein den nola jakin dezaket nik?

Fedezko aitorrak egiten ditugu guziok, baita konturatu ez geran askotan ere. Ezin egizta diteke ezer ere azken-azken iturburuetaraño; nai ta naiez topatzen da nunbait postuladuakin.

Ezin diteke ezer ziurpetu.

Aukeratu ta gero, ordea, absolutu guziai zuzenetsi dakieke.

Nora elduko, Jauna?

Ibilli egin bear da, ibiltzeak berak beteko ez gaituela jakinda ere; eta itsuka ibilli bear da, artutako bidea "a posteriori" baietsi ditelako konsolabide bakarrean. Ikusi ez arren, siñistu egin bear da; ta fede orri bizitza osoa lotu. Federik gabe ezin eman diteke ezaguera-pausurik:

Zein da, ortaz, fedearena baño egintza bidezkoago ta gizonetzkoagorik? Gizon guziok egiten dugu itsutasun-aitor au; eta denetan, eta une guzietan, iñoiz guziz garbi ta ozkiro ikusi ezin dezakegulako.



Fedearen bearra ta bidetasuna onela azaltzen ditut gaur; ez gizonaren aurkakoa bezela, gizonaren izanari lotutako bearra bezela baizik.

Baña, zein fede? Edozein? Zein bide? Zein absolutu?

9 “San Mitxele’ko Istorio” aren azkena etzait atsegin izan: liburu guzian zear eriotzaren larrimiña igarri ondoren, txantxetan artu nai bide-du Munthe’k bere azkena, ta liburuaren jokaeratik ateratzen dela derizkiot.

Eriotza da kondairaren kutsua, ta iltzeko tema duen gizon bakarra ez naizela ikusi dut, munduko arpegi irriberak ikustean nekez suma ha liteke ere.

Absolutu-malla ematen dio eriotzak biziari, eta alde onetatik, bere balioa txikitu ez-baña goratzen duela uste dut. Emari bakarra ta aldez-izeña bihurtzen du arek jaiotzeak eskeintzen digun aukera, bitan egingo ez dugun bidea, bein bakarrik elika gaitzaken guna.

Mugatu egiten digu epea, egitekoai premia emanaz.

Arganuntz erakartzen gaitu, ta edertasun-giro bat du. Denetan ikaragarriena izan arren, gozoki besarkatzen ere badakiela ematen du. Olerki bakana dario bere ondotik, eta bein baño geiagotan gelditu naiz jakin-min illarrien aurrean, galdezka agian, mundua ziplo kanpotik ikusten duenaren eran... Eta eroak iruditu zaiz-



FURSTENBERG  
BRUNNEN  
SAINT-GERMAIN

JR. ANARDI-EMPRESA  
PARIS 1957

FURSTENBERG - ENFERMANTERXOR

kit gizonak, eta beren kezkek eta katramiliak oro arrigarri.

Urduri jarri nau beti kanposantua betetzen duen pakeak. Ziztatzalle da ango pakea, ta asaldatu egiten du erraietaraño. Zergatik kezkatzen gaitu bear dugun orretzek? Ixiltasuna nai dugu, eta bildur ikaragarria ematen omen du eremuko ixil osoak; loa ta atsedena bear ditugu, ta guziz ikarutzen gaitu lo beteak, baita beste batengan ikusita ere. Igesari emateko go-goa piztutzen du illaren geldiak.

Alere, geiago unkitzen nau kanposantuak uriak baño, illerria nereago dudalako noski... Bai, alderago dugu artako pake kezcatsua, kalleko sasi-bizitasuna baño:

Betikoa!

Iñauteri ta mamu-jaia iruditzen zait "Boulevard" etako mugida larria. Nora dijoaz? Nundik datoz? Igitu... Kamustu... Amets-egin... zer-kezkaturik ez dagoelako amets zoroak... Fantasmagori utsa da uria.

Urlia il ba da, zertan nabaitzen da? Uriari host ajola zaio gizona. Bai bidutzi ederra sortu dugula... Laister aaztu da egilleaz.

Bizitza... Sukarra, lenbizi... Ta, azkenik, amaia... Eritasunaren aldiak...

Zertarako ainbeste lan eta neke? "Eriotz-ondoko zerbaiten bildurragatik ez ba litz..."

Ibilli egin bear da; borrokarik gabe ez dago zorion-biderik. Egia. Baña "Saint Germain des Prés" eko ixil paketsua naiago dut. An, eliza zaarraren ondoko alkietan exeri izan naiz arra-

tsaldea bukatzen betestera; ta zoriontsu izan naiz nere gabeen. Nola deritza bere atseko enparantxako orrek? Pake-oasitzaren izena etzait beñere gogoratzen. Alemana-edo dirudi. Ez dakit. Txikia da oso; baña biotzarentzat aundia. Ez joan ikustera: ez dauka ezer ikustekorik.

Bete ez-bañan ustu egiten naiz artan.

Eta au naiago dut; utsunearen tristurak egia arkitzeko gaiago egiten nauelako.

**10**

Parke batean gaur ere, beti bezela:

“Buttes Chaumont” ’ekoan gaur.

Nekez aurreratzen dut artemeindanik: illunpeko erresumara iritxi bide-naiz, eta ez dakusat arrastorik ere.

Beti onartzen dira aurre-absolutuak. Ezin irten diteke utsetik, gero piskanaka ta etendurarik gabe eraikitzen joate arren. Jauzi egin bear da beti asieran: “intuizioa” dela, edo nai dugun eran deitu dezakegun lenengo oinkada. Izenak ez du ajolik.

Zuzia da adimentua, bai; bañan ugarte batean ematen zaigu, gau miñean, eta itxasoia igaro bear da, artaz legorrean baliatzeko. Ta itzali ez dakigun, jauzi egin bear da aurrenik, nai ta ez, zuzia eskuan. Sekulako jauzia, alajaña!

Egiari buruz, benetako aukeramenik ez du gizonak: ezin diteke osotoro aukeratu. Ez gera gai. Inguruko itxasoaz beste aldera bildurrik gabe ta igeritzen pasatzeko, sutzar gartsu bat bearko genuke, itzal etzedin, eta zuzi bat besterik ez daukagu.

Makurtu egin bear burua: ez daukagu egia-  
ra iristerik, jauzi baten bidez abiaturik baizik.  
Eta gu geu ez gera gauza bearrezko jauzia  
emateko.

Nori deituko?

Gañera, ala predikatzeagatik ere, ez da egia  
gizonak geienik irrikatzen duena, zoriona bai-  
zik. Onetarako bide bat da egia, ez jomuga.  
Zalantzarik gabe, biziagoa da zorion-egarria  
egia-miña baño. Nork uka dizaidake au?

Bañan, tinkatuz eta geldi -araziz lanegiten  
du adimentuak. Bizia ulertzeko gai ez da; ta  
illa naiago du, aisago darabilelako. "Ildakoa  
maite du ulermenak" zion Unamuno'k.

Bere izanaz baztertzen du emozioa, au az-  
tertzen ez dakielako; ta emozioa baztertu on-  
doren, ukatu egiten du urrenik bere ajola, ta,  
azkenik, emozioaren izatea bera ukatzen du. Ez  
onek garrantzirik ez duelako, gure flakia aitor-  
tzen ez dakigulako baizik.

Baña zerbait ba da zoriona, emozio da. Or-  
taz, zorionetik kanpora igitzen da adimentua.  
Arimaren baztarrean geratzen da berez.

Ots, postuladuak onartzen ditugu beti, oa-  
rrez ala oarkabean, eta ez gera egia utsa atze-  
mateko gauza. Ulermena atzeman dezakean  
egia, bestalde, zorionarekin zer-ikusirik ez du.  
Zertarako dut, ortaz, gidaritzat, adimentu aul  
au? Zergatik nere almen nagusitzat, neure aur-  
ka ba dago?

Bere flakia aitortu bear.

Bere plaua mugatu bear.  
Edo, bestela, irentsi nazala nere arrokeriak.

**11** “Oi, zein dan ituna  
beera-bear au!  
Nik ez nai eguna  
biurtzerik gau.” (Lizardi.)

Gizonaren ondamendia ezagutu ezkerro, nork ez du maitatuko? Pausurik bat ere eman gabe dijoazkit asteak.

Banoala sentitzen dut, baña nere bidea ezin ikus dezaket. Dena igarotzen zait egiñaletan, nigandik igeska gisan. Paris-aldia amaitzen ari zaidala nabaitzen dut ere, eta geldi-erazi naiko nuke denboraren igarotzea, arekin bai-dijoa agian gizonari eman zaion gauza bakarra.

Beste batek urrutitik ikusiko ba nindu bezela ikusten dut nik nere burua, uriko kaleetatik paseatzen; oroimenean ikusten ditut orain-go lipar labur eta igeskor guziak, denborak edertu, ta olerki-kutsu arrigarriz jantziak. Eta eldu egin nai diot guziari, ikara bizian; eta bein baño geiagotan atzitu dut eskuaz burnizko eskudela, edo beste edozein gauza ta zorabio arrigarri batek astindu nau.

Bidenabar... Illunpe batetik illunpe batera dijoan bidazti itsua naiz.

Itzarrik egin nuen bart amets. “Sacré Coeur” eko malladian izan nintzan arratsean, eta bi-ziro egoki gelditu an berandu arte. Aurrean, urruti-urrutiraño, Paris’ko itsaso argitsua, ta

bere gañean zerukoa, diz-diz ere bai. Ipurtargi-multzoa goian eta beian. Nere atzean, eskillara luzearen koroatzat, askotan maiseotutako eliza zuri famatua, argiz edertua. Ikuskari bakana, alafede!

Gazte franko zegoen malladi zabalean exerita, ta ez oso gazteak ere bai, ta nik ere berdin egin nuen. Aurrean, erronka, bohemioak, edo ez dakit nik zer ziran aiek, funtzio jatorra eskeñi ziguten: kankak, olerkiak, tronpeta edo gitarra jotzea, denetatik ikusi genuen. Baita dantza arrigarriak ere neska-mutil bik egiñak.

Etzait beñere aaztuko ango giro berezi ta alaia.

Betbetan, ura sortu zan moduan, joan egin ziran gazteak Montmartre'runtz, eta altxa egin giñan gu ere ikusleok. Penaz, alegia... Bañan, agitz alegeratuta.

Paris'ko argi-itsasoak leen bezin geldirik zirauen eskillararen aurrean, urrutiko galda eskerga baten errauts epeldua bezelakoa.

Goitik, kamiñutik, elizari so une batez egondu ondoren, itxura guzietako turistak Montmartre'runtz.

Gaua zan.

Tximistada bat neritzan guziari.

**12** Egiarako bidea argitzeko argizagi bat daukagu; eta baso itoa ta piztiduna da igaro bear dugun oiana.

Alperrikakoa ez-bañan exkaxa zaigu argizagia. Geiegi altxatzen ba gera, zugazti-puska

zabalagoa ikusten dugu, egiazki, bañan illunpe ikaragarrian naasia. Altxatzen ez ba gera, berriz, obeto dakusagu; baña zer ote dago beste aldean? Urbildik argitzen du bakarrik adimenaren zuziak; urrutitik illunpe beltzean itzaltzen da piskanaka, ostu bat islatu ere gabe.

Bide bat aukeratu ezkeru, laguntza joria dugu bada gure argitxoak; edo inguruak ezagutzeko egokia... Munduaren guzitasuna batera argitzeko, ziztriñegia.

Ortaz, zer ari naiz ni, ero au, argizagi bat eskuan oian izugarrian billaka? Denbora alperrik xautu besterik egingo ez dut, orain arte aurreko guziak galdu duten bezela, ta ez dut aiek baño geixeago ikusiko egiari buruz. Besteen frakasua kontuan artuko al dut? Ezin billa dezaket: argi diña ez daramat.

Nor naiz ni, bada? Nola jaio nintzan? Txirripaz etorri naiz mundura, txirripaz ezagutu zuten alkar nere gurasoak, eta ala Adan'ganaño. Eta jaio ondoren ere, Zoriak gidatu nau orain arte, ta millatan il nindekean. Eta il izan ba nintz, ezertan ere etzan nere utsunea nabaituko; ez bai-naiz ni iñor, ustekabe utsaren seme baizik.

Ikas zazu, au siñisten ez duzun orrek, bi-ziaren jatorria; ta lauorri geldituko zera aren zalla jakitea, baita txundituta ere zeure izatearen iturria aztertzean. Ziñez diot: mirakullu uts-utsa da edonor munduratzea.

Eta nik, ustekabez naizen onek, ezin aukeratzeak, zer du arritzekorik? Aldrebes ba litz



(ots, nik egia osoa ezagutuz siñiskizuna aukeratu al izatea) arrigarriagoa izango litzake askoz ere. Zeren Zoriaren ekarria naizen ni guztiz, osotoro, arras.

Ta, zer da, ain zuzen, nere adimentuak arrotki eskatzen duena? Erdi-erdian jarri, ta gauzak banaka ikusi ondoren, egia deritzana autatzea. Baña zein naiz ni nerez, berriz diot, erdian jartzeko? Nondik nora izan bear dute nere jopu sorkari guziak? Noiztanik ni guzien errege?

Aukeratu... Ez daukat nik aukeraterik!

Nazkagarria da gañera aukeratzallearen arrokeria, besteak mirabe biurtu nai dituelako.

Eziña ta gorrotogarria da, bada, aukeratzeko nere naikunde zaarra.

Ta ura jotzen nuen nik gizonaren sustraia?

**13** Arrituta gelditu naiz gaur etxeratzean: Miren'en eskutitz bat arkitu dut oia-  
ren gañean. Letran ezagutu dut.

Presaka ideki dut estalkia, ta irakurri:

“Nere maiteen ori:

Ezin joan naiteke zure billa. Bear zaitut, Joxeba. Ez geiago luza, arren. Eskutitz au jasoko duzula dakit. Neregana ez ba zatoz, il egingo naiz. Ez galdetu nun zauden nola jakin dudan. Beti izango zera nere maitea. Agur, nere biotzekoa. Agur!”

Koloka du idazkera, ta oikoa baño motzago esakera.

Erraietaraño sartu zaizkit esakuntza guziak. Gaixo Miren! Nigatik etsita, nigatik ozkeriaren

ifernura erorita. Zirrara sakona eman dit zure deiak, eta oraindik maite zaitudala ikusi dut.

Maite? Bai, Miren; oraindik ere maite zaitut.

Dollorra izan nintzan zurekin, biotzaren abotsari ez-entzuna egin nionean.

T'a garaitu nuela esaten nuen nik nere erogian. Bai, ordea, nere arrokeriak ni garaitu.

Ni, ni, ni. Onatx korapilloa: neu nintzan kontutan euki bear zan bakarra.

Baña, zein naiz ni? Neu ez beste.

Ta Miren gajoa nigatik penetan...

Nere eroegia!!!!

**14** Iñora ez darama adimentuak, bere ezina adiraztera baizik.

Nora, berriz, sentimentuak?

Sentimentuak ez du aditzen, eskatzen baizik. Biotzean dauka bere katadera, ta ark kilikatzen gaitu zorion-miñaren bidez, gure eragille biurtuz. Zorionaz eta atsekabeaz ulertzen du bakarrik; eta baloreak mallatzeko uste dugun baño geiago laguntzen du neurri bakar orretzaz baliaturik.

Zoriona iristeko maitetasuna eskatzen digu. Maitetasunezkoa da bere elea (begira egiegun emakumeei) ta maitatzean arkitzen ditu atsegiñik bizien eta csoenak: maitatzekoa ta sortzekoa.

Eta zer da maitasuna? Nork bere burua eman, nor bere buruaz aaztu, nor bere burutik ateratzea. Beste batek gu aukeratzen uztea.

Gu zeru-lurreko erdian jarrita aukeratu nai ba du adimentuak, geure burua eskeñi nai du berriz sentimentuak, besteentzat gu laguntza bihurtuz. Arek berak aukeratu nai du adimentuak; besteak bera aukeratzea sentimentuak. Guztiz diferente dira bada bien jokaerak.

Bañan ustekabeak eta zoriak gidatu ba nautte orain arte, zein zaio gizonari bietan egokiena? Jainkotzat artzen bide-gaitu lenengoak; sorkaritzat, ordea, bigarrenak. Au dago, ortaz, bestea baño sustraizko egiatik bertago.

Eta agitz geiago betetzen gaitu maite-legeak, gure adimentu utsak egiaren billa alperrik nekatzeak baño.

Jaio nintzanetik zuzendu nau maitasunak, gañera. Egungo nere baloreak ez ditut askotan egiaren arauz nik aukeratu, lengoan izkribatzen nuen bezela, neure joerak eta azikuntzaren arauz baizik. Zergatik au? Nik aukeratu ez-baña ni aukeratzea gertatu zaidalako.

Au guzia zorion-yoranak eragiten digulako.

Bidez esaten zuen au, gutxi gorabera, filosofo aundi batek: zertarako balio digu izartegiaren yaukala betesteak, gero maitatzeko laguntzen ez ba digu?

“Zein da nere serbitzaria” ez-baña “zeñen serbitzaria naiz ni” galdetu bear dut. Onatx salbabidea.

Zakurraren jokaera bururatzen zait. Zergatik maite du zakurrak bere jabea? Onek aukeratu zuelako.

Eta guk geuk, gorabera jakiñak gordeta ere, ez al dugu berdintsu jokatzeko?

Eta toka zaion jabe ori maite duelako, zaturra iñork kondenatuko ez ba luke, nork zigorkatuko luke gizona bere aukeratzaldea maite duelako? Bereak maitatuaz jautu du zalantzarik gabe bere burua.

Bañan, ulermena? Argizagi itzalkorra da.

Ortaz, bear nauenaren serbitzari naiz ni. Nolatan bear nauen ez du ajolik: dena dela, gaur eta emen, ni bear ba nau, zorretan nago arekiko, ta nere laguntza eskeñi bear diot.

Serbitzari naiz jaiotzaz. Ez naiz gañera serbitzari astratua, ondo konkretua baizik, nereen serbitzaria bai-naiz. Eta, nortzuk dira "nere" oriek? Jainkoak nere ondoan jarri zizkidanak.

Nere onetan egoteagatik, ezetsi al nazake ausaz Jainkoak?

Onela jokatzuz, zoriontsu izango naiz eta nere zorrak kittatuko ditut, eta poztu egingo dira nere bidez serbitzatzen ditudanak.

Ni neu bear nautenak aurrenik, eta edonoren laguntza bear dutena urrenik: orra or nere nagusi ta ugazabak.

Nere burua makurtu ta umillatuko dut orrela; ta nere mallagoari dagokionaz besterik ez dut egingo.

Zoritxarrez, ez du Jainkoak itzegiten; baña beartiak itzegiten didate bere orde, edo Ark auen aoaz. Maite-deia da berena, ta Jainkoak berak deitzen nauela iduritzen zait, zergatik garbiro ikusi ez arren.

Obe da maitatzea ezagutzea baño. Obea, ta egokiagoa.

Eta, egia?

Osorik ez daukat nik iristerik. Eta gutxi al da, izan ere, argizagi baten bidez Jainkoa badagoena jakitea?

**15**

Miren'ek bear nau; nere aberriak bear nau; nereak bear naute. Berena naiz, eta berak gabe ezer ez naiz.

Orain, nere onetan, aientzat bizi bear dut. Nerez nora jo bearko nuken ez dakit. "Nerez" esan al diteke? Aroak egin nautena naiz, ez beste. Gaur, eta ezin atzeruntz joan berriz, aiek naukate ni, ta aientzat jaio naizela esan diteke.

Ta nere "gaur", nere "atzo", ta nere "emen" gabe, ni ez naiz ezer, asmaketa farregarri ta itsa baizik.

Bost ajola neri nola edo zein bidetatik biur-tu naizen naizena. Au naiz, berena naiz, eta bere-gana noa egiñaletan.

Buruari uko egiñez, bidean abiatzen naiz azkenik. Gora biotza!

Altzurain'a noa.

Kemen izan, Miren. Bereala nago zurekin betirako, ta barkamentua eskatuko dizut bo-rondate osoaz.

Barkatu, Miren! Barkatu, nere Jainkoa! Aundia izan da nere arroaldian egin dudan pekatua.

Agur, uri zoragarria!

Agur!

**16**

Altzurain'en berriz. Laburra izango da ondorengoa.

Erotuta bezela nago. Oiean arkitu dut Miren; eriotzear nere ustez. Zurbil urdiña du kolorea, ta zulo ikagarrietan galduta bere begiak. Zer ote du? Ez dakit oraindik. Ni ara iritxi, ta alde egin didate, ta zaputz, gelakide guziak, txintik ere atera ez dutela. Guziak gorroto naute.

Gelan ni sartze berean ezagutu nau Miren'ek; ez begiez, alegia, ikusita ere ezagutzen ez baininduen. Sumatu egin nauela esan diteke, egiazki.

*Urbil-erazi nau, aulduta bai bai-du ikusmena, ta irribarrez esan dit: —“Orain ikusten zaitut... nere Joxeba maitea... Benekien nik... Ezin joan nindekean zugana... oraindik maite nauzu... Etzera kupidaz nigana etorri...”*

Eta ito bearrez eman dio eztulari.

Atsedena artzeko, ta nigatik itzik ez esateko eskatu diot; eta bekokian musu biguin eta zirrargarri bat eman ondoren, alde egin dut andik.

Irtetean, leenagoko keñu muker berberak, eta agurrik ere ez.

Sendagillearengana noa ariñiketan.

Nekelarriraño estutzen nau damuak.

**17**

Uriarte meikuarekin egon naiz: ezer egiterik ez dago aren ustez. Miren'ek ez dauka sendatzerik.

Ain nago etsita, edozein astakeria egiteko prest nagoela.

Sargoi. Buruko miña. Nekez betea. Jangartzu. Izerdi otzez bustita dena. Bero sentitzeagatik ere, otzak nago batera. Ez omen da iñor ametsetan il; bañan ametsetan bezela iltzen ari naiz ni orain. Neure eriobearra ezik, ametsezkoa iduritzen zait dena.

Ezin esan alakoa dut zauskada. Gezurra izan bear du onek. Ezin izan diteke egia. Miren!! Eriotzear!!!

Aultasun arrigarria dut belaunetan, eta dardar bezela soin osoa.

Erruduna naiz, bai. Neugatik gaizkitu da bearbada bere orretaraño; nere ankerkeriak il du agian. Eta beranduegi datorkit damua. Emen egon izan ba nintz apika...

Ez, arren! Ez ori pentsa. Bere erallea naitzela aitortzea litzake ori. Ta ez naiz arekiko eralle bat izan. Ez, Jauna: otoi! Larregi litzake neretzat...

Oraintxe izkutatzen da eguzkia urre-galda or ditziratsutan. Iñoiz ez bezelako adioa gaurko ori. Bai ederra! Bai miragarria! Etzera orratio neretzat...

Ibarluze'ko komentura noa. Urruti dago, bai; baña ni geldi-erazi nazaken eragozpenik ez dago gaur. Oraintxe noa, arratsa illundu aurretik al ba da. Aita Damaso ikertzera noa: sendaketa arrigarriak egin omen ditu belarren bidez, eta saiatzea beintzat etzait faltako. Ta Imirioz'ko

menditarte malkarretik egunez igaro al naiten.

Agur!

Bildur naiz. Otoitz egin naiko nuke. Nori, ordea, fedegabe gogor onek?

1956'eko Agorrillak 30. Au egun gogoangarria! Aspaldidanik sentitzen ez nuen gogoak ikutu nau gaur: otoitz egitekoak.

Jainkoa: etzaitut nik zu beñere ukatu. Lagun zakizkit nere larrialdi onetan.

Zu ikusi ez arren, neure obena ikusten dut. Aukera-min arroak baztertu ninduen nere bidetik. Barkatu. Itzegin zaidazu, otoi, eta ez naiz berriz illunpetan galduko.

Senda zazu Miren. Ori ta geiago merezi du. Nik deus ez.

Argiro ikusiko ba zinduzt, gogoz serbitzatuko zinduzket. Besteak maitatzea, karidadebearra. Jainkoaren egarria, bizitza ibilkizun bat dela, egiara iristerik ez daukagula... Auek dira orain arte, Zure billa ibilliz, arkitu ditudan egiak.

Miren biziko ba litz...

Maitasunaz jautuko ditut nere pekatuak. Maitasunaz... maitasunaz... Nork itzegiten zuen beti maitasunaz? Aitortzeko bildur naiz: Kristo!

Zu al zera egiaz "Egia ta Bizitza"? Ez nuen uste, baña zure ondo-ondoan nintzan. Jakin izan ba nu... Senda zazu Miren, eta il nazazu ni. Neregatik ez-baña bere ondamentiaz errukiturik, senda zazu Miren. Nik ez, bañan ark sinisten zaitu Zu biotzetik. Arren, Jauna...!



Biar ekin al ba nizaio otoitz- gogoeta ma-  
mitsu oni. Joan egin bear dut, zoritxarrez, argi  
printzak nere arima mindua argitzen asten di-  
ralarik.

Sukarra erakutsiko al dit otean egiazko bi-  
dea? Larrimin beteak ala?

Biar argituko dut au bearbada, Ibarluze'tik  
itzultzean...

Bizi zaitez, Miren. Prest nago zure alde nere  
bizitza eskeintzeko. Zure zerbitzari osoa naiz.  
Ziñez esaten dizut. Eta artuko ba zenu ere, ez  
nuke guziz ere nere obena garbituko, il egin  
bai-zaitut.

Agur, Alzurain biotzekoa!:

Zergatik ari naiz negarrez?

Faint, illegible text visible through the paper, appearing as bleed-through from the reverse side. The text is arranged in approximately 15 horizontal lines, corresponding to the ruled lines on the page.

*Biltzallearen oarra.*

Emen bukatzen da Leturia zorigaiztokoaren egunkari unkiagarria. Zer gertatu ote zitzaion gero? Bearbada au ez da sekulan jakingo.

Bañan andik gutxitara, berri au eman zuen  
“Altzurain’go Deia” ’k:

“Urrillak 10.

Gizon baten gorpuzkiña arkitu da Imirioz’ko leitzan. Amildegitik erori bide-zan, eta osagillleen ustez, amar hat egun daramazki an gorpuzak.

Agorrillaren ogei-ta-amarreko trumoi-ean galdutako gizona da noski. Oraingoz beintzat, nor den ezin iragarri diteke”.

Leturia bera eiki, gure Joxeba gizajoa ez baitzan berriz iñora azalduko.

Joxeba'ren istoria jakinda, bereziki joan naiz Altzurain ikustera. Ta ezaguna izan zait dena. Ez nintzan ez guziz arrotz.

Zerubide ezagutu dut. Dena dago berdin...

Urrutiko oiartzunak gisan Altzurain'go zarata... Zugaitz ederrak, aizeak urduri... Pakea... Urmaela an ere, izkutu, bakar... Aurra korrika alaiean: asiera. Agureak konkor: azkena...! Iturritxo eten gabe jario...

Ta ni lasai, geldiro, talaitxo aldera noala... Ixilla, ta neure urratsak entzun: ots, ots, ots, ots...

Eta, bapatean, zirrara, ta ni bildur:

“Ots, ots... Bizion oñok!!!!”

Itsatsi egin zait “Illeta” ’ko eresi sarkorra, taupadakin naasia. Leturia ilda, bere Zerubide'n... “Bizion oñok”... “Bizion oñok...!”

Nere aurrean, bare, urdin, argitsu, zabal, itsasoa... Betiereko itsaso baztergabea.

## AURKIBIDEA

---

Udalen .....	49
Uda .....	71
Udazken .....	77
Negu .....	109